

Lezo: ondarea eta hiri garapena

*Beatriz Herreras Moratinos
Josune Zaldúa Goena*



Lezoko historia urratsez urrats 5

NZ | z n:z k rd .s g ty fsc nc s
s c c nc s.s c l sc nc s

Lezoko historia urratsez urrats 5

Zuzendaria: Juan Carlos Mora Afán

Lezo: ondarea eta hiri garapena

***Beatriz Herreras Moratinos
Josune Zaldua Goena***



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo - Udala

2009

Herrerias Moratinos, Beatriz

Lezo : ondarea eta hiri garapena / Beatriz Herrerias Moratinos, Josune Zaldua Goena.- Lezo: Udala, 2009.- 136 or.; ir. kol. eta tx. b. ; 24 cm.- (Lezoko historia urratsez urrats; 5 / Juan Carlos Mora Afán)

L.G.: SS 1754 – 2008

ISBN: 978 -84-935801-3-1

1. Industria ondarea - Lezo
2. 725.4 (460.154 Lezo)

I. Zaldua Goena, Josune

Maketazioa: eragin.com

Argazkiak: Besterik aipatu ezean, argazkiak Josune Zalduarenak dira.

Inprimatzea: Gráficas Lizarra

ISBN: 978 -84-935801-3-1

Lege gordailua: SS 1754 – 2008

Zuzendu gutunak helbide honetara:

ARANZADI zientzi elkarte

Zorroagagaina 11

20014 Donostia

Tel: 943466142 Fax: 943455811

idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org

HITZAURREA:

Herri baten ondarearen ikerketak ezustekoak eman ohi ditu. Are gehiago, iker-
gaia egunero ikusten dugun ondarea baldin bada; alegia, lanera edo ogitara goa-
zenezan ikusten dugun paisaia bada. Gure eguneroko joan-etorrietan ez da erra-
za konturatzea behin eta berriz ikusten dugun pareta horma hutsa den edo,
horrez gain, eraikin esanguratsu baten zatia den. Aurrean dugun eraikina garran-
tzitsua izan daiteke estiloarengatik, duen historiarengatik, bertan bizi zirenen bizi-
penengatik, diseinatu zuen arkitektoarengatik, edota herriak berak ez botatzea
erabaki zuelako, besterik gabe.

Orain aurkezten ari garen liburua ez da salbuespena, ezustekoei dagokienez.
Ikerketa honen hasierako asmoa Lezoko ondare arkitektonikoa aurkeztea zen;
hain zuzen ere, baserri guneeetako arkitektura zibila; alegia, gure baserriei buruz
hitz egitea, artearen eta historiaren ikuspegitik.

Hala ere, errealitatea egoskorra izaten da. Eta XXI. mendeko Lezoren lekuko
arkitektonikoei, gure komunitatearen lehenaldia eta batez ere azken hamarka-
detako historia ulertzeko laguntza paregabea eskaintzen diguten horietan, herri-
guneko eraikinak eta eraikin industrialak dira. Aitortu behar da, hala ere, lan hau
duela hogeitau urte egin balitz —eta zer esanik ez duela berrogei urte idatzi balitz—,
landa edo baserri guneeetako arkitekturak askoz ere protagonismo handiagoa
zukeela. Baina liburu hau idatzi duten bi ikertzaileek, Beatriz Herreras eta Josune
Zalduak, uste gabeko ondare aberastasuna ikusi zuten gutako gehienok etxe
zaharrak edo pabilioi zikinak baino ikusiko ez genituzkeen lekuetan.

Hala, bada, Herreras eta Zalduak, Lezoren irudi ezagun eta errepikatuenez
gain, arkitekturarekin eta batzuetan ingeniariarekin lotutako ondare hori ekarri
digute gogora, ez baitakigu beti behar bezala baloratzen. Gure herriko elementu
bereziaren deskripzio zehatza egin dute, eta hainbat artista, arkitekto eta disei-

natzailerren izenak berritu dizkigute, haiek baitira, neurri handi batean, gure herriaren paisaia urbanoaren hainbat alderdi denboran zehar modelatu dutenak. Horiek horrela, esku artean duzun hau historia liburua, arte liburua eta katalogo deskribatzailea da aldi berean, eta bertan, erlijio elementu ospetsuei ez ezik, hain ezagunak ez diren beste batzuei ere ematen zaie balioa, hala nola gizarte etxebizitza multzoei edo ur bideratzeei, besteak beste. Beraz, Lezoren ikuspegi interesgarri eta bizia ematen digu lan honek.

Autoreek bi zati handitan banatu dute ikerlana. Batetik, industriaurreko Lezori dagozkion deskribapen eta balorazioak; bertan erlijioaren inguruko ondarea nabarmentzen da gehienbat, baina ez dira alde batera utzi landa guneetako erai-kinak, batez ere laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik iraun duten gure baserriak.

Bestalde, Lezo industrialala dugu; portuak dakartzan arazo guztiekin, baina industriak arkitekturari eta paisaiari eman diona ahaztu gabe.

Ondarea gida paregabea da herria eta herriak historian zehar izan dituen aldaketak ezagutzeko, eta, errekuperatutako datuei esker, lezoarrek ere izango dute zer ikasi ugari. Haiexei zuzenduta dago batez ere, gainera.

Halaber, ausartuko ginateke esatera mezu argia irakurriko dutela lezoarrek liburu honen lerroen artean: ondarea erabilgarria da, gure kultura aberastu ez ezik, gure identitatearen nondik norakoa bilatzen laguntzen digu; gure herriaren garapen ekonomikoaren alde erabil dezakegu, eta apustu ausarta merezi du, hala zaintzeko nola balioa emateko. Ondarea ez dago hila, gu bezain bizirik dago, gutako parte bat da eta!

AURKIBIDEA

SARRERA:

1- LEZOKO ONDAREA	15
2.- LEZO TRADIZIONALA	21
2.1- ERLIJO ONDAREA	22
2.2- ONDARE MILITARRA: GOTORLEKUAK	31
2.3- BASERRI GUNEETAKO ETXEBIZITZA ONDAREA	33
2.4- HERRIGUNEKO ETXEBIZITZA ONDAREA	44
2.5- INDUSTRIAURREKO ONDAREA	50
3- LEZO INDUSTRIALA	59
3.1- INDUSTRIA LEZON: HASPENETATIK 1950ERAARTE	60
3.2- TRENBIDEA ETA KOMUNIKABIDEAK	70
3.3- PORTUA	76
3.4 - INDUSTRIALDEAK	85
3.5- HIRI GARAPEN GARAIKIDEA	101
4- ONDORIOAK	127
KONTSULTATUTAKO FONDOAK	131
BIBLIOGRAFIA	133

1- LEZOKO ONDAREA


Ondarea artxibo bizia da, eta bertan komunitate baten, herri baten nortasuna eta identitatea islatzen da. Hari esker, herri jakin batek, izan duen bila-kaera historikoa ez ezik, bere identitatea pixkanaka osatzen joan diren elementu material zein inmaterialekiko jarrera ere erakusten digu. Lezok, hortaz, berezko historia osatu du, bizi duen esparru historiko, geografiko eta administrazioak baldintzatuta, inondik ere. Eta prozesu horrek ondare propioa sortu du, non garai bakoitzeko ezaugarriek eta protagonistek hainbat aztarna utzi baitituzte. Zentzu horretan, beraz, ondarea paregabea da, bakarra, garai bakoitzeko gizarte taldeen esku-hartze, hautatze eta balioztatzeek harekiko begirunean eta zaintzeko moduan izan baitute eragina.

Guillermo Lazonen oinetxearen aztarnek, Markesame parkean, Lezo sortu zen garaira eramaten gaituzte: XIII. mendera; erlijio sineskeren indarra darie Lezoko San Joan Bataiatzailearen Eliza ikaragarriari eta Gurutze Santuaren Basilikari; baserriak, era berean, jada desagertu diren jarduera ekonomiko eta egituratze sozial eta administrazio baten lekuko dira; Jaizkibelgo dorreak Lezok duen egoera estrategikoa gogorarazten digute, eta, batez ere, XIX. mendeko karlistaldietan nabarmentzen dira; azkenik, 60ko hamarkadaren bukaeran eraikitako pabiloi eta industrialdeek esparru ekonomiko berri bat eta lurraldearen antolakuntza desberdina ekartzen digute gogora.

Izan ere, denok ezagutzen dugun Lezo hori, gaur egungo paisaia, ondarea eta guzti, bere testuinguru historiko eta bilakaeraren isla da. Dena den, bilakaera horren eraginez, ez daude islatuta garai eta jarduera guztiak. Hortaz, askotan, dokumentuak dira haien berme bakarrak; hala gertatzen da, esate baterako, portuaren garai bateko industria jarduera eta okupazioarekin.

Aro historikoko Lezoren aipamenik zaharrena 1203 urtean Alfonso VIII.a erregeak Hondarribiari emandako pribilegioa da, zeinean Guillermo Lazoni eta haren kideei ingurune hau eskaini baitzien hondarribiarren bizilagunak izan zitezten. Garai horretatik aurrera Hondarribiaren menpekota izan zen, baina Unibertsitatea zen aldetik, haren muga propioak zituen, behar bezala zedarrituta eta hiribildutik bereizita, eta administrazio ekonomiko beregaina, errejidore kabo baten edo bake kapitain baten agindupean eta beste bi errejidore eta gordailuzain baten laguntzarekin. Hala eta guztiz ere, Lezoko Unibertsitatea Hondarribiaren jurisdikziopean egon zen 1203tik XIX. mendearen lehen herenera arte, 1812ko konstituzioaren ondoriozko udala ezartzearekin batera, udalerrri independente bihurtu baitzen. Dena den, horren aurretik, bi aldiz saiatua zen Hondarribitik bereizten, arrakastarik gabe, ordea. 1625ean, Martinez Isastik ondorengo terminoetan deskribatu zuen Lezo herria: “hállanse en el territorio de Lezo quince casas solariegas antiguas y una torre de buen edificio, que llaman palacio, a donde suelen posar los obispos que van a visitar”¹

¹ MARTINEZ DE ISASTI, L.: *Compendio historial de Guipúzcoa*, in *Cosas Memorables o Historia general de Guipúzcoa*. Donostia. 5. liburukia. Bilbo. La Gran Enciclopedia Vasca, 1972. 214-215 eta 482-490 or.



Donibane, Lezo eta Hondarribiaren arteko mugarriak.
Gipuzkoako Protokolo Historikoen Artxiboa (GPHA)(Oñati): 3/1725.

Beranduago, Víctor Hugok, 1843an Pirinioetan barrena egindako bidaiaren kronikan, Lezoko Unibertsitatearen deskripzio adierazgarrietako bat topatzen dugu, kasu honetan Koldo Izagirrereren *Idi orgaren karranka* liburutik hartutako itzulpenean: “Hamabosgarren mendeko anitz etxe zegoen, ate handi bikoak; lehenengo atearen arkuko giltzarrian landua zegoen, erarik delikatu eta dotoreenean, etxearen zenbakia zeinu erlijiosoren batekin nahasia, gurutzeren bat, usoren bat, lili-hostoren bat; bigarrenaren arkuko giltzarrian biztanlearen lanbideko ezaugarriak zeuden zizelkatuak, gurpil bat gurdigile batenean, aizkora bat egurketariarenean. Herri honetan denak zeukan handitasun ilun eta berezia”².

Azkenik, Pascual Madozek XIX. mendearen erdialdean egindako deskribapena dakarkigu: “tiene 60 casas de piedra sillar y otros tantos caseríos dispersos, siendo notables entre las primeras por su antigüedad las de Berástegui y Lezoandia; hay una buena plaza en la que está la casa del ayuntamiento, calles empedradas y enlosadas, dos posadas, escuela de ambos sexos concurrida por 38 alumnos”. Horrez gain, Madozek dio parrokia eliza oso zaharra dela, zabala eta bikaina, harlanduz egina dagoela eta erretaula nagusia eskultura onekoa dela, eta aurrerago: “en el centro del pueblo está la célebre basílica del Santo Cristo, imagen muy venerada a la que acuden en romería”. Beste zenbait eraikin interesgarri buruz adierazi zuen bi errota zeudela, baina gainbeheran zetozela, urik ez zegoen eta³. Deskribapen hauek zerikusi gutxi dute gaur egungo Lezorekin, baina horietako zenbait elementu eta eraikinek bizirik diraute, irizpide ideologiko eta ekonomikoengatik, eta batzuetan are interes faltagatik eta halabeharrak hala nahi izan duelako.

Lezoko arkitekturak eta ondareak oro har hainbat garairen aztarnak erakusten dizkigute. Izan ere, garai horietako bakoitza aurrekoan oinarritzen da. Baina, batzuetan, aldaketak oso azkar etortzen dira, eta soilik geratzen zaizkigu dokumentuen bidez eta ahoz aho igorritako testigantzak. Horrenbestez, udalerrri osoko paisaia Lezoren nortasuna berresten duten hainbat elementu, espazio, kolore eta dimentsioak osatzen dute, eta, ondorioz, erantzukizun berezia izan behar dugu guztiok ondare horrekiko.

Lezo, Pasaiako badiaren inguruko gainerako herriak bezalaxe, bertako jardueren anparoan hazi da, eta horrek paisaia eta tipologia arkitektoniko bereziak eman dizkio, garaian garaiko erabilera eta eskakizun zehatzetara egokituta. Hala, portua, ingurune honetako bilakaera historikorako oinarritzkoa izan dena, Gipuzkoako industria gune garrantzitsuetako bat bihurtu da, eta baldintzatu ditu (eta oraindik baldintzatu ditu) haren ondoko udalerrien garapen ekonomikoa eta espazioaren antolakuntza. Beraz, jarduera ekonomikoek tokiaren nortasuna markatu zuten, eta XX. mendetik aurrera, industria gailendu zen besteen gainean, etxebizitzak eta ekipamenduak bigarren plano batera bultzatuta.

² HUGO, V.: *Los Pirineos*. Palma de Mallorca: Terra Incógnita, 2000.

³ MADOZ, P.: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*. Madril, 1845-1850. 122 or.



Industrializazioa nagusitu baino lehen, eliza zen nagusi Lezoko paisaian.
J. LAMBLA: Lezo (1845. urtearen inguruan). *Lezoko Udala*.

2- LEZO TRADIZIONALALA

Lezoko Unibertsitatearen ondarea aztertuta, ikusten dugu inflexio argi eta erabakigarria izan zela industrializazioa abian jarri zen unean. Hain zuzen, trenbidearen etorrerari esker, Lezo azkarrago sartu zen Gipuzkoa zeharo eraldatuko zuen industria garapenaren prozesuan. Orduantxe bihurtuko zen Lezo leku erakargarri lehenengo fabrikak kokatzeko, Madril-Irun linearen, gelto-kiaren eta kaiaren ondoan baitzegoen. Gertakari hau mugarria izan zen, beraz. Eraikitzeo usadioak eta ohiturak eta baliabideen erabilpenak nabarmen aldatu ziren garai batetik bestera. Horregatik, bi alor desberdin hartuko ditugu kontuan ondarearen gaiari heltzeko: Lezo tradizionalaren ondarea eta industrialarena.

Jorratutako kronologia zabalak, bestalde, garai historiko eta tipologia desberdina aintzat hartuz garamatza: erlijio ondarea eta militarra, herriguneko zein baserri guneetako etxebizitzaren ondarea –hari lotutako karobi, ferratokiak eta gainerrako instalazioak barne–, errota eta abar.

2.1 ERLIJIO ONDAREA

Lezo Baionako apezpikutegiaren menpe egon zen XVI. mendera arte, eta 1566 eta 1962 urteen artean, Iruñekoaren baitan. Gaur egun, berriz, Donostiakoaren menpe dago. Barruti honetan, kontuan hartzekoak diren erlijio ondarearen zenbait elementu aipagarri ditugu, hala nola San Joan Bataiatzailearen parrokia eliza eta Gurutze Santuaren basilika. Dokumentu eta bibliografia iturriek, hala ere, iraganean lezoarren erlijiotasunaren erakusgarri izandako eta gaur desagertutako beste hainbat elementu garrantzitsuren berri ematen dute. Gaintzurizketa eta Amadigurutzeko gurutzeek gainera, bi basiliza izan ziren gutxienez: Santiagotxokoa eta Santa Maria Magdalenarena.

San Joan Bataiatzailearen parrokia eliza

1399. urtean lehen aldiz aipatutako eliza hau inguruko zaharrenetakoa da, antza⁴. Lezoko parrokia eliza Pasaiaiko parrokia ere izan zen XVI. mendera arte. Bestalde, badakigu mende horretako lehenengo erdian tenplua berritzeko obra garrantzitsuak hasi zituztela, eta 1557an elizaren bikario Lezoko Juan Vicentek eta Lezoko elizaren maiordomo Juan Darietak, alde batetik, eta Aiako Juan Sanzoro maisu harginak, bestetik, elkartasun ituna izenpetu zutela. Haren arabera, maisuak konpromisoa hartu zuen sei urteko epean hegoaldeko horma eta kaperak eraikitzeo, jada bukatuta zeuden iparraldekoen modu berean eraiki ere. Erdialdeko kaperatxo –bertan ipiniko zuten alboko atea– Usurbilgo elizako atearen eredura⁵ egin behar zuten. 1722 eta 1724 urteen artean, Juan Bautista Intxaurrendiaga eta Lazaro Lainzera Vega maisu harginak elizaren gaur egungo bobeda edo ganga eraiki zuten.

⁴ MURUGARREN, L.: "Relación de puntos religiosos...." in *BSVAP*, XLVIII 3-4, 76. or.

⁵ ARRAZOLA, M A.: *Renacimiento en Guipúzcoa Arquitectura*. I. Liburukia, 1988, 167-168 or.



San Joan Bataiatzailearen parrokia elizaren ikuspegi orokorra.

Eraikinari erreparatuta, eraikuntza fase bat baino gehiago bereiz daiteke, eta are hasitako lanen birplanteamenduak ere: mendebaldeko fatxadan, esaterako, arku zorrotz baten abioa ikusten dugu portadaren gainean.

Harlanduzko fabrika duen nabe bakarreko eliza da, eta XVI. mendeko berezko gurutze ganga izan arren, beranduago eraiki zuten. Tertzeteak eta nerbio konkortuak hainbat motatakoak dira, giltzarri maldatsuak ditu, eta estalki desberdineko atalak edo tramoak agertzen dira han eta hemen. Kanpoko kontrahorma handiak bat datoz barnealdean estalkiaren nerbioak eusten dituzten baketoi anitzeko pilastra prismatikoekin.



San Joan Bataiatzailearen parrokia eliza. Ganga.

Elizak lau atal ditu, eta presbiteriora iristeko harmailadi bat igo behar da.

Kanpoan estilo gotikoko elementu ugari bereiz daitezke, hala nola tenpluaren erlaitzeko gargola ugariak, zeinek hainbat animalia irudikatzen baitituzte; ojiba leihoetako moldura uhinduek palmondo orri tankerako apaingarri flamigeroak dituzte, eta absideko leihoetako batek, trazeria gotikoa eta mainela.

Bolekin apaindutako moldura batek inguratzen du eraikin guztia erlaitz antzeko bat osatuz, mendebaldeko fatxadan izan ezik, alde horretan argi eta garbi ikusten baita eraikinaren obrak beste norabide bat hartu zuela.

Elizak, Pasaiaiko badia osoa ikusmenean duen muino koskor batean, oso irudi nabarmena du bertako paisaian, eta, hura eraiki zenetik inguruko hirigintza izugarri aldatu den arren, ez du oraindik galdu garai bateko nortasun sendoa. Gaur egun ere, kontrahorma gotorrek eta oinaldeko dorreak eraikinaren indarra nabarmentzen dute.



San Joan Bataiatzailearen barruko ikuspegi orokorra.

Barrualdeak elementu interesgarri ugari biltzen ditu: esaterako, kareharriz egindako ponte xumea. Pittin bat goratutako esferaerdi formako bataiarri honek oin zilindro txiki bat du euskarri, eta haren edergarri bakarrak goiko ertzean daude: zerra hortz tankerako banda pare bat, hain zuzen.

Eskultura elementuei dagokionez, ondorengo hauek dira nabarmenenak:

- Ehorzketa Santuaren eskultura multzoa

Harrizko lan honen lehen planoan Kristo datza, eta haren ondoan gizon santuak daude, pasioaren ikur diren koroa, kurrikak eta mailua eskutan dutela. Bigarren mailan, Kristoren ama, San Joan eta Maria Magdalenaren ondoan, eta bi aingeru. Konposizio xalo honetan, Amabirjinaren irudia eta Kristoren gorputz etzana diagonal leunean agertzen dira, bertikalean antolatzen diren gainerako irudien kontrapuntu gisa. M. Asuncion Arrazolaren iritziz, baliteke multzo hori XVI. mendekoa⁶ bide den antzinako erretaula batekoa izatea.



San Joan Bataiatzailearen parroikia eliza. Gargolak.

- Sagrario exentua

Sagrario hau podiumaren gainean dago, eta bi gorputzeko tenplete modukoa da. Bere arkitekturak Errenazimentuko elementuak dakarzkigu gogora, hala nola erromes maskorrekin hornitutako erdi puntuko arku formako nitxoak eta ordena klasikoaren zantzuak. Eskultura egitasmoa, Errenazimentuko kutsu nabarmeneko hau ere, Kristoren heriotzaren eta berpizkundearen gaietan oinarritzen da. Goiko ertzean⁷, kumeak bere odolarekin elikatze bularra urratzen duen pelikanoak –Kristok gurutzean egindako sakrifizioaren ikurrak– borobiltzen du obra. Sagrario tenplete hau estilo platereskoaren⁸ baitan koka daiteke.

⁶ ARRAZOLA, M A.: *Renacimiento en Guipúzcoa. Escultura*. II. Liburukia, 1988, 308. or.

⁷ HALL, J.: *Diccionario de temas y símbolos artísticos*, 1996.

⁸ LECUONA, M.: *El arte en Guipúzcoa*, 320. or.

- Erretaula Nagusia

Ambrosio Bengoetxeak diseinatu bazuen ere, XVII. mendeko lehenengo urteetan Diego Maiora eskultoreak egin eta Miguel Garoak muntatu zuen. Arrazolaren esanetan, azkenaren ordainketa gutunak 1628tik⁹ aurrerakoak dira, eta obra 1633an¹⁰ amaitu zen.

Bere kontserbazio egoera kaskarra zela-eta, 1993an piezaz pieza desmuntatu eta zaharberritu zutenean, adreiluzko betegarriaren gainean XVI. mendean datatutako pinturak azaldu ziren.

Lehenengo Barrokoaren garaiko erretaula da, eta badu oraindik errenazimenduko kutsu erromanista; horixe izan zen, hain zuzen, Bengoetxearen estiloa eta Maioraren prestakuntzaren oinarria. Elizaren absideari ederki egokitutako fatxada erretaula da, bost kale, hiru gorputz eta atikoa dituena, gaur egun kalbarioa falta duen arren. Kaxa zuzenak ditu, oro har, baina Sagrariokoak, bigarren gorputzeko bi muturrekoek eta atikoaren burukoek erdi puntuko arkuak dituzte.

Arkitektura elementuak urriak dira: kaxen inguruko kolomak eta lehenengo gorputzeko eta erdiko kaleko taulamenduak errematatzen dituzten frontoiak baino ez. Lehen gorputzeko frontoiak mistilineoak dira, eta elizaren patroia hartzen duen kaxarena, aldiz, zuzena; erremateari dagokionez, Jasokundea koroatzen duen frontoi erdibitu baten gainean dago. Erretaulak mukulu borobileko eskulturak eta erliebezkoak txandakatzen ditu. Gai nagusia San Joan Bataiatzailearen bizitza izan arren, aipatzekoak dira, besteak beste, Salbatzailearen eta Jasokundearen irudiak, eta, santuen artean, San Pedro, San Paulo, San Esteban, San Lorentzo, Santa Teresa eta Loiolako San Inazio.

Agerikoak dira Erromanismoaren zantzuak arkitektura zein eskulturaren ikuspegietatik, Barrokoaren garapenaren hasiera ozta-ozta sumatzeko modukoa izan arren.

Kapera txikietako erretaulen artean nabarmentzen da polikromatutako zurean landutako Karmengo Amabirjinari eskainitakoa. Bi gorputz eta hiru kaletan egituratzen da, eta, horien gainean, alboetan kiribilak dituen atikoa. Erdiko kalean Karmengo Amaren imajina, San Joan Ebanjelariaren tailua eta kopa bat eskutan duen emakume santu bat azaltzen dira. Alboko kaleetan Karmengo Amabirjinari buruzko lau oihal ikus daitezke, eta atikoaren kiribiletan, 1676. urteko datarekin, dohaintza emaileen irudiak: Maria Martinez Arrieta eta Juan Nuñez Ierobi Kapitaina.

⁹ ARRAZOLA, M.A.: *Renacimiento en Guipúzcoa. Escultura*. II. Liburukia 1988, 184. or.

¹⁰ *Guía de Lezo: Naturaleza y huella humana*. Lezo : Udala, [1995]. 55. or.

- Ama Birjina eta haurren taula

Garai batean epistolako alboko aldarean eta gurutzaduran zegoen; gaur, berriz, Donostiako Elizbarrutiko Museoa. Taulan Ama Birjina agertzen da, umea besotan duela, eta umea, arrosarioa eta sagarra eskutan; horrez gain, bi aingeru azaltzen dira Ama Birjinaren gainean. Kontraste handia dago haragi kolore argiaren eta tolesdura handi eta gogorreko jantzietako tonu ilunaren artean. Atzealdetik hiru langetekin lotutako hiru taulen gaineko olioia dugu. XVI. mendeko flandestar eskolan koka daiteke.

Beste pintura interesgarri bat J. Ignacio Salaberriaren erretratua litzateke. Forma obalatuko oihal gaineko olioia da, eta bertako pertsonaia itsas gizon janzkerarekin azaltzen da. Erretratuaren atzean, leihoaren beste aldean, portu bat ikusten da, protagonistaren lanbideari zeharkako aipamena eginaz. XVII-XVIII. mendeetan datatuta, pintura barrokoaren baitako lana litzateke.

Deigarria da, halaber, Karmengo Amaren kapera ixten duen burdin forjatuzko hesia. Bi gorputz ditu, bandek bereizita, eta goiko gailurreria. Erastunek eta udare formako barrek osatzen dute gorputza, eta zokalo batek eusten du dena. Erdian bi orriko atea dauka, eta bere basamentuak "s" formako kiribildurak ditu. Goiko gailurreriako barroreak karratuak dira, eta forma kiribildunak eratzen dituzte. Erdian armarrria du, eta haren gainean, pinakuluak. Bandan honako hitzak irakur daitezke: "Esta capilla y retablo es de María Martínez de Arrieta y del Capitán Juan Nuñez de Yerobi y sus herederos año 1676". Domingo Zialzeta¹¹ burdin hesigile euskaldunak egin zuen.

Lezoko Gurutze Santuaren eliza

Badirudi, Gurutze Santuaren basilika, hasieran, ermita txiki bat zela, eta zurezko hesia eta ataripea izango zituela. Lope Martinez Isastik zera dio XVI. mendearen amaieran idatzi zuen Gipuzkoako historiaren laburpenean: "dieron principio a esta obra el autor de este compendio y su hermano: y el pueblo le ha continuado con mucho fervor; y ha costado cinco mil trescientos ducados". 1625ean oraindik dorrea eraikitzen ari ziren, baina basilika, sakristia, korua eta erromesentzako ostatu lanak egiten zituen erizaindegia amaituta zeuden jada. Murugarrenek, bere aldetik, santutegiaren lehenengo dokumentuzko aipamena 1587koa dela dio. Agirre Sorondo eta Lizarralderen arabera, 1595ean eliza zabaltzeko lanak egiten hasi ziren. Obrak bukatu eta urte batzuetara, 1647 eta 1650 urteen artean¹², Juan Zialzetak sarrerako burdin hesia egin zuen.

¹¹ ARRAZOLA, M A.: *Renacimiento en Guipúzcoa. Escultura*. II. Liburukia, 1988, 358. or.

¹² Lezoko Udal Agiritegia (LUA): E-4-I-2. Ziazetak obra hirutan jarri zuen: 1647ko urriaren 4an gorputz nagusia; 1649ko urtarrilaren 2an taulamendua, eta 1650ko abuztuaren 31n errematea.

Nolanahi ere, 1661. urterako eliza txikia gelditu zen jada, Gurutze Santua gurtzera zetozen sinestunen kopuru gero eta handiagoaren ondorioz. Tenplua handitzeko asmoz, Batzar Nagusiek dirua biltzeko ekimena sustatu zuten. Nabea men-debalderantz zabaltzeko lanak Domingo Ruza Salazar maisu harginak egin zituen 1675 eta 1682. urteen artean. Berritutako basilikaren bedeinkazioa gertatu aurretik, Pedro Latijeraren erretaula bat jarri eta burdin hesi nagusia lehenengo arkutik bigarren arkura eraman zuten, garai batean aldea hartzen zuenera, hain zuzen.



Gurutze Santuaren basilika. Ikuspegi orokorra.

Basilika honen oinplanoa laukizuzena da, harearri landuzkoa da, eta lau isurki-ko estalkia du. Kupulaz estalitako nabe bakarra dauka, hiru zatitan banatuta. Garaiena presbiterioko petxinek eutsitako linternadun kupula da. Barruan hainbat elementu apaingarri gordetzen ditu, hala nola zati bakoitza mugatzen dituzten pilastren gaineko taulamenduak, edo Kristoren pasioaren eszenak irudikatzen dituzten presbiterioko petxinetako erliebeak –1681eko¹³ inskripzioarekin-, edota erdiko zatian agertzen diren pasioaren ezaugarriak. Aurrealdeko sarreran atari txikia dago, doriar kolomek eutsita. Horrez gain, elizak kanpandorre barroko txiki bat du.

¹³ AGUIRRE-SORONDO, A., LIZARRALDE ALBERDIN, K.: *Ermitas de Gipuzkoa*. J.M. Barandiaran, Fundazioa 2000. 270-271 or.

Gaur egungo eraikinak, beraz, beste eraikin txikiago batean du jatorria, baina bertako imajinak eragindako debozio biziaren ondorioz, behin baino gehiagotan zabaldu behar izan da.

Oparo apaindutako barrualdea dauka, baina Gurutze Santuaren eskultura da irudi nagusia, inondik ere.



Lezoko Gurutze Santuaren imajina.

Eskultura hau santutegiko imajinarik interesgarriena da, dudarik gabe, eta Gipuzkoa osora zabaldu da harengatiko debozioa. Zur polikromatuzko tailua da. Kristoren irudikapena da, hiru iltzerekin gurutziltzatua; gurutzea ia-ia arbastatu gabeko enborrekin egina dago; Kristo burusoila eta bizargabea da, aurpegiara lasaikoa, masailboko hezurak nabarmenduta dauzka, eta burua pixka bat makurtuta du. Beso zailduak gurutzeko besoen paraleloan zabaltzen dira. Gorputz enbor zuzena du, anatomia baldarrekoa, saihets hezurak agerian eta gerria nabarmenduta. Zangoak tenkatuta ditu, eta gerriaren inguruan zapi laburra dauka, erdian lotuta eta haizemaile eta sigi-saga gisako izur finekin. Duela gutxi arte irudia gona motz batekin jantzita zegoen eta ileordea zeraman. Eskulturaren jatorria ezezaguna¹⁴ da, baina hainbat ezaugarritan gotikoaren kutsua eta anatomiaren eta oihalen trataeran ukitu aurreratuak sumatzen direnez, XV. mendean¹⁵ kokatuko litzateke seguruenik. Gurutze Santuaren erretaula zur polikromatuzkoa da, eta bertako espaziora egokituta dago. Hiru kaletan antolatzen da, harrizko idulki apaindu baten gainean; erdiko kaleak fuste ildaskatu eta ispiludun koloma pareak ditu albo banatan. Haren gainean, taulamendu hautsiaren baitan, Kristoren imajina duen nitxoa dago, eta alboetako horma hobietan, aingeruenak. Atikoan zero arraildura ikusten dugu. Aldameneko erre- taulak bezalaxe, obra barrokoa da honako hau ere, eta Santiago Jauregi dugu lan guztiaren egilea.

Epistolaren ondoan, San Joan Ebanjelariaren erretaula dago, eta ebanjelioaren aldean Andre Maria Doloretakoarena, biak ala biak Santiago Jauregik eginak eta rococo estilokoak.

Interesgarria da, halaber, tenpluko lehenengo zatia ixten duen burdin hesia. Balaustredun gorputz luze bat dauka, eta bi orriko ate bat bertan txertatuta. Balaustreak zilindrikoak dira, lodiera desberdineko ebakidurekin, eta helduleku anitzeko txarro, eratzun eta udare eta erraboil formekin. Horrez gain, balaustredun ateburuaren gainean balaustre erradialak dituen erdi puntuko arkua dago. Agirre Sorondo eta Lizarralderen ustez, burdin hesia Juan Zialzeta Urkidik forjatu zuen 1643. urtean¹⁶.

Aipatzekoa da Baionako gotzain San Leon Gurutze Santuaren aurrean irudikatzen duen beiratea ere. Sakristian dago, eta J.P. Maumejean eta E. Salaberriaren lana da, 1904koa.

¹⁴ AGUIRRE-SORONDO, A., LIZARRALDE ALBERDIN, K. *Ermitas de Gipuzkoa*. J.M. Barandiaran Fundazioa, 2000. 270 or. "(...) Hainbat bertsio daude Gurutze Santuaren tailuaren jatorriaren inguruan. Horieta batek dioenez, Landarreta baserriko neska batek kostaldera ailegatutako kutxa batean aurkitu zuen. Bigarren batek dio Iruñeko gotzainak X. mendean ekarri zuela, baina bertsio hori ez dator bat imajinaren datazioarekin -XIII. eta XIV. mendearen artekoa jotzen dute adituek- (...)".

¹⁵ PUENTE SANCHEZ, M.T. "Escultura exenta de Vírgenes y Cristos en Pasajes, Lezo, Rentería y Oiartzun". *Cuadernos de sección: Artes Plásticas y Monumentales*, 6. zk.

¹⁶ AGUIRRE-SORONDO, A., LIZARRALDE ALBERDIN, K.: *Ermitas de Gipuzkoa*. J.M. Barandiaran, Fundazioa: 2000. 270-272 or.

Ermitak

Bibliografiak hainbat ermita eta gurutze aipatzen ditu Lezoko udalerrian. Esate baterako, Gaintxurizketako gurutzea, jada desagertuta, eta Jaizkibelgoa, Amadingurutze izenekoa. Azkeneko harrizko gurutze historiko hori XVI. mendean aipatzen zen jada; hala ere, 36ko gerran suntsitu zenez, gaur egungo hormigoizko gurutzearekin ordezkatu zuten, baina jatorrizko oinarria aldatu gabe.

Ermitei dagokionez, Santiagotxoko basiliza azpimarratuko dugu. XIX. mendean hasiera arte iraun zuen zutik, eta Apaizartza baserriaren inguruetan zegoen.

Andre Maria Magdalenaren ermita bat ere izan omen zen. Bordalabordan eraiki zuten, Pasaia eta Lezoren arteko mugan, Errege Ontziolen¹⁷ instalazioen barruan.

Lope Isastik aipatu zuen eskaleentzako ospitale bat zegoela Errementari zeritzon parajeen -Pasai Donibanerekin batera¹⁸ kudeatzen zuen Lezok-, baina ez da harekin lotutako aztarna bakar bat ere ezagutzen.

Gaur egun, kostaldeko Done Jakue bideak, Hondarribitik etorruta, Lezo udalerria zeharkatzen du Pasai Donibane eta Donostiarantz abiatu baino lehen. XXI. mendeko kultur Ibilbide horrek paisaiaren eta kultura arloaren inguruko ikuspegi eta ñabardura berriak hartzen ditu kontuan, hertsiki historikoak direnak gaindituta.

2.2 ONDARE MILITARRA: GOTORLEKUAK

Sei dorre eraiki ziren Jaizkibelgo gailurraren lerroan, eta bosten aztarnak gordetzen dira oraindik, haietako hiru Lezoko udalerrian. Handik, Irun-Pasaia korridorearen eremu guztia begizta daiteke hegoaldera, eta iparraldera, berriz, Jaizkibelgo hegalak, itsasoraino, eta Gipuzkoako itsasbazterren parte bat.

Dorre gehienen oinplanoa hexagono tankerakoa da, eta alde bakoitzak 3,3 m eta 3,5 m artean ditu. Salbuespena Guadalupetik hurbilen dagoen dorre karratua litzateke. Dorre guztiak bi solairukoak eta terrazadunak ziren. Gaur egun inguruko hareharrizko hormak gordetzen dira soilik. Barrualdea hutsik dago. Beheko solairuan aireztapenerako zein behaketarako zulo laukizuzenak zabaltzen ziren. Kanpoan zapata bat ikusten dugu, dorrea baino pitin bat zabalagoa eta garaiera

¹⁷ AGUIRRE-SORONDO, A., LIZARRALDE ALBERDIN, K.: *Ermitas de Gipuzkoa*. J.M. Barandiaran, Fundazioa: 2000. 272. or.

¹⁸ L. De Isasti, op. cit. 485. or.



Bigarren Karlistaldiaren garaiko dorrea.

aldakorrekoa, tokian tokiko lurak zer gorabeherak zituen. Sarbidea ez zegoen beheko solairuan: sarrera eragotzi nahian, lehenengo solairutik egiten ziren sartu-irtenak, barrura erretiratu zitekeen eskailera baliatuta. Lehenengo solairu horretako alde bakoitzak bizpahiru saietera edo gezi leiho zituen. Terraza fatxada baino zertxobait irtenagoa da. Terraza eusteko, hiru modiloi daude poligonoaren alde bakoitzean, eta, horrez gain, beste bat erpin bakoitzean. Modiloien artean zulo gutxi-asko biribil bana zegoen, euri urak bideratzeko.

Azkeneko karlistaldiaren garaiko (1872-1876) liberalen gotorlekuak dira, eta Santa Isabel, San Enrike eta Lord Johnen Almirantearen hurbileko gotorlekuekin lotu izan dira. Izan ere, estrategikoki kokatuta daude, San Enrike eta Lord Johnen artean. Gotorleku horiek, lehenengo karlistaldiaren garaikoak ez bezala, txukun samar iraun dute, behin gerra amaituta, interes militarren arabera sailkatu baitzituzten. Gaur egun bost dorreek multzo monumental interesgarria osatzen dute, Jaizkibel mendiaren gailurretik zelatan.


Gaintxurizketa eta Jaizkibel lehen mailako gune estrategikoak dira inondik ere, eta helburu horrekin erabili izan dituzte historian zehar.

Horren lekuko dira bigarren karlistaldian eraikitako dorre hauek, eta halaxe gertatu da ere XX. mendean. Gaintxurizketa aldean, hain zuzen, bunker edo behatoki-aterpe antzeko hormigoi eta burdinazko eraikinak izan ziren eta badira oraindik. Horietako asko Errepide Nazional 1eko zabaltze lanetan desagertu ziren, baina bada oraindik aleren bat edo beste, hala nola Larramunetik zelatatzen dutenak. Eraikin hauek, dirudenez, Franco diktadoreak 1938 eta 1935 bitartean¹⁹ Pirinioetatik barrena -Rosasetik Jaizkibeleraino- eraikitako defentsarako lerro bati dagozkio. Honenbestez, 1946an, Mendebaldeko Pirinioetako Defentsa eta Armamentu Batzordeak Gaintxurizketako Erresistentzia Gunea antolatu zuen; 62 azpi-elementu zituen guztira: besteak beste, metrailadoreak, morteroak, gerra gurdien kontrako kanoiak, oinezkoen kanoiak, airekoen kontrako metrailadoreak, aterpeak, aginte postuak, eta behatokiak. 1955ean eraikita zeuden jada gune hori osatzen zuten instalazio gehienak. Gaur egun haietako gutxi batzuk baino ez dira geratzen.


2.3 BASERRI GUNEETAKO ETXEBIZITZA ONDAREA

Landaren eremua, gure lurraldean, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueraren inguruan antolatu izan ohi da. Jarduera horren funtsezko gunea baserria izan da tradizionalki. Espazio hau, halaber, lurzoru erreserba izan da, eta, hiri eta industria hedapen aukera berrien aurrean, bertara zuzendu dira begirada guztiak. Presio hau areagotu egin da aro garaikidean, industrializazioaren ondorioz landa eremua asko bete eta birmoldatu denean.

¹⁹ PILDAIN, J.: "Variedad de bunkers en la Línea del Pirineo" *Aranzadiana* 2006. 62-63 or.



1869. urtean eginiko zedarritzea. Errenteriako Udal Artxiboa (EUA): C 5 III 1 2.



XIX. mendetik aurrera eta 50eko eta 60ko hamarkadetara arte –industrialdeen sorreraren garaia izango zen Lezon eta alboko udalerrietan- ezarritako lantegiak baserrietako lursailetan edo haiek eraitsi ondoren utzitako tokian eraiki ziren. Asturiaseko Real Compañía Asturiana de Minas delakoak Alzate²⁰ baserria bereganatu zuen 1897. urtean. 1902. urtean, berriz, Erreterian kokatutako Compañía Española de Piedra, Vidrio y Construcción Garchey enpresak Kostaburu baserria eta haren jabegoak²¹ eskuratu zituen. 1917an Papelera Española delakoak Jorgenea zeritzon baserria eta hari zegozkion lursailak²² erosi zituen. Hurbilagoko garaietan, PYSBEko etxeak Arretxenea baserriko lurretan eraiki zituzten. Kontua da, industrializazioak baserri eremuan aurrera egin ahala, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak apurka-apurka desagertzen hasten direla. Hazkunde ereduak ez zuen beste inolako aukerarik eskaintzen, eta zenbait kasutan, gainera, erabilerak baztertzailak ziren eta oraindik dira gaur egun.



Esteban Orbeago S.A. enpresako zinbriak (1964. Paisajes Españoles). *Lezoko Udala*.

²⁰ LUA: D-7-1-1

²¹ LUA: C-5-II-1-6.

²² LUA:C-7-III-2

Baserria, bada, gure herriaren gizarte tradizionalen bizitegi eta gizarte funtzioa betetzeaz gain, lehen mailako nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako funtzio ekonomikoaren euskarria izan da. Hala ere, jarduera ekonomiko tradizional horrek gero eta eragin txikiagoa dauka gizarte garaikidean. Baserriak poliki-poliki desagertzen hasi, eta XIX. eta XX. mendeetako industria garapenari lekua utzi diote. Beste zenbaitetan zutik diraude, bizitegi funtzio soilari eutsiz baina. Lezoko historian prozesu hau oso argi antzematen da; izan ere, baserri asko desagertu eta birmoldatuz joan dira, beste zenbait behar berrietara egokitzeko.

Hona XVII. mendearen erdialdean Lezon zeuden baserriak: Abendaño, Altamira, Alzate, Apaiziarzaberri, Apaiziarzazar, Babilonia, Batxillerborsa, Barunga, Bordaberri, Bordatxo, Kabite, Txarrenea, Kartiku, Kostaburu, Darieta Eguzkiza, Eiro, Gabiria, Gainza, Granada, Inurrusu, Iparragirre, Isua, Juanmartindegi, Juantonea, Lopenea, Lorbide, Martixkonea, Matejonea, Mendebal, Olazar, Pelear, Plazeta, Sarastiberri, Sarastizar, Saroizar, Torrejil, Urdalamarta, Urruleku eta Bikuda²³.

1824tik 1895era arteko kontribuzioetako zerrendak handiagoak ziren: 75 baserri aipatu ziren. Linazasorok 1974. urtean zerrendatutako 81 baserrietatik, hiru jenderik gabe eta erortzeko zorian zeuden, eta beste 10 eraldatuta²⁴.

Muruak, 2000. urtean egindako lanean, 60 baserri²⁵ kontatzen ditu. Ondarearen ikuspegitik, guztiz anitza da Lezoko baserrien egoera. Haietako askok birmoldatze lanak eta aldaketak jasan dituzten arren, tipologia aberatsa sumatzen dugu.

Analisi zehatz bat eginda, zenbait tipologia desberdin bereizten ditugu:

Lehen-lehenik, aipa dezagun tipologia horietako bat: oinplano laukizuzenekoak dira, etxabea, lehenengo solairua eta teilatupea dute, beheko oinean harlangaitzeko itxitura, eta gainontzean adreiluz betetako egurrezko bilbadura eta eskantzu sendoak; etxabeko bao inguruak harlanduzkoak dituzte. Minkuraren kasua da hau: azkeneko birmoldaketa egin arte, Lezoko baserriak adierazgarrieneraiko bat zen. Eraikinak L formako oinplanoa, etxabea eta lehenengo solairua dauzka. Itxitura harlangaitzekoa da, beheko solairuan inguruetako arrosa koloreko harri ospetsua erabili zuten, eta goikoan zurezko eta adreiluzko egitura. Teilatu hegala irtenak beso sendoek eusten dituzte, eta haien azpian, balakoa eta usategiko baoak. Etxabeko bao inguruak eta eskantzuak harlanduzkoak dira.

²³ *Guía de Lezo: naturaleza y huella humana*. Lezo : Udala, [1995]. 51. or.

²⁴ LINAZASORO, I.: *Caseros de Gipuzkoa*. Donostia, 1974. 243. or.

²⁵ MURUA, A.: *Lezoko baserriak*. Lezoko Unibertsitateko Udala. 2000. 64-66 or.



Minkura baserria birmoldaketaren ondoren.

Baserri hau -txikia, herri inguruko nekazaritza etxeak izan ohi diren bezalakoak baserri barrokoaren eredutzat hartu ohi da. Santanaren iritziz, 1770 urtearen inguruan²⁶ eraiki zuten; Garmendia eta Zurutuzak, aldiz, 1638 urterako jada eraikituta zegoela diote. Tipologia bereko baserri hauen artean Gaintza ere sar dezakegu, gaur oso birmoldatuta dagoen arren. Etxabea, lehenengo solairua eta teilatupea ditu, eta halaber ataripea eta lehenengo bizitzan balkoi jarraitua.

Agidanez, Apaizartzeta baserria ere eraikin lerro horretakoa dugu. Jasan dituen etengabeko birmoldaketak, ordea, oztopo bilakatzen dira haren tipologia zehazteko orduan. Oinplano laukizuzenekoa da. Iparraldeko fatxada



Gaintza baserria birmoldaketaren aurretik. Lezoko Fototeka.

²⁶ SANTANA, A., LARRAÑAGA, J.A., LOINAZ, J.L., ZULUETA, A.: *Euskal Herriko baserriaren arkitektura: Baserriak*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz. 2001. II. Liburukia, 360-365 or.

harlanduxkoarekin itxita dago, eta Mendebaldekoan zenbait baoren abiaburuak, arku tankerakoak eta zuzenak, gezi-leiho bat, harlanduxko eta harlangaitzezko itxitura bat eta harlanduzko eskantzuak ikus daitezke. Hegoaldeko fatxadan bilbadura egurrezkoa da, eta lehenengo solairuko itxitura harlangaitzezkoa, beheko solairuko fabrika bezalakoxea. 1941. urtean sutea izan zuenez gero, hegoaldeko eta ekialdeko alderdiak berreraiki zituzten. Elizako dokumentu batek Gaintza eta Apaizartza baserriak aipatzen ditu 1652. urtean²⁷.



■ Apaizartia baserria.

Juanmartindegí baserriak ere, aurreko bien ezaugarri komunak ditu: etxabea, solairu bakarra eta ganbara dauzka; fabrika harlangaitzezkoa da, eta eskantzuak eta beheko solairuko baoren inguruak harlanduzkoak. Lehenengo solairuan eta ganbaran zurezko bilbadura erabili zuten. Fatxadaren asimetriak adierazten digu jatorrizko eraikina birmoldatu egin zutela segur aski.

Baserri eredu hauetan, Minkura baserrian bereziki, Baztango eta Bortziritako baserriaren eragina eta Lapurtar tradizioarekiko²⁸ antzekotasunak ikusi nahi izan dira.

²⁷ LUA: E-4-I-1-3

²⁸ SANTANA, A., LARRAÑAGA, J.A., LOINAZ, J.L., ZULUETA, A.: *Euskal Herriko baserriaren arkitektura. Baserriak*. Eusko Jaurlaritzak, Vitoria Gasteiz. 2001. II. Liburukia, 360-365 or.

Oinplano laukizuzena eta angeluko ezproi irtenak dituzten baserrien artean, Bordatxo da agian adibiderik esanguratsuen. Bi solairu eta teilatupea dauzka, eta bao batzuetan silarrizko kateekin osatutako inguruak. Dena den, entokadurek eta fatxada nagusiko hormigoizko balkoi jarraituek jatorriko eraikinaren izpiritua nabarmen desitxuratzen dute. Baserri hau ere aipatzen da 1652. urteko dokumentuan.



Bordatxo baserria.

Bada beste tipologia bat ere: oinplano laukizuzena, solairuetan sakoneko garapena eta fatxada nagusia babesteko haize babes moduan luzatzen diren alboetako hormak dituzte baserri horiek. Sail horretakoa izan daitezke Peliar, Alarguntza goikoa eta baita Larraka baserria ere, birmoldaketa sakonak jasan dituzten arren.

Itsua erdikoan, alboetako fatxaden arteko horma sendoen artean –ez dago ia baorik (saietera bakan batzuk kenduta) haietan- fatxada nagusiaren erdiko gorputza dugu, ataripearen gainetik abiatuta.

Miura izan daiteke gurean baserri neoklasikoaren eruedetako bat. Haren aurreko eraikina sute batek erre zuen 1813an, eta bertan altxatu zuten gaur egun ezagutzen duguna. Oinplano laukizuzenekoa da, bi isurkiko teilatua du, eta haren gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra da. Harlangaitzekoa da, eta eskantzua eta baoen inguruak harlanduzkoak. Eranskinak eta entokadura izanagatik, eraikin klasizista interesgarria dugu.



Miura baserria.

1652ko dokumentuak aipatutako Juantorena baserria ere tipologia honen baitan sailka daiteke. Haren ezaugarriak eredu neoklasikoarekin bat datoz: bi isurkiko estalkia, gailur perpendikularra fatxada nagusiarekiko, harlangaitzezko fabrika, eta harlanduzko eskantzuak eta bao inguruak. Fatxada nagusian zabaldutako sarbide berriek eta eraikitako eranskinek haren profila izugarri desitxuratu badute ere, interesgarria da oraindik.

Lezoko landa guneko bizitegi eraikinen artean, Darieta Zaharra baserria nabarmenduko genuke.



Darieta baserria.



Darieta baserria. Xehetasuna.

Darieta baserria Lezoko zaharrenetarikoa da: 1568an²⁹ aipatzen zen jada. Haren ezaugarri formalak direla-eta, XVI. mendeko eraikina dela esan daiteke. Oinplano laukizuzena eta bi isurkiko estalkia ditu, eta teilatu gailurra ekialdeko fatxada nagusiarekiko perpendikularra da. Harlangaitzezko fabrika eta harlanduzko bao inguruak eta eskantzuak ditu. Bertan, XVI. mendeko hainbat osagai kultu ikusten ditugu, hala nola sarrera nagusiko erdi puntuko arku molduratua, leiho konopialak –leiho ertz molduratua eta guzti- edota zurezko gezi leihoak. Eranskinak eraikina arras itxuraldatu duten arren, Lezoko baserri interesgarrietako bat da zalantzarik gabe. Haren ezaugarriei erreparatuta, jauregi tipologia gotiko-errenazentista duela esan genezake.

Goian deskribatu ditugun baserriez gain, beste zenbait eraikin txiki topatzen ditugu Lezon, zeinek, gaur egun baserritzat jotzen badira ere, gure ustez, borda gisa sortu, eta beranduago bizitegi funtzioa hartu baitzuten. Baliabide material eta espazial xumeko eraikin txikiak dira. Oinplano laukizuzena, harlangaitzezko fabrika, etxabea, solairu bakarra eta ganbara txikia dituzte. Amezti, Kaxerna edo Bunotxoberri (Montaxo berri, Bonatxo berri) lirateke mota horretako eraikinak.

Lezoko baserri gehienak oso itxuraldatuta daude oro har: haietan egindako hainbat luzitze obrak, eranskinak, egurrezko bilbadura faltsuk eta birmoldaketak haien jatorrizko ezaugarriak desitxuratu dituzte. Hauxe da, besteak beste, Urrileku, Olazar (bi hauek 1652an³⁰ aipatu ziren), Arriaundi, Kabite eta Txatxamendi baserrien kasua.

2.4 HERRIGUNEKO ETXEBIZITZA ONDAREA

Oso goiz agertu zen agirietan Lezo herrigune bat garatzeko leku aproposa zela. Haren kokapen ezin hobekak -Pasaiaiko portuaren ondoan- interes handia zuen errege boterearentzat, inondik ere. Egiatan, badia bazterreko leku garrantzitsuenetakoa bat izango zen garai hartan. Denboraren poderioz, baina, inguruko beste zenbait gune garrantzi handiagoa lortuko zuten. Herri honetako biztanleek itsasoarekin lotutako jarduerekin atera izan dute bizimodua historian zehar, “itsasbazterreko arrantzarekin, balearen eta bakailaoaren arrantzarekin, Andaluzia eta Amerikako merkataritzarekin, itsaslapurretarekin, errege armadekin eta ontzigintzarekin”³¹, hain zuzen ere. Hasieran, Lezoko herrigune historikoa Kale Nagusiak, Donibane kaleak eta bi kaleon elkarguneak, Gurutze Santuaren plazak, osatzen zuten. Beranduago, Zubitxo kalea gehitu zitzaion. Era berean, San Joan Bataiatzailearen ondoan Goikokale Plaza eta F. Gaintza eta Lizarazu kaleak sortu ziren.

Lezoko herrigune historikoak jasan dituen aldaketak gorabehera –eraikinak jasotzeko obrak eta ordezkapenak oso bortitzak izan dira zenbaitetan-, badu

²⁹ ZURUTUZA, L.: “Lezoko Toponimia III”. *Lezo*, 19. 1999ko maiatza. 79. or.

³⁰ LUA: E-4-I-1-3

³¹ *Guía de Lezo : Naturaleza y huella humana*. Lezoko Unibertsitateko Udala, 1995.

oraindik San Joan Bataiatzailearen, Gurutze Santuaren basilikaren eta Lezoandiako oinetxearen ondoko jatorrizko herrigune koxkor haren antzik; alegia, badu oraindik badia osoa ikusmenean zuen muino hura gogora ekartzeko gaitasunik. Material nobleekin jasotako eraikin interesgarriak eskaileren bidez lotzen dira batzuetan. Horrek gogorarazten digu hasierako kokalekua mendixka txiki baten gainean ezartzeko arrazoia baldintza geoestrategiko egokiak lortzea izan zela.

Markesane edo Lezo-aundia zuhaiztia izenekin ezagutzen den tokia -gaur egun parke bat da- XIII. mendean herriaren sortze prozesua zuzendu zuen Lezoandia familiaren oinetxearen kokalekua izan zen. XIX. mendearen erdian jada eraitsita zegoen arren, badira oraindik eraikin zahararren aztarnak. Gaur egun ere ikus daiteke kokaleku pribilegiatua duela, badiaren eta hiri-



Lezoko hirigunea, XX. mendearen hasieran.
Gipuzkoako Artxibategi Orokorra (GAO-AGG)(Tolosa): OA6048.

gunearen gaineko muino batean, parrokia elizaren alboan. Sinetsita gaude ikerketa arkeologiko batek datu interesgarriak eskainiko lituzkeela Lezoaundia eraikinari zein Lezoko prozesu historikoari buruz.

Kale Nagusia

Done Jakue bidearen ibilbide kulturalak zeharkatutako Kale Nagusia Santokristoren plazatik irteten da. Kale honetan herriguneko etxe esanguratsuenetariakoak daude, eta haietako askok jatorriko orubeetan kokatuta daude, Erdi Aroko hiribilduetako txanteltzearen oroigarri. Aldaketa handiak pairatu badituzte ere, alboetako ezproiak edo armarriak dituzten adibide ederrak ikus daitezke oraindik bide honetan barrena.

Arpide Enea. Kale Nagusia, 4

Harlanduzko aparejua dauka. Estalkia bi isurkikoa da, eta gailurra fatxada nagusiarekiko paraleloa du. XVIII. mendeko armarria nabarmentzen da. Hegada handiko zurezko teilatu hegal garrantzitsua dauka. Ezkerreko saihetsean ezproia du oraindik bigarren solairutik aurrera.

Maripoxanea. Kale Nagusia, 6

Etxe artean kokatuta, bi isurkiko estalkia dauka eraikin honek, eta teilatu gailurra fatxada nagusiarekiko paraleloa. Harearrizko harlanduzkoa da, azkeneko solairua izan ezik; izan ere, beranduago altxatu zuten zati hori, eta luzitutako harlangaitzekoa da. Erdi Aroko elementu interesgarriak gordetzen ditu: lurzatia, alboko eraikinekin konpartitzen dituen hegada bikoitzeko ezproiak eta etxabeko hutsuneak. Oin horretan burdin hesiz estalitako leiho konopial handi samarra zabaltzen da, dobela handiak dituzten erdi puntuko arku tankerako bi sarbideen artean. Arku horietako bat zabala da, eta IHS siglak daramatza grabatuta giltzarrian; bestea, ordea, estua da, eta ikur astrolabikoak ditu.



Maripoxenea.

Zabarre etxea. Kale Nagusia, 5

Plazaren inguruko aldapa maldatsu batean dago eraikin bikain hau, Ganboa Nagusi etxeari itsatsita. Aldaketa asko jasan dituen arren, aipagarriak dira erabiltako material nobleak, hala nola hareharri landua. Hartziko balkoi irten ederra du, erlaitz molduratu batean finkatuta, eta muturrak harearrizko ezproi banatan ahokatuta. Ezproi hauetan, hain zuzen, hegada handiko teilatu hegala bermatzen da, harburu landuak dituela. Etxaurre nagusiak, horrez gain, armari interesgarria du.

Harrieskaleta etxea. Kale Nagusia, 13

Bi zatitan erdibanatutako oinplano eskerga dauka. Egindako moldaketek erabat apurtu dute jatorrian eragin zezakeen batasun inpresioa. Dena den, eskuineko parteak nolabaiteko interesa du oraindik, jasan dituen aldaketak ez baitira hain ugariak izan. Toponimoak Lezoko herrigune historikoko eskailera ugarietako batekiko lotura iradoki dezake; mirespen handia eragin zuten horiek iraganeko bisitarien artean.

Jamotenea etxea.
Kale Nagusia, 16.

Etxe hau ere Erdi Aroko txanteltzearen ondorio da. Izenak Jamot kapitainarekin harremana dauka; alegia, 1582. urtean frantsesen aurkako itsas-batailan garaile irten zenarekin. Etxe arteko eraikina dugu, bi isurkiko estalkikoa. Teilatu gailurra fatxada nagusiarekiko paraleloa du. Halaber, oinplano laukizuzeneko da, eta etxabeaz gain, beste bi solairu dauzka. Beheko oinean bi sarbide zuzen ikus daitezke, kareharrizko harlanduarekin inguratuta. Lehenengo solairuan hiru bao zabaltzen dira: erdikoa karelduna da, eta alboak laukizuzenak eta erlaizduinak. Solairuen artean XVI. mendeko armari obalatu aurkitzen dugu, zeinak bi ohorezko kantoi baititu.



Jamotenea.

Bigarren solairuan, hiru bao laukizuzen eta erlaitz-dunak irekitzen dira. Azkenik, harrizko moldurak eta teilatu-hegalak jartzen diote errematea fatxadari. Lehengo eta bigarren solairuak harlanduzkoak dira, eta, sarbideko inguruko harlandua salbu, etxabe osoa betegarririk gabeko har-langaitzezkoa da.

Andreone etxea

Eraikin exentua da, oinplano laukizuzeneko, lau isurkiko estalkia dauzka, eta eraikinaren kantoï bakoitzaren gainean, erremate gisa, lau flori txiki. Donibaneko bidea hasten den lekuan dago, kale nagusiaren amaieran. Etxabea eta beste bi solairu dauzka. Bigarren solairuko baoen artean XVIII. mendeko armari laurdendu barroko handia ikus daiteke. Fatxada nagusia eta izkinak harearrik landuzkoak dira. Alboetako fatxadetan beranduagoko aldaketak atzeman daitezke. Haren kokapen pribilegiatuari esker, mugarri bilakatu da eraikin hau, batez ere inguruko en etengabeko aldaketak kontuan hartuta.

Pantxikatxiki etxeak, kale nagusiko 20. zenbakian, oinplano estu eta luzanga du; estalkia bi isurkikoa da, eta teilatu gailurra fatxadarekiko paraleloa; badu, halaber, hegada bikoitzeko ezproia, eta 22. zenbakiko etxearekiko banaketa egi-

ten du. Kale nagusiko 8. zenbakiko Arginenea etxean, eta Ganboa Txiki, Itxue, Txalupagain eta Sistiaga etxeen kasuan birmoldaketa sakonagoa izan da, eta eraikinen irudia aro garaikideari dagokio jada.


Gurutze Santuaren plazan

Herrigune historikoaren zentroan, zenbait eraikin interesgarri topatzen ditugu, eta haiek egituratzen dute, neurri handi batean, plaza beraren itxura.

Udaletxea plazaren aldeetako batean nagusitzen da. 1742. urtean amaitu ziren udaletxearen eraikuntza lanak, baina haren aurretik beste eraikin bat egon zen lehenago. Eraikin exentu honek oinplano nabarmen karratua du, etxabea eta bi solairu, eta lau isurkiko estalkia. Harearriko harlanduarekin eraikita dago. Fatxada nagusiak hiru bao ditu solairu bakoitzean, simetrikeri kokatuta. Ataria



Lezo 1970. urtean.




arkupeduna da, arku karpanelez osatutakoa. Lehenengo solairuak leihoak ditu; bigarrenak, berriz, itxura nobleena duenak, balkoi irtena du alderik alde, mentsuletan bermatuta. Baranda burdina forjatuzkoa da. Balkoiaren aldeetan sarbidea dago, eta erdi-erdian Unibertsitatearen armarría. Fatxadaren errematean harrizko erlaitzak eta hegala ditu, baina azken hori berriagoa, dirudienez. Gailurraren gainean, gorputz laukizuzen txiki bat dago, eta bertan ordularia eta haize orratza. Etxabea, bi gorputz erantsi ziren beranduago, udal bulegoetarako.

Zabala enea etxea

Eraikin honetara harmailadi batetik barrena iristen da, eta plazaren fronteetako bat osatzen du Paskual enearekin batera. Bi eraikin exentu hauei alondegia gehitu zitzaion, zeina Ramon Kortazar arkitektoak XX. mendean eraiki baitzuen. Hala eta guztiz ere, jatorrizko fatxada da geratzen den gauza bakarra. Zur tailatuzko hegal batean bukatzen da fatxada hori. Etxabeko bi sarbideetako ateburuen gainean IHS eta gurutze bat grabatuta daude.

Paskual enea etxea

Oinplano laukizuzena du, bi isurkiko estalkia, eta teilatu gailurra fatxada nagusiarekiko paraleloa. Etxabea eta hiru solairu ditu, eta fatxada nagusia eraikitzeke hareharri landua erabili zuten. Goiko solairuan izan ezik, baoak ebaki ederrez inguratuta daude. Beheko solairuan bi sarrera zuzen ikusten ditugu, eta goiko bizitzan, berriz, balkoi irten eta jarraituak fatxadaren alderik alde, mentsulatan bermatuta eta burdin forjatuzko barandak dituztela. Hirugarren solairuaren erdian armari handi samarra dago.



1926ko Paskualenearen erreforma. Gaxpar Sarasuaren etxea zen. *Lezoko Udal Artxiboa.*

Indio enea etxea

Udaletxearen aurrean dago. Haren oinplanoa laukizuzena da, eta teilatu gailurra fatxada nagusiarekiko paraleloa du. Estalkia hiru isurkikoa da. Mehelina partekatzen du ondoko etxearekin, eta harlandua oso txukuna du. Ezkerreko aldean, lehenengo solairutik abiatzen da harearrizko ezproi lodi bat. Aipatzekoak dira, era berean, hegala eta estalkiaren arotzeria, fintasun handiz landutako harburuak baititu.

Donibane kalean azpimarratzekoa da Felipenea etxea, oso eraldatuta dagoen arren. Mendearen hasiera eraberritutako eraikina da, eta baoen inguruak, erai-kuntza elementu diakronikoak dituztela, izan ziren berritze lanetatik libratu ziren bakarrak. Eraikina mendiaren desnibelera egokitzen da, eta atzeko aldean lau altuera dauzka. Alboko fatxadan, harearrizko silarriz landuta, egun itsututa dagoen zazpi dobelaz osatutako erdi puntuko arkuak ikus daiteke, eta, arkuaren gainean, leihoburu monolitikoa duen bao konopiala. Etxabeaen saietera moduko leihoa ageri da.

Goiko kalean Marienea etxea dugu nabarmenetako bat. Lino Etxeberriaren etxetik hurbil dago; azken hori XX. mendean eraiki zuten, eta beranduago aipatuko dugu. Marieneak bi isurkiko estalkia dauka. Hormetan harlangaitza erabili zuten, eta izkinetan eta bao zenbaiten inguruan harlandua. Era berean, sarbide-etako batek nolabaiteko interesa du: ezkerreko alboan dago, eta harearri landuzko arku dobeladun beheratua dauka. Oso IHS xumea grabatuta du giltzarrian, eta gainean jabearen lanbidearekin lotura izan dezaketen lau ikur, gurutze bat tartean.

Zubitxo kalea beranduago integratu zen herrigunean. Bertan, **Txerrimuño** etxea dugu aipagai. Eraikin exentua da, teilatu gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra du, eta estalkia bi isurikoa. Etxabeaz gain, beste bi solairu dauzka. Materialak baoen inguruetan baino ez dira nobleak, eta fatxada nagusian zurezko bilbadura du. Herri arkitekturaren kutsu nabarmena du eraikin honek.

2.5 INDUSTRIAURREKO ONDAREA

Garai luze honetan Lezoko biztanleen jarduerak itsasoarekin eta baserri ingurunearekin lotuta zeuden. Itsas jarduerak merkataritza, arrantza eta ontzigintza ziren gehienbat, baina ez da lan horien aztarnarik gelditu, ondare materialari dagokionez behintzat. Baserriaren eremuan, berriz, badira oraindik nekazaritza eta abeltzaintzako baliabideen eraldaketaren inguruko elementu materialak: besteak beste, errotak, karobiak, dolareak eta ferratokiak.

Errotak

Soilik bi errekek zeharkatzen dute Lezoko udalerrria: Izoztegi eta Zubitxo izenekok, hain zuzen, eta biak ala biak Oiartzun ibaiko ezkerreko ertzean isurtzen dira. Hala eta guztiz ere, 1802. urtean bi irin errotak ziharduten lanean oraindik.

Goiko errota

Lezo eta Gaintxurizketa arteko errepidearen bidegurutzetik 100 metrora dago, eta Lezoandiako oinetxearena zen. Oraindik ageri da bertako antepararen horma; anteparak ubidearen arroa zeharkatzen zuen, eta modu horretan eratzen zuen ur biltegia. Harlangaitzezkoa da. Harlanduekin ederki eskuairatutako ahoa dauka, ura errotako gurpiletara bideratzeko, antza.



Goikoerrotaren aldaparoa.

Beko errota, Errotazar

Bi harri zeuzkan, eta Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradiaren Kooperatiba zahar-
raren ondoan zegoen, Portu deritzon parajeon, Zubitxo erreka-
ren urak badiare-
kin bat egiten duten lekuan. Gaur egun, udal kiroldegiak darama antzinako erro-
taren izena. Bi harri zeuzkan.

Azkenik, Errotatxo errota dugu, Bordandia izenez ere ezagutua. Pasaia-
ko mugan dago, zentral termikoaren bidegurutzetik 100 metrora, Kostaburu erreka
bazterrean.

Karobiak, dolareak eta ferratokiak

Aro Modernoan eta landa-eremuan kokatuta, baserrien nekazaritza eta abel-
tzaintza jarduerekin harremana zuten beste instalazio batzuk azaldu ziren.
Instalazio hauek baserrien nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak osatu, eta ber-
tako baliabideak optimizatzen zituzten. Lezon oraindik ere jarduera horietara hur-
bil gaitzeko propioak zaizkien elementu materialetatik abiatuta. Dolareez, karo-
biez eta ferratoki txikiez ari gara.

Dolareak

Sagardoaren ekoizpena eta salmenta oso jarduera garrantzitsua izan da orain-
tsu arte Lezoko unibertsitatean. Zurutuzak dioenez, Bordatxo eta Amutene³²
baserrietan 1990 urtean ekoiztu zuten sagardoa azkeneko aldiz. Jarduera horrek
zinez garrantzitsua behar zuen izan, eta hala egiaztatzen dute XX. mendearen
lehenengo laurdeneko industria matrikulek. Horren lekuko dira Kabite, Bordatxo,
Saroizarreko eta San Joan kaleko naiz Kale Nagusiko beste bi lokaletako “sagar-
doaren espekulatzaileei” buruzko aipamenak³³. Halaber, sagardoa ekoizteko
baimenak ez ordaintzearen inguruko aipamenik ere bada: esaterako,
Errenteriako postuko mikeleteak 1915ean Kabite baserriko J.J. Pikabea lezoa-
rrari jarritako salaketa, sagardoa baimenik gabe ekoiztu eta Rufino Salaberriaren
ardandegian saltzeagatik³⁴.

Dena den, ez da ikerketa sakonik egin Lezori hainbesteko ospea eman zion jar-
duera honen inguruan, eta, beharbada, gaia ikertzeko garaia iritsi da³⁵. Dolareak

³² ZURUTUZA, L.: "Lezoko sagardogintzaren akabera". *Lezo*, 9. Lezo. 1992. 11-14 or.

³³ AGG-GAO, JD IT 2955, 2 - AGG-GAO, JD IT 2962, 2. Lezoko Industria Matrikulek etengabe aipatzen dituzte 1910. eta 1915. urteen artean "sagardo espekulatzaileak".

³⁴ LUA: C-7-III-2

³⁵ ZURUTUZA, L.: "Lezoko sagardogintzaren akabera". *Lezo*, 9. Lezo 1992, 11-14 or. Gaiaren inguruan ezagutu dugun lan bakarra da. Bide batez, jarduera horren interesa eta gaiari buruzko ikerketa sako-
naren beharra azpimarratu nahi ditugu. Izan ere, Lezon baditugu oraindik ere hain garrantzitsua izan
zen jarduera honi buruzko informazio baliotsua eman dezaketen zuzeneko protagonistak eta lekukoak.

edo haietako osagaiak ikusi ditugu baserri askotan, Lezoko garai bateko baserrietako dolare handien tradizioaren oroigarri. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Martixkoneko dolarea, non, prentsa mekanikoaz gain, azpila eta sagardoaren ekoizpenarekin lotutako elementu eta tresna osagarri ugari gordetzen baitira; edota Arriandiakoa, edo Bordatxoko “dolare berria”.



Martixkoneko dolarea.

Karobiak

Baserriekin lotutako beste zenbait instalazio ditugu hauek. XVIII. mendetik aurrera, karea funtsezko gaia izan da soroak ongarrizteko, eta era berean baserrietako hormak zuritzeko, higie-ne eta osasunaren hobe beharrez. Ohikoa zen jarduera hori baserritarren artean, eta horretarako karobi izeneko instalazioak eraikitzen zituzten, hainbat tipologiatakoak. Bertan kareharria kiskaltzen zen,

kare bizia ekoizteko. Lezoko baserritarrek karobi zenbait eraiki zituzten, udal terrenoetan, batzuetan, eta jabe partikularren lurretan, besteetan.

Zentzu honetan, ugariak dira dokumentuetako aipamenak: “en la Sala consistorial de Lezo a diez y seis de Marzo de 1827 se presentaron Memoriales de Martin de Olaizola, Ignacio de Sarasola, Gabriel de Isasa, José Ramón Zapiain, Lorenzo de Garmendia, Agustin de Legorburu, Manuel de Garmendia, Domingo de Argaya, Miguel Francisco de Eguia, Marcial de Martiarena y Vicente de Olaizola vecinos de esta Universidad en que exponen que para el abono y fomento de sus respectivas tierras sembradías que radican en esta jurisdicción de la misma, intentan cocer a cada hornada de cal y piden se les foguee la broza de argoma para combustible en la cantidad que respectivamente necesitan, de la que existe en términos privativos de la misma, pagando lo que fuere de costumbre que hagan el reparto proporcionado a los que han pedido para caleras, a medida en lo que exista.(...)”³⁶. Ildo berean, Zurutuzak jaso zuen 1846. urtean jaiotako Ramon Salaberria lezotarraren berri: “(...) colono en el caserío denominado Darieta Zarra se ve en la precisión de avonar sus tierras ya deterioradas por no haver podido hacer calera alguna hace muchos años, y deseando llevar a cavo mis deseos y los de mis principales. A.U.S. suplico se sirva ordenar para que se me franquee la piedra necesaria para una calera de doscientas cargas de cal(...)”³⁷.

Dirudienez, XX. mendearen lehen hamarkadetan etorri zen karegintzaren gain-behera, eta Granada baserrian, hain zuzen, ekoiztu zuten karea azkeneko aldiz³⁸.

Lezoko hainbat lekutan izandako karobi ugarien berri ematen duten ahozko lekukotasunak ditugu. Hala, badakigu Saizar, Bonatxo, Errekitxe eta Granada baserrietatik hurbil karobiak izan zirela. Dena den, gaur egun oraindik badugu jarduera horren aztarna interesgarriak ikusteko aukera. Karobi garrantzitsuenen aurrien artean Bustinzulokoa dugu nabarmenetako bat; bertan, bi karobien egiturak ageri dira gutxienez: bata hondakinez beteta dago, eta bestea baratza baterako txabola gisa erabiltzen da. Aipatzekoak dira, besteak beste, Urrilekukoko karobia, sasien artean erdi ezkutatuta, edota Kasernakoa, eta, batez ere, Bordatxoko karobia, ia osorik, berriki erantsitako eraikinak dituen arren. Karobi horrek oinplano karratua dauka, piramide enbor formakoa da, eta erdi lurperatuta dago. Silarriskarekin eraikita dago, eta baditu oraindik karga eta irteerarako ahoa, erdi puntuko arkuaren formakoa, eta alboko eskailera txikia.

Industriaurreko jarduera horren tipologiak ikerketa berezi bat merezi du eta, nolnahi ere, Lezoko geografian barrena sakabanatuta dauden aztarnen balioa azpimarratzea, inondik ere.

³⁶ LUA: A-1-1-6.

³⁷ ZURUTUZA, L.: “Lezoko toponimia(III)”. Lezo 19, 1999. 79. or.

³⁸ MURUA, A.: *Lezoko baserriak*. Lezoko Unibertsitateko Udala. 2000.



Bordatxoko karobia.

Errementeriak/Ferratokiak

Abeltzaintza jardueri dagokionez, baserrien inguruetan ganadua ferratzen edo ferrak estutzen zituzten errementeriak edo ferratokiak daude, hala nola Olazar, Txatxamendi eta Bordatxo baserrien inguruetakoak. Txatxamendikoa izan ezik -eraikin exentua eta itxia du-, beste biak teilape txikiak dira, eta bertan badituzte oraindik ganaduari eusteko uhalak eta kateak, ingudea eta errementari mailuak. Gainera, aipatutako adibideetako diferentzia kronologikoa nabarmena da, eta posible litzateke jarduera horri lotutako instalazioen katalogo bat egitea.



Perratoki. Bordatxo.

3- LEZO INDUSTRIALA

3.1 INDUSTRIA LEZON: HASTAPENETATIK 1950ERA ARTE

Lezo industrializazio prozesuan murgiltzeko arrazoien artean, nabarmentze-koak dira portuaren eta trenbidearen gertutasuna, industria lurzorua eskaintza eta komunikazio sareekiko kokapen egokia. Izan ere, Lezon kokatutako lantegiek ezinbesteko baliabide guztiak zituzten: trenbideak lehengaiak ekarri, eta Jaizkibelet ur hornikuntza bermatzen zuen. Bestalde, Andoain–Irun errepidearen eraikuntzak eta trenbideak erraztu zuten industria lurzoria sortzea.

Industrializazio prozesua, Erreterian, XIX. mendearen erdialdera hasi eta Lezoraino zabaldu zen; ondorioz, hainbat jarduera ezarri ziren bertan. Halaber, Erretereriako lantegi batzuek Lezon zituzten instalazio osagarriak. Sociedad de Tejidos de Lino lantegiak, esaterako, zortzi ehundegi instalatu zituen.

Hartara, Lezo, batzuetan, protagonista zuzena zen, eta bestetan, industriarako beharrezkoak ziren baliabideak –ura, lehengaiak, garraioa, eskulana, etab.- baino ez zizkien eskainiko ondoko udalerriei. Real Compañía Asturiana de Minas enpresa, Lezon egon ez arren, erabakigarria izan zen udalerrientzat, eta ia hasieratik eragin zituen kutsadura arazoak. 1870. urtean jada, Lezoko Udalak kexa bat aurkeztu zuen Batzar Nagusien aurrean, fabrikaren emanazioek Lezoko soroetan eragiten zituzten kalteak zirela eta. Aldundiak emanazioak murrizteko beharrezkoa zen makineria eskuratzeko eskatu zion konpainiari. Alabaina, garai hartan, ezer gutxi egin zitekeen horrelako enpresa garrantzitsu baten aurrean³⁹.



Real Compañía Asturiana de Minas. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.

³⁹ LUA: A-7-1-1

Lezon dokumentatutako lehen lantegia Tejería Mecánica La Merceditas izan zen, 1884rako bertan baitzegoen jada. Norteko Trenbidearen gaineko pasabide-tik gertu bide zegoen, Errenteria eta Lezo lotzen zituen errepidean, Inocencio Elorza ingeniariak 1900. urtean sinatutako proiektuaren arabera⁴⁰. Lantegiaren lehengaia, buztina, Mitxelenean zuten harrobitik ekartzen zuten⁴¹.

Mende bukaeran, Pedro Pérez Otegi tapizeriako ehun fabrika nabarmendu zen⁴². 1894an eraikia, 4.500 metroko eremua hartzen zuen, eta Lezo-Errenteria tren geltokitik metro gutxira zegoen, Donibanera zihoan errepidearen bazterrean. Itsasgora zegoenean, gabarrak biltegiataraino iristen ziren. Era berean, zurezko gaiak egiten zituen E. Olibet lantegia aipatu behar dugu. Besteak beste, lurrinaren bidez zebilen zerra mekaniko bat eta arrabotaz leuntzeko sei makina zituen Lezoko Donibane auzoan.

Lehen industria kokapen horiek erakusten dute Errenteriaren, Lezoren, Norteko Trenbidearen eta Pasaiaiko Portuaren inguruan lantegi asko bildu zirela hasieratik. Izan ere, inguruko orografiari esker, eskualde hori aproposa zen jarduera ekonomikoetarako.. Horren harira, interesgarria da Errenteriako alkate Froilan Jauregik 1893an esandakoa, Huastiza zubia -aipatutako gunearen erdian- eraikitzeko eskaera zela eta. Haren esanetan, (...) “a consecuencia del creciente desarrollo de las industrias en la localidad y del movimiento en el tráfico que esto produce, de hallarse la estación del ferrocarril sobre el ramal de la carretera que partiendo de esta villa va por Lezo a Pasajes, de haberse construido en este camino dos importantísimas fábricas y una sierra mecánica, de hallarse también en construcción otra grande fábrica de minio y albayalde que ha de tener acceso por la misma vía y la constante concurrencia de gentes de esta localidad y la universidad de Lezo, se hace sumamente necesaria una reforma en el puente de Ugarrice o Huastiza donde da principio el expresado ramal arrancando de la carretera general de Bazcardo a Las Ventas de Irun...(...) en el que hay un continuo transitar de personas, tranvía, muchos de cuyos usuarios se dirigen a las fábricas cercanas, la estación o la Universidad y vehículos tanto de recreo como carros de transporte...”⁴³. Deskribapen honek Lezoren industrializazioaren lehen urratsetara garamatza: hasierako paisaia industrial, dinamiko eta, aldi berean, kaotikora, hain zuzen.

Lezok materialez hornitu zituen eraikitzen ari ziren lantegiak. Jaizkibeleko harrobitatik atera zen lantegi berrien instalazioak eraikitzeko beharrezkoa zen harria. 1887an, Real Compañía Asturiana de Minas delakoak baimena eskuratu zuen 100 bat metroko trenbidea eraikitzeko, Lezo-Pasaia errepidea zeharkatzeko eta harrobi berria Pasaiaiko Badiarekin lotzeko⁴⁴.

⁴⁰ AGG-GAO, JDIT4053,b Exp 7433

⁴¹ AGG-GAO, JDIT4053,b Exp 7404

⁴² PEREZ ISCAR: *Las grandes industrias*, 1901.

⁴³ AGG-GAO: JD IT 4053,b Exp.7421

⁴⁴ AGG-GAO: JD IT 4053,b Exp.7405

1891n, Ignacio Azurmendi maisu harginak baimena eskatu zuen Jaizkibel mendia-
diaren hegoaldeko hegalean zegoen Guillermo Minerren harrobia ustiatzeko.
Harria atera nahi zuen Kaputxinotan zegoen lantegirako⁴⁵. 1897an, meatzaritza-
ko konpainiak edateko ura eskatu zuen Altzate basetxerako⁴⁶.

Halaber, 1901ean, Sociedad española de Piedra Vidrio y Construcciones
Garchey lantegiak baimena eskatu zuen Pasaia-Lezo errepidetik hurbil, “los moli-
nos” izeneko parajeen zegoen harrobi bat ustiatzeko⁴⁷.

Lezok meatzeei buruzko legediaren aldaketaren eragina jasan zuen XIX. men-
dearen azken laurdenean, eta, Gipuzkoako gainerako herriak bezalaxe, jarduera
horri emandako bultzada handiaren lekuko izan zen. Jarduera horren emaitzak
ez ziren nabarmentzeko modukoak izan, baina XIX. mendearen bukaeran, 1897.
eta 1900. urteen artean hain zuzen, meatze hauek erregistratu ziren: Sarasola
meatzea (1530. zk.), Darieta eta Gabiria inguruan; Guadalupe (2387. zk.) burdin
meatzea, Jaizkibelen; eta “Iparragirre” meatzea (2406. zk.).

XX. mendearen hasierako Matrikula Industrialek Lezoko industrializazioaren
erritmoa islatzen dute, eta hutsune handiak egon arren, unibertsitateko lehen
hamarkada industrialekiko hurbilketa bat egiteko aukera ematen dute.

1901ean, Pedro Pérez y Otegui enpresak bi establezimendu zituen –batean
hiru ehundegi zeuden, eta bestean sei–, eta, horrez gain, Joaquín Jiménez y
Freixenet zeramika lantegia aipatzen da; erretoki txiki bat zuen azkeneko
horrek⁴⁸. Hurrengo urtean, Eladio Arretxeren teileria mekanikoa jarri zen Kale
Nagusian⁴⁹.

1903an lehen aldiz aipatzen da Sociedad Tártrica DAC azido tartrikoko lante-
gia⁵⁰. Hiru urte lehenago kokatu zen Lezon, Leandro Urangak Erretereria-
Pasaia errepede probintzialaren ezker aldean zeuden lursail batzuetan eraiki-
tzeko baimena lortu ondoren⁵¹. Enpresa horrek azido tartrikoa edo tartarikoa
egiten zuen, muztiotik abiatuta. Garai hartan, produktu horrek hainbat industria-
erabilera zituen, tindategietan, freskagarrien elaborazioan... Enpresa horrek,
1904an, Fábrica de alcohol de granos y melaza Sres. Levin, Agudo, Junyent
izena hartu zuen. Lantegi horri erantsi zitzaizkion La Ideal Fábrica de calzados
y zapatillas, Sáez Mendizabal y Compañía eta Sucesores de Joaquín Mendia y
Compañía fabrikak. Azken hauek Irungoak ziren, eta kupelak egin ez ezik, mota
guztietako foudre bagoiak konpontzen zituzten. Horrez gain, bazterbide bat

⁴⁵ AGG-GAO, JD IT 4053,b Exp 7421

⁴⁶ LUA:D-7-1-1

⁴⁷ AGG-GAO, JDS 4053, b. Exp. 7438.

⁴⁸ AGG-GAO, JD IT 2962,2

⁴⁹ AGG-GAO, JD IT 2948

⁵⁰ AGG-GAO, JD IT 2949,2

⁵¹ AGG-GAO, JD IT 4053, b. Exp. 7435

zuten Norteko tren geltokian. 1906an, Unión Alcoholera Española, SA lantegiak Lezoko Udalarari eskatu zion kontribuzio industrialean handizkako alkohol biltegi gisa agertzeko⁵².



Lezoko Udal Artxiboa D 7 1 2 (1929).

1915eko Matrikula Industrialean, Sociedad Parkers gailera fabrika –erretoki propioa zuen- topatu dugu⁵³. Enpresa hau 1911n sortu zen Unión Comercial de las Manufacturas Parkers izenarekin, eta urtebete beranduago sute bat jasan zuen⁵⁴; horren ondorioz, instalazio guztiak kiskali ziren.

Alabaina, Lezoko industrializazioa XX. mendearen 20ko hamarkadan hasi zen behar bezala garatzen. Gipuzkoako gainerako herrietan bezala, Donostialdeko kontsumo ondasunetara zuzendutako hainbat sektore eta enpresa txiki eta ertainak nabarmendu ziren Lezon ere.

Lezoko industria bi gunetan banatu zen harrezkero. Batetik, lur kontzesioei esker portualdean kokatutako industria dugu, eta bestetik, tren geltokiaren eta portuaren arteko gunetik kokatutakoa.

1920ko Matrikula Industrialean Zubitxon azaltzen da Guittet y Cía bernizen fabrika, 1912an fundatutakoa⁵⁵. Hiru urte beranduago, 1923an, lantegi hauek agertzen dira Estatistika Industrialean⁵⁶: Guittet y Cía berniz fabrika, legamia egin eta alkohola destilatzen zuen Unión Alcoholera Española, Unión General de

⁵² LUA: C-5-I-1- 6.

⁵³ AGG-GAO, JD IT 2962,2

⁵⁴ LUA: C-5-II-1- 6.

⁵⁵ AGG-GAO, JD IT 2964,2

⁵⁶ AGG-GAO, JD-IT 3174

las Manufacturas Parkers gailera lantegia, eta material elektrikoa konpontzen zuen Juan Walkersbach. Portuan, Almacenes Lezo-Pasajes⁵⁷ biltegi-tako zen-bait instalaziotan, kupelak eta bagoiak egiten zituen Joaquín Mendia y Cía lantegia eta Manufactura Victoria oinetako fabrika zeuden⁵⁸.



Lezoko industriagizonen sinadurak. Lezoko Udal Artxiboa (1922).


20ko hamarkadakoa da halaber Fábrica de cepillos Lobato lantegia⁵⁹. Hasieran Errenterian kokatu zen, eta ondoren, 20ko hamarkadan, egun dagoen tokira aldatu zen.

1921ean, Fernando Lobatok, lantegiaren jabeak, baimena eskatu zuen lantegia eta bizitegi bat eraikitzeko Altxateko zubiaren ondoan. Proiektuaren ardura-duna Antonio Setien arkitektoa izan zen. 1925ean, arkitektoak berak handitu zuen lantegia. Fabrikak 1972an itxi zituen ateak. Muino txiki batean dago, Pasaiaiko portuari begira eta Pasaia eta Lezo lotzen dituen errepidearen bazter-rean. Beheko solairuan tailerrak zeuden eta goiko solairuetan enpresaren jabe-en etxebizitzak. Eraikinaren fatxadetan, elementu hauek nabarmentzen dira: baoen ardatzen inguruan dauden banda lauak eta bertikalak, beheko solairuak banatzen dituen platabanda, molduradun erlaitza eta angelu balkoietako mentsu-la handiak. Eraikin bitxia eta eklektikoa da, izen soziala duen kartela bezalaxe. Erratzak eta eskuilak egiten zituen lantegi zahar hori Lezoko lehen industrializa-zioaren jatorrizko eraikin bakarra da.

⁵⁷ AGG-GAO, JD IT 4053,b, Exp: 7390

⁵⁸ LUA:C-5-II-1-6.

⁵⁹ AGG-GAO, JD IT 2968,2



Lobato etxearen erreforma, 1922. urtean. *Lezoko Udal Artxiboa.*



Lobato etxea.

Garmendiak eta San Romanek⁶⁰ dioten bezala, 1921. eta 1930. urteen artean, Unibertsitatearen jarduera industrialia areagotu, eta enpresa berriak agertu ziren. Lehen aipatutakoez gain, zenbait enpresa zabaldu ziren; hala, sektore kimikoa-rekin lotuta, Compañía de Productos Resinosos eta Establecimientos Boers ditugu, eta zurgintzarekin lotuta, Mendia y Cía fabrikarekin batera, Iriarte Hnos, Lorenzo Pasmontes eta Eladio Castellanos upeltegiak eta Carpintería y Tratante en Maderas Rafael Sagarzazu zurgindegia ditugu. Papergintzan, 1926an, Fábrica Española de Papeles Químicos S.L. enpresa desagertu zen, eta urtebete beranduago Benito Miner Manufactura de Papeles Químicos eta Fábrica de Papel Record S.L. lantegiak sortu ziren. Sociedad Manufacturas de Papel Record enpresak herrian kokatzeko asmoa erakutsi, eta 1924ko Matrikula Industrialean agertzeko eskatu zuen⁶¹. Kautxuaren industrian Cordellasch y Cía. aipatu behar dugu, eta zapatagintzan, berriz, Antonio Paredes (oinetako fabrika) eta Manuel Alberdi (espartinak). Sektore metalurgikoan, Lezon bi latorrigile zeuden, eta, horrez gain, Lopetegi y Agirre arotzeria mekanikoa⁶².

Bitxikeria gisa aipatu behar dugu hamarkada horretan petrolioa erauzteko meatzek ezarri nahi izan zituztela. 1923an “Seguro” meatzea (4083. zk.) erregistratu zen, eta 1927an, “Probable” meatzea erregistratzeko eskatu zen⁶³. Ez dugu meategi hauen berri gehiagorik izan.

XX. mendearen lehen hamarkada horietan, Lezon ez zegoen zentral hidroelektrikorik, eta Unión Eléctrica Vasco-Navarra enpresak hornitzen zuen herria⁶⁴.

30eko hamarkadan, egoera ekonomikoa eta politikoa nabarmen aldatu zen. Hauek dira 1931n Lezon kokatutako sozietateak: Sociedad Propietaria Almacenes Lezo-Pasajes, S.A.; Cardellach Pablo, Sociedad Comanditaria; Filtro Cromado EL, S.A.; Saizar, Mendizábal y Cía; eta Guittet y Cía, S.A.⁶⁵.

30eko hamarkadan, enpresa batzuk desagertu eta beste batzuk agertu ziren. Desagertu zirenen artean Establecimientos Boers y Cía eta Compañía de Productos Resinosos lantegiak zeuden, Lorenzo Pasamontes eta Eladio Castellanos upeltegiak, Rafael Sagarzazu aroztegia, Manufacturas de Papel Record, S.L. paper fabrika eta Antonio Paredes eta Manuel Alberdi zapata fabrikak.

Hauek dira hamarkada honetan Lezon kokatu ziren enpresa berriak: Unión Manufacturas Parkers, S.A.; Danubio, Unión alcoholera Española, S.A.; CANE Rogelio García kontserba fabrika; eta lau sagardotegi. Sektore kimikoan: Guittet y

⁶⁰ GARMENDIA, G. eta SAN ROMAN, A.: *Lezoko demografía eta industria XX. mendean*. Lezoko Unibertsitateko Udala, 2003.

⁶¹ LUA: C-5-II-1-6.

⁶² GARMENDIA, G. eta SAN ROMAN, A.: *Lezoko demografía eta industria XX. mendean*. Lezoko Unibertsitateko Udala, 2003. 103. or.

⁶³ LUA, C-5-II-1-6.

⁶⁴ LUA: C-5-II-1-6.

⁶⁵ AGG-GAO, JD IT 1717,b

Cía, Unión Alcoholar de España, S.A.; Viuda de Sánchez argizari fabrika; Sociedad Navarra de Industrias; eta Rodríguez y Arévalo (arte grafikoetarako tintak).

Zurgintzan, Joaquín Mendia y Cía, Iriarte Hnos. upeltegia, Aserraderos de Maderas Coloniales (1938an fundatua, egun Aserraderos de Lezo, S.A. dena) eta Manuel Acha (ondoren Acha y Zubizarreta, S.A izango zena).

Papergintzan, Benito Milner Manufactura de Papel Químico lantegia zabaldu zen.

Kautxu industrialaren sektorean, Pinedes, Cardellach y Cía (aurreko hamarkadan Cardellach y Cía) eta Francisco Ollacariceta fabrikak zeuden.

Sektore metalurgikoan enpresa hauek zeuden: Forjas de Alcalá, Ignacio Lopetegi eta José María Uribarri arotzeria mekanikoak eta Jacinto Irujo hornidura metalurgikoak.

Ontzigintzan, Clemente Goldarazena eraikuntza enpresa eta Andres-Enea konponketa fabrika zeuden. Ehungintzan, José Oliac enpresa nabarmentzen zen. Eta, azkenik, Viuda e hijos de Fernando Lobato aipatu behar dugu⁶⁶.

1941-1950 urteen artean, sektore kimikoan Industria Comercial e Industrial, S.A. enpresa eta RAPSA olio fabrika sortu ziren. Zurgintzan, Lorenzo Pasamontes lantegia azaldu zen berriro. Halaber, Termo-electricidad Alzate S.L. enpresa sortu zen. Alabaina, hamarkada horretan, beste batzuk desagertu ziren. Esaterako, CANE Rogelio García kontserba fabrika, Vda. de Sánchez argizari fabrika, Joaquín Mendia y Cía upeltegia eta José María Uribarri eta Ignacio Lopetegi arotzeria mekanikoak. Pinedes, Cardellach y Cía kautxu fabrika eta Francisco Ollacariceta lantegia ere desagertu ziren. Eta orobat Forjas de Alcalá eta Jacinto Irujo fabrikak. Ontzigintzan, ontziak eraikitzen zituen Clemente Goldarazena lantegia eta ontziak konpontzen eta garbitzen zituen Andres-Enea fabrika itxi zituzten. José Oliac fabrikak ere feltroa egiteari utzi zion⁶⁷.

Adibide gisa, Conservas de la Cofradía de pescadores enpresaren instalazioak 90eko hamarkadan desagertu ziren Lezoko Kiroldegia eraikitzeko. Bederatzi hormarteko nabea zen. Erdiko hormartea altuagoa zen, eta frontoi batean izen soziala margotuta zegoen. Ate handiak zituen. Instalazioen ondoan langileentzako etxebizitzak zeuden. Ez da arrastorik geratzen.

XX. mendearen lehen erdian eraiki ziren instalazio guztietatik Lobato eskula fabrika baino ez da zutik geratu. Hainbat komunikabidek inguratuta, kokaleku bitxia du, eta egoera kaskarrean egon arren, izen soziala irakurtzen da, eta erai-kinaren diseinu eklektikoa atzeman daiteke oraindik.

⁶⁶ GARMENDIA, G.; SAN ROMAN, A.: *Lezoko demografia eta industria XX. mendearen*. Lezoko udala, 2003. 119. or.

⁶⁷ GARMENDIA, G.; SAN ROMAN, A.: *Lezoko demografia eta industria XX. mendearen*. Lezoko udala, 2003. 121. or.



Lezo eta Oretetaren arteko muga (1965. Paisajes Españoles). 1- Lobato. 2- Fermi-nenea, Piaenea . 3- Unión Alcoholar Española S.A. 4- Tren geltoki zaharra. 5- Conservas de la Cofradía de Pescadores S.A. 6- Croma S.A. 7- Aserraderos de Lezo S.A. 8- Fundiciones de Lezo S.A. 9- Fundaciones de Lezo S.A. (1969. Paisajes Españoles). *Lezoko Udala.*




3.2 TRENBIDEA ETA KOMUNIKABIDEAK


NORTEKO TRENBIDEA

Trenbidearen eraikuntzak, zehazki Madril-Irun lineak, Lezoko hiri eta industria garapenean eragin zuen. Lezo-Errenteriako geltokiaren ondoren, Alzate eta kanala zeharkatzen zituen Kaputxinotako burdinazko zubitik. 1864an, zubi horrek behin betiko galarazi zuen ontziak Errenteriako kaira sartzea. Hori dela eta, herriko industrialariak eta merkatariek ibilbide horren aurka azaldu ziren. Ibilbide horren ordeztu, beste trazadura hurbilago bat proposatzen zuten, ondoren Vaskongadoetako Trenbiderako aukeratu zenaren antzekoa. Errenteriako industrialarien esanetan, trazadura horren atzean Real Compañía Asturiana de Minas lantegiaren interesak zeuden.

Lezoko Geltokiak, mugan zegoenez, 1885etik aurrera Errenteria-Lezo izena hartu zuen. Horrela, Renfek bi herrien industriaren eta hirigunearen garrantzia aitortu zuen.

Egoera horri esker eta trenbideak eskaintzen zituen aukera berrien ondorioz, jarduera berriak sortu ziren geltokiaren ondoan, komunikabide onak erakarrita. Geltokia portutik eta Lezon kokatutako enpresetatik nahiko gertu zegoela ikusirik, gune horiek trenbidearen bidez lotzea erabaki zuten. Oraindik Norteko Trenbidea eta portua lotzen dituen bidea erabiltzen da. Bide horrek tunel baten bidez zeharkatzen du Altamira auzoa.





Trenbidearen gainean, Erreterria-Lezo errepidean, gaineko pasabide bat zegoen La Merceditas izeneko teileria mekanikoaren ondoan. Alabaina, 1899an jada, pasabidea zabaltzeko beharra ikusi zuten. Erabaki horretan zerikusi handia izan zuten bertako enpresetako jarduerak eta inguruko zirkulazio biziak, eta halaber eguneroko langile oldeek eta Lezoko Gurutze Santua gurtzera hurbildutako jendetzak. Guztiarekin ere, gaineko pasabide hori funtsezkoa izan zen bertatik igarotzen ziren ibilgailu eta oinezkoentzat.

Pasabidea zabaltzeko proposatutako eraikuntza sistema Huestiza izeneko zubian erabili zen sistema bera izan zen. Zubi hori pasabidearen ondoan zegoen, errepidean, Oiartzun ibaiaren gainean. Burdinazko armazoiz egindako bi banda eseki erabili ziren, 4,20 metrotik gorako zabalera emateko, eta alde bakoitzean 1,25 metroko zabalera zuten bi nasa eraikitze⁶⁸.


Gaur egungo Lezo-Erreterria geltokia 70-80ko hamarkadan eraiki zen, estilo neoeuskaldunaren berrinterpretazio bat eginez. Dena den, badira jatorrizko eraikin osagarriak, hala nola, biltegia, geralekua eta trenbideetako langilearen etxea. Biltegia eraikin xumea da eta egitura metalikoa, bi isurkiko estalkia eta adreiluzko hormak ditu.

1929an Udalak Gaintxurizketan bazterbide bat eraikitze eskatu zuen, bertan jende asko bizi zela, eta, ondorioz, erabili ahal izango zutela argudiatuz. Bazterbidearekin batera, azpiestazio elektrikoa eta trenbideetako langileen etxeak eraiki ziren. Gaur egun ikusten ditugun hondarrak jatorrizko trenbide arkitekturen eklektikoaren testigantza zuzena dira.



Gaintxurizketa tren-zaindariaren etxea. *Trenbidearen Euskal Museoa (Azpeitia).*

⁶⁸ AGG-GAO, JD T 360.3



Gaintxurizketako azpiestazio elektrikoa.

Industriak portualdean ezartzeko, ezinbestekoa izan zen trenbideko azpiegiturak garatzea, alegia, geltokitik abiatzen ziren adarrak eraikitzea. 1921ean, eta komunikabideak hobetu nahian, Sociedad Anónima Almacenes de Lezo-Pasajes enpresak baimena eskatu zion Aldundiari azpiko pasabide bat zabalatzeko eta Errenteria eta Lezo lotzen zituen errepidearen sestra igotzeko. Horrela, Norteko trenbidearen material mugikorra adar berritik bideratu ahal izango zen porturantz. Proiektua José Peña ingeniariak izenpetu zuen. Aldundiak, azkenean, errepidearen sestra metro bat igotzea onartu, eta trenbide-pasagunearen zabalera 12 metrotan finkatu zuen. 1023an lanak eten egin ziren, eta, ondoren, errepidearen sestra gehiago igo behar izan zen lana bukatu ahal izateko⁶⁹.

Bi urte beranduago, Sociedad Anónima Almacenes de Lezo-Pasajes enpresak, betiere komunikabideak hobetzearren, Lezo zeharkatuz Errenteria eta Pasai Donibane lotuko zituen trenbide berri bat eraikitzea proposatu zuen. Azkenean, ordea, trenbide hori ez zen eraiki. Agintarien ustez, eraikuntza horrek Lezoko badia baliogabetu egiten zuen, eta ingurune hori Portuaren etorkizunerako funtsezkotzat jotzen zuten inondik ere. Izan ere, badia oso txikia zen, eta horrelako proiektuak garatzeko padura lehortuz gero, ainguratoki ona izateari utziko zion⁷⁰.

⁶⁹ LUA.: C-5-II-1-6.

⁷⁰ LUA.: D-6—1-1

Topoa

Topoa esaten zaion trenbideak ere Lezo zeharkatzen du. Topoaren helburuetako bat izan zen kantauriko kostaldeko tren sarea eta Europakoa lotzea. Horrez gain, bere gain hartu nahi zuen Donostia-Pasaia-Errenteria-Irun korridorearen trafikoa. Izan ere, Norteko trenbideak ezin zion handitzen zihoan trafiko horri behar bezala erantzun, lurrun trena baitzen (1929 arte ez zen elektrifikatu). 1891ko uztailaren 15ean, Manuel Martik baimena lortu zuen Elgoibar eta Donostia lotu eta Hendaiaraino iritsiko zen trenbidea eraikitzeke. Elgoibar eta Donostia lotzen zituen trenbidea 1901ean inauguratu zen, baina ez zen mugaraino luzatu. Luzapen horren emakidaren eskubideak eskutik eskura pasatuz joan ziren, eta, ondorioz, proiektua ez zen gauzatu. Azkenean, 1910eko apirilaren 23an, Donostiatik Hendaiarako Trenbidearen Konpainia sortu zen. Eta berehala hasi ziren trenbidea eraikitzeke lanak. Handik gutxira, 1912ko abenduaren 6an, Donostia eta Irun lotzen zituen zatia zabaldu zen, eta 1913ko uztailaren 13an, berriz, Hendaiarako azken zatia inauguratu zen. Eraikuntza lanak Ochandiano y Compañía enpresak egin zituen, Manuel Alonso Zabala ingeniariaren zuzendaritzapean.

Topoa –tunel asko zeharkatzen dituelako hartzen du izen hori-, alegia, Donostiatik Hendaiarako Trena, elektrikoa zen. Gainera, Donostiako hirigunera iristen zenean, herriko kaleak zeharkatzen zituen, Hernaniko Trenbidearen trazadura aprobetxatuz. Hartara, geltokia Peñafiorida kalean bertan zegoen. Tailerrak eta garajeak Errenteriako geltokian zeuden. Behar bezala berriztatuta, instalazio horiek zabalik daude oraindik. Topoa inauguratu eta urte batzuk beranduago, 1926ko maiatzaren 26an, Sociedad Explotadora de Ferrocarriles y Tranvías (SEFT) sortu zen Iruñean. Elkarte horren barruan sartu ziren Mugako Trenbidea, Donostiatik Hernanirako Trenbidea eta Irunetik Hondarribirako Tranbia.

Ondoren, udalek hartutako erabakiek baldintzatu zuten trenbidearen bilakaera. Hala, 1954ko ekainaren 6an, Donostiako Udalaren agindu arbitrario batek herriko kaleak zeharkatzea debekatu, eta Amarako geltokiraino mugatu zuen Hernaniko Trenbidearen eta Mugako Trenbidearen ibilbidea. Erabaki horrek eragin handia izan zuen zerbitzuan, trenbide horietako erabiltzaile askok autobusak hartu behar izan zituztelako hirigunera joateko. Hernaniko Trenbideak ezin izan zion errepidearen lehiari aurre egin, eta 1958ko otsailaren 28an itxi zuten.

Topoaren egoera ekonomikoak ere okerrera egin zuen, eta azkenean, SEFT elkarteak uko egin behar izan zion trenbidea ustiatzeari. Ustiapena FEVE Espainiako Trenbideen Enpresa Publikoak hartu zuen bere gain 1973ko urtarrilaren 30ean. Estatu sozietateak hartu zuenean, trenbidearen egoera penagarria zen, eta FEVEk hura berreraikitzeke beharrezkoak ziren inbertsioak egitea eta aldi baterako ixtea erabaki zuen. Horiek horrela, tunelak indartu ziren -haitetako asko erortzeko zorian zeuden-, trenbide osoa berritu zen, eta, tranbiek erabiltzen zuten elektrifikazio sistema zaharraren ordeztuz, Renfen erabiltzen zenaren antzeko sistema ezarri zen. Lanek zenbait urte iraun zuten, eta zirkulazioa behin baino

gehiagotan eten behar izan zen ibilbide osoan edo zati batzuetan. Azkenean, trenbidea 1976ko urriaren 14an behin-behinean berrinauguratu zen, jatorrizko automotor zaharrekin (batzuk 1912koak ziren). Izan ere, 3.500 seriearen unitate elektriko berriak 1978ko maiatzaren 1ean estreinatu ziren. Topoa, Bilbo-Donostia trenbidea eta Bermeoko adarra Eusko Kontseilu Nagusiak bereganatu zituen. Muga eta Hendaia lotzen zituen zatiak, ordea, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zegoenez, FEVErena izaten jarraitu zuen. Dena den, bi enpresen arteko hitzarmenari esker, EuskoTrenek ustiatzen du.

Topoa Renferen trenbidearekiko paralelo doa, eta geltokia Gaintxurizketan dago, Madrid-Irun trenbidearen azpiestazio elektrikotik metro gutxira.

Lezo–Donibane errepeidea

Bi trenbide horiez gain, Lezo Gipuzkoako errepeide sarearen ardatz nagusiarekin, Madril-Irun errepeidearekin hain zuzen, lotuta zegoen, Errenteriatik abiatu eta Lezo zeharkatuz Donibaneraino iristen zen adar baten bidez. Horixe izan da, dudarik gabe, bi herri mugakide horiek lotu dituen bide historikoa.

Pasaia-Lezo errepeidea Gipuzkoako Foru Aldundiak 1883an emandako 181.000 pezetako akzioei esker eraiki zen. Akzio bakoitzak 500 pezeta balio zuen, eta %5eko interesa bermatzen zen⁷¹.



Gipuzkoako Artxibategi Orokorra (GAO) (Tolosa).

Errepeide hau Lezoko Gurutze Santuaren eta Kale Nagusiko 29. zenbakiko etxearen aurretik igarotzen zen, bihurgune handi bat eginez. Bertatik igarotzea oso zaila zen, batez ere Gurutze Santuaren Basilikan jendetza biltzen zenean. Errepeidearen trazadura hobetzeko, 1920an, errepeidea desbideratu eta hirigunearen mendebaldea txukundu behar izan zen. Errepeidea hobetzeko proiektuak estolderia gabezia eta ur beltzen ondorioz inguruak zuen egoera tamalgarria aipatzen ditu.

⁷¹ AGG-GAO, JDL 1438

30eko hamarkadaren hasieran, bide zahar baten profila baliatuz, lehen mailako auzo bide bat egokitu zen, zeina Gaintxurizketako gainetik abiatu eta Erreterria eta Donibane lotzen zituen erre- pidera ateratzen baitzen. Lanak aprobetxa- tu egin ziren Lezoko hirigunean ibilbidea hobetzeko⁷².

Ondoren, 40ko hamarkadan -zehazki 1945ean-, eta langabezia arintzeko abiatu zen Obren Planaren barruan, Donibanera zihoan bidea hobetzeko lanak egin ziren⁷³.


3.3 PORTUA

1871. eta 1883. urteen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako Sociedad de Fomento del Puerto de Pasajes enpresak badia itxural- datuko zuten portuko azpiegitura berriak eraiki zituen. Horrela, besteak beste, Herrerako eta Pasaiako itsasertzeko kaiak eta ondoko biltegiak, eta Madril-Irun tren geltokiarekin lotutako trenbideak eraiki ziren. Dragatze lanak Antxon eta Kaputxinotan (Erreterria) hasi ziren, bertan kokatu baitzen Real Compañía Asturiana de Minas enpresa. Molinao urbanizatzen hasi ziren, industrietan eta bizitegiak eremu bera partekatuzeko asmoz. Alabaina, 1890ean Lezoko portualdeak bere horretan jarraitzen zuen oraindik, inolako alda- ketarik gabe. Garai hartan, Kaputxinotan, Erreterrian ezarritako Real Compañía Asturiana de Minas enpresak baino ez zuen Lezoko portualdearen itxura alda- tzen. XX. mendean, ordea, Lezoko itsasbazterrak aldatu ziren, badiaren industriak eta portu garapenak bultzatuta. Hauek ditugu Lezon itsasoari irabazitako lurretan ezarri ziren lehen enpresak: Andrés Parayuelo ontzitegiak eta Sociedad Almacenes de Lezo y Pasajes biltegiak.



⁷² AGG-GAO, JD IT 4053,a. Exp. 7385

⁷³ AGG-GAO, JD,T 425,1




Badiaren inguruko enpresak, 1920. urtean. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.

1919an, eta ontzien eraikuntzan eta konponketan garai batean irabazitako ospea berreskuratu nahian, portuak padura gune bat eman zien Andrés Sáez de Parayuelori eta Félix Gorosperi. Padura gune hori “La Pesquera” izeneko urmaelaren eta Pasaiaiko badiaren artean zegoen. Hamar urte beranduago, 1929an, enpresak proiektu bat aurkeztu zuen biltegi-tako arrapalak hobetzeko. Garai hartan, konpondu edo garbitu beharreko ontziak lehorreratzeko, arrapalek zurezko errail batzuk baino ez zituzten, eta gurpilik eta arrabolik gabeko gurditxoak.

Arrapalaren malda %11 arte murriztu zen. Burdinazko errailak zituzten hiru bide eraiki eta motor elektrikoek eragindako dibidietek mugitutako hiru gurditxo jarri ziren. Instalazio berriak 150 tona pisatzen zuen. Arrapala berriak 74,40 metroko luzera zuen; horietatik 24 metro itsasbehera ekinokzialaren azpian gelditzen ziren. Arrapalaren zabalera 37 metrokoa eta 25 metrokoa zen, eta ondorioz, ardatzetik ardatzera 9 metroko tartea zuten hiru bide jarri, eta 6 metroko eta 7,25 metroko bi espazio libre geratu ziren bi alboetan. Bide bakoitzaren goialdean maniobra etxola zegoen. Halaber, 40,00 metroko zabalera eta 5 metroko sakonera zuen kanala zuen ontzitegiaren ertzetik portuak dragatutako kanaleraino.

Lehorrean lan egin zitezkeen zatian, bidea zuzenean jarri zen hormigoizko bi blokeren gainean. Errailak, berriz, blokeetan sartu ziren. 0,60 metroko altuera eta 1,40 metroko zabalera zuten bi bloke hauek 1,70 metroko lodiera zuen harri-lubeta geruza batean bermatzen ziren.


Hiru arrapaletako bakoitzerako, gurditxo bikoitzak prestatu ziren. Burdinazko pieza baten bidez elkartu zitezkeen, eta bi gurditxoen tartea aldakorra zen, ontzien tamainaren arabera. Gurditxo bakoitzak lau gurpil zituen, eta erlaitza, bidetik ez irteteko. Gurditxo bakoitza maniobra makinari lotuta zegoen kableen bidez. Kable horiek, hainbat polipastotatik igaro ondoren, gurditxoa igotzeko behar zen trakzio esfortzuen seirenera murrizten zuten tentsioa⁷⁴.



⁷⁴ Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Artxibategia, 3332



Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.



Andres Parayueloren baratokian. *Pasaiako Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.*

Almacenes de Lezo-Pasajes dugu Lezoko portualdean kokatu zen bigarren enpresa. Enpresa horren presidente Félix Gorospek, 1920an, Sustapen ministroari baimena eskatu zion Oiartzun ibaiaren elkargunean kai bat eraikitzeko, aipatutako sozietatearen zerbitzu partikularerako. Proiektuaz arduratu zen ingeniaria Víctor Pradera izan zen. Gipuzkoako Herri Lanen Buru Javier Olazabal ingeniariaren hitzetan, kaiak zementu armatuzko piloteak izango lituzke, eta 97 metroko luzeera izango luke, Sozietatearen jabetzaren ipar-ekialdeko angelutik hasita mendebalderaino. Mutur horretatik beste kai bat abiatuko zen, Oiartzun ibaiaren norabidearekiko paralelo, eta Real Compañía Asturiana enpresaren murruraino 41 metroko luzeera izango zuen. Horiek horrela, Sozietateak 300 metro koadroko eremua izango luke biltegien edo industrien salgaien zama lanetarako.

1922an, José María Seminario ingeniariak, aipatutako Sozietatearen izenean, proiektu bat idatzi zuen kai bat eraikitzeko Pasaiako badiak eta Oiartzun ibaiak bat egiten zuten gunean. Kai berria Real Compañía Asturiana enpresaren aurrean eraikiko zen. Kaiak bi gune izango zituen: batean hondarra eta lohia nabarmentzen zen, eta bestean arroka. Hori dela eta, gune bakoitzaren zimendatzea ezberdina izango zen. Zimenduak zuzenean jar zitezkeen tokietan harrizko hormak erabiliko ziren, eta gainerako lekuetan hormigoia. Hormigoizko obran, bi lerroren ordean, hiru pilote lerro jartzea proposatu zen, kuboa arintzeko eta lanak errazteko. Hormigoizko kaietan, Norteko Trenbidearen Konpainiaren bi burdinbide egokitu ziren, zabalera arruntekoak. Kaiaren bazterrean zegoena garabiak erabiltzen zuten, eta bigarrena piloteen hirugarren lerroaren gainean zegoen.

Trenbidetik 20 tonako bagoiak ibil zitezkeen, 30 tonako pisu gordina jasateko gai ziren arren. Bagonetak mugitzeko, gasolinazko eztanda motordun tren makina edo traktore txiki bat erabiltzen zen.

1927an, Almacenes de Lezo-Pasajes enpresaren Administrazioako Kontseiluko lehendakari Andrés Parayuelok Sustapen ministroari luzapen bat eskatu zion aipatutako konpainiaren kai partikularraren lanak egiteko. Dena den, 1929an, Andrés Sáez de Parayuelok 1922ko lehen emakidaren 7. baldintza aldatzeko eskatu zuen, enpresa berriak ezartzeko kaia alokatu ahal izateko. Izan ere, Sociedad Industria Ibérica del Bacalao enpresak biltegiak eta kaiak behar zituen, eta hori leku egokia zen horretarako. Bada, aurrerago ikusiko dugun moduan, toki hau oso erakargarria zen hainbat konpainia eta enpresarentzat, kokaleku bikaina baitzen⁷⁵.

30eko hamarkadan, aurreko sozietateei hirugarren bat erantsi zitzairen: Aserraderos de Lezo. Manuel de Acha Gaviñak 5.000 metro koadroko lursail bat alokatu zion 1930ean Almacenes de Lezo-Pasajes sozietateari.

Lursail hori aipatutako sozietatearen padura lehertzeko emakidatik gertu zegoen. Manuel Achak, lursaila alokatzean, Errenteriako geltokiaren eta aipatutako badiaren artean zegoen trenbidea zeharkatzeko eskubide izango luke. Horrez gain, salgaien zama lanetarako, Almacenes de Lezo-Pasajes sozietatearen atrakalekua erabiltzeko hitzarmen bat izenpetu zuten. Aserraderos de Lezo enpresak zur kolonialekin egiten zuen lan, eta oso zaila zen salgai mota hori lurretik garraiatzea. Hala, lana erraztearren, baimen bat lortu zuen urte berean dibidieta bat jartzeko, eta horrela, zur zatiak uretatik edo gabarratik aterako zituen. Lantegi horrek taula kontratxapatuak egiten zituen enborretatik abiatuta, eta enborrak itsasontzien albotik atera eta aipatutako kaiaren inguruko urtegietan uzten ziren. 1930. urtearen bukaeran, arrapala bat eta zenbait instalazio eraiki ziren aipatutako kaiaren mutur batean, enborrak porturatzeko edo uretatik iristeko.

1939an, enborrak badiatik ateratzeko eta bagoietan sartzeko tresna bat jarri zen⁷⁶. 1952an, berriz, enborrak igotzeko beste arrapala bat eraikitzea proposatu zen. Arrapalak %30eko malda zuen. Egitura sendoa zuen, 40 cm-ko zabalera, 30 cm-ko altuera eta 16 cm-ko luzeera zuten hormigoi armatuzko habeek osatutakoa. Almacenes de Lezo-Pasajes sozietateak emandako atrakalekuaren goialdean, lau angeluko piramide enbor formako sei zutabetan eta zimendatze bloke batean bermatzen zen. Luzerako habe horien barruko tartea 1,65 metrokoa zen, eta, oinarrien parean, 20 cm-ko zabalera eta 30 cm-ko altuera zuten habexkak zituzten ez deformatzeko. Enborrak igotzeko gurditxo bat ipini zen; gurditxoa aipatutako burdinbide instalaziotik zebilen eta itsasgora zegoenean urperatu egiten zen. Orduan, enborra gurditxoan sartu eta lotzen zen, eta behin kaian, burdinbideen instalazio nagusietan zeuden bagonetetan sartzzen zen lantegira eramateko.

⁷⁵ Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Artxibategia, P.5

⁷⁶ Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Artxibategia, P3-2B

Instalazioaren proiektua bide, ubide eta portuetako ingeniari Segundo Bizkarrondok egin zuen⁷⁷.

Portuaren ondoan kokatutako hurrengo enpresa Sociedad Navarra de Industrias dugu. 1940an, azido sulfurikoa egiteko fabrika bat eraikitzen hasi ziren Pasaiaiko badiatik gertu eskuratutako lur batzuetan. Jaime Bruneti erositako lur horiek Almacenes de Lezo-Pasajes sozietatearenak izan ziren aurretik. Alabaina, Andrés Saez de Parayueloren eta Félix Gorosperen lurra eta padurako lurra ere eskuratu zituen.

Enpresa horrek 18.000 tona fosfato trikaltziko eta azido sulfuriko ekoizten zituen bere instalazioetan.

50eko hamarkadan, Aserraderos de Lezo eta Sociedad Navarra de Industrias enpresek ekoizpena handitzeko erabakia hartu zuten, eta ondorioz, obra berriak egin behar izan zituzten. 1952an, Felix Azpilikueta ingeniariak, Varaderos eta Almacenes de Lezo sozietateen emakida zaharrak baliatuz, 180 metro erantsi zizkion atrakalekuari 2.000 m² inguruko eremua osatzeko. Bi sozietateek Portuko Agintaritzari eman zioten lur eremu hori. Sozietate kimikoak hamar pabilioi eraiki zituen badiaren ondoan; horrek ematen digu nolabait enpresaren tamainaren berri. Bitxikeria gisa aipatuko dugu horietako pabilioi baten egitura metaliko batean, Groseko azoka zaharraren burdinurtuzko zutabeak eta zertxa metalikoak berrerabili zirela⁷⁸.

1957koa dugu Padurak eta Atrakalekua Saneatzeko Proiektua. Pasaiaiko badiaren hondoan lur paduratsuk zeuden, eta bertaraino iristen ziren errekatxo bat, eta, besteak beste, inguruko etxe batuetako ur beltzak husten zituzten lau tutueria edo estolderia. Hori dela eta, itsasbehera zegoenean, ur beltzak usteldu eta usain txarra zabaltzen zen. Haizeak nondik jotzen zuen, kiratsa gutxi-asko nabaritzen zen, baina arriskutsua zen bizilagunen osasunerako inondik ere. Padura horren zati bat Aserraderos de Lezo, S.A. enpresak erabiltzen zuen enborrak biltzeko. Izan ere, itsasgoran flotatzen zuten enborrak lokatzaren gainean geratzen ziren itsasbeheran.

Halaber, Sociedad Navarra de Industrias, S.A. enpresak lur gehiago behar zituen ekoizpena handitzeko. Padurara urak isurtzen zituen ubidea eta estolderia estali eta lurretan betelan sinple bat egin ez ezik, itsasontzien zama lanetako arazo konpondu nahi zuten. Hala, Agintaritzak 12 metroko kaia izango luke. Oinplano hautsi bat diseinatu zen, 110 eta 70 metroko luzera zuten bi lerrokadurek osatutakoa. Horrela, sakoneretan uniformetasun handia lortzean, ez zen apenas aldatzen kaiaren zeharkako profila.

Haatik, aipatutako bi enpresek ez zuten ia denborarik izan instalazio berriak erabiltzeko. Izan ere, Portuko Planak kai berriak eraiki nahi zituen 1968-1971.

⁷⁷ Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Artxibategia, P3-2 eta P3 -2B

⁷⁸ Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Artxibategia, P3-520, P3-52



Atxaren uharka eta ondoko egoitzak, 1952. urtean. Pasaia Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa: P3/520.

urteen artean. Trafiko eta erabilera indizeetatik abiatuta, portuak aurrera begira beharko zituen kaiak eta instalazioak kalkulatu ziren. Kaia zabaltzeko hiru aukera baino ez zeuden. Lehen a babeserako kanpoko kai mutur bat eta Puntetan edo Senekozuluan kanpoko kai bat eraikitzea zen, baina aukera hori oso garestia zenez, baztertu egin zen. Bigarren aukera Herrerako kaia luzatzea zen. Alabaina, lekua oso estua zen eta kalatu eskasekoa. Azkenean, Lezoko portualdea erabilitzea erabaki zen, non jada hasiak ziren kaiak eraikitzen zentral termikorako. Lan hauen xede nagusia zen kai berriak eraikitzea, Pasaiaiko portuak jasaten zuen trafiko handiari erantzuteko.



Lezoko kaiak eraikitzen.

Horretarako, azido sulfurikoa ekoizten zuen Industrias y Abonos de Navarra enpresa desjabetu eta eraitsi behar izan zen. Aserraderos de Lezo enpresaren hainbat lursail ere desjabetu behar izan ziren. Baita Real Compañía Asturiana de Minas lantegiak Oiartzun ibaiaren eskuinaldean okupatutakoak ere.

Behin lursailen arazoak konponduta, ministerioaren agindu baten bidez onartu zen Lezoko kaien aurreproiektua. Bi kai -bakoitza fase batean- eraikitzea proposatu zen: lehenak 845 metroko luzera izango zuen, eta bigarrenak 360 metroko luzera eta 80 metroko zabalera. Kaiak Herreran erabilitako parametroen arabera eraiki ziren.

Kai berriek muga egiten zuten Norteko trenbidearekin eta Lezoko etxeekin. Ahalik eta luzera handiena bilatzeaz gain, itsasontzien maniobra erraztu eta Oiartzun ibaiaren isurbidea oztopatzea saihestu nahi zen.

Hauek dira eraikitako azpiegiturak:

Kaiak: Lezo 1:298,40 m, Lezo 2:155,40 m

Lehen fasea: Lezo 3, 389,40 m, Lezo 4, 85 m, Lezo 5, 216 m, Oiartzun 1, 99,20 m, Oiartzun 2,107,00 m, Oiartzun 3, 50,50 m

Bigarren fasea: Oiartzun 1, 180 m, Oiartzun 2, 216 m, Oiartzun 4, 266 m, Oiartzun 5, 85 m.

Hona hemen kaien eta morruen zabalera: Lezoko kaia: 85 m, Oiartzungo kaia: 80 m, kaien arteko morrua: 80 m

Txatarra Lezo 1 kaira bideratzen zen, eta gainerako produktu siderometalurgi-koen, txapen, kableen, biribilen, totxoan, lingoteen, burdinen eta altzairuen zama lanak Lezo 2 eta Lezo 3 kaian egiten ziren. Lezo 3 kaiaren gainerako zatia eta Lezo 5 eta Oiartzun 2 kaiak hainbat salgai garraiatzeko erabiltzen ziren. Salgai gehienak ontziratu gabeak zirenez -gaur egun ere horrelakoak dira-, ez zen ez biltegiarik ez estalperik eraiki⁷⁹.

3.4 INDUSTRIALDEAK



Industrialdeak hasiberriak Lezoko landa eremuan. Lehen planoan, Iturrin poligonoa; atzerago, Sagasti industrialdea eta Ipintza poligonoa eraikitze lanetan (1961. Paisajes Españoles). *Lezoko Udala*.

⁷⁹ Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Artxibategia, 365. karpeta.

60ko hamarkadatik aurrera, Lezo leku aproposa bilakatu zen jarduera industrialak garatzeko. 1957an, jada, Lezok onartua zuen urtebete lehenago Isidro Setien Alberro arkitektoak sinatutako Urbanizazioko Plan Orokorra. Hala ere, urte batzuk beranduago, 1962an, industrialde berrien beharra bultzatuta, Lezoko Udalak Plan hori berriz aztertzea erabaki zuen. Berrikuspena egiteaz arkitekto bera arduratu zen. Memoriaren arabera, indarreko araudiak galarazi egiten zuen industrialdeetako industria lurrak eskuratzea. 1960an, Lezok 3.296 biztanle zituen eta 25 industria establezimendu eta 2 harrobi. Industria establezimenduetan 473 langile aritzen ziren, eta harrobietan 15. Gainera, lezoar batzuek Pasaiaiko portuko instalazioetan eta Errenteriako industrigunean lan egiten zuten.

Gipuzkoan industria lurrak urriak zirela kontuan hartuta eta Pasaiaiko Portua hurbil zegoela ikusirik, kanpoko industrialariek Lezoko Plan Orokorren arabera landa lurtzat jotako lurretan kokatzeko baimenak eskatzen hasi ziren. Hortaz, herriaren hazkundera sustatzeko industria eta bizitegi gune berriak ezarri eta antolatu nahi ziren.

Plan Orokorren berrazterketan, aurreko Planaren planteamenduei buruzko hausnarketa egin zen. Lehendik zeuden industrialdeak berraztertu ziren hobetzeko asmoz, eta industria eta bizitegi gune berriak proposatu ziren, betiere plan berriaren garapen organiko egokia bilatuz. Zonabanatze berria ezarri, aurreko industrialdeekin jarraitu eta beste industrialde batzuk zehaztu ziren.

Hauek dira bizitegi guneen zenbakiak: 104, 105, 106, 109, 114; eta industria guneenak, berriz: 101-6, 102, 103, 107, 108, 110, 111 eta 112. Planaren helburua 6.000 etxebizitza inguru eraikitzea zen, eskualdeko -bereziki Errenteriako-etxebizitza beharrei zuzendutakoak kontuan hartu gabe. Dena den, Planak berak aitortu zuen 3.750 etxebizitza baino ezin izango zirela berehala erabili, eta 16.000 biztanle aurreikusi zituen.

Industrialdeei dagokienez, lurzorua optimizatzeko lehendik zeudenak berrantolatu eta berriak egin nahi ziren. Industrialdeek, jarduera osagarriak barne, 6.500 lanpostu sortuko lituzketela, eta ondorioz, Lezok 30.000 biztanle inguru izango lituzkeela kalkulatu zen.

Hala ere, Lezoko lurzorua eta industrialdeak berrantolatu zirenean, enpresa batzuk –Croma, SA, esaterako- Zubitxo ondoan kokatu ziren, Aserraderos de Lezo enpresaren instalazioen alboan. Croma lantegiak alumina sulfatoa egiten zuen, batez ere papergintzan malutzaile edo koagulatzaile gisa ura arazteko. Substantzia hori solidoa edo likidoa izan zitekeen, eta konzentrazio eta granulometria ezberdinekoa.

1965ean, Lezoko udalak eskatuta, azterketa sakon bat egin zen enpresa horren inguruan, haren jarduera osasungaitza ote zen jakiteko. Zuzendaritzaren esanetan, enpresak ez omen zuen ez hondakin ez lurrun arriskutsurik sortzen.

1969ko martxoko espedienteak, ordea, kaltegarritzat jo zuen enpresaren jardue-
ra, eta kautelazko neurri zorrotzak ezarri ziren⁸⁰.

Azkenean, 1965eko apirilaren 2an, Arkitekturako eta Hirigintzako Batzorde
Probintzialak Lezoko Hiri Ordenazioko Plan Orokorra onartu zuen. Eta horrek,
oro har, zonifikazio orokorra berriz planteatzea zekarren. Industrialdeak hirigune-
tik kanpo kokatuko ziren, eta bizitegi guneak haize nagusien norabidearen kon-
tra. Bi guneak zerrenda berde batek banatuko zituen. Azkenik, indarreko
Lurzoruaren Legearen arabera, Lezo poligonotan banatuta geratu zen⁸¹.

Bistan denez, plan hauek 60ko hamarkadako ikusmolde desarrollistaren ondo-
rio ziren: boom industrialaren nagusi, ingurumen eta ondare parametroak eta
balioak kontuan hartu gabe. Lezoko industrialdeen egungo antolaketak Plan
horietan oinarritzen da. Guztiarekin ere, XX. mendearen bigarren erdiko arkitek-
turaren adibide interesgarriak daude industrialde horietan. Arkitektura industrial
iragankorra izan arren, bada oraindik aipatzeko moduko eraikinik. Jarraian,
industrialde horietako eraikinik nabarmenenak aztertuko ditugu.



CROMA S.A., Aserradero de Lezo S.A. (1959. Paisajes Españoles). Lezoko Udala.

⁸⁰ LUA, Hirigintza 569-8

⁸¹ LUA, Hirigintza 1178-09

GAINTXURIZKETA INDUSTRIALDEA. 6. INDUSTRIALDEA



Baserriak eta industrialdeak ez ezik, Gaintxurizketako maldek bestelako eraikinak ezagutu dituzte ere bai. Esate baterako, Francok "Centro de Resistencia" gisa bataiatutako bunker-multzoa. Argazkian, Larremungoa.

Hirigunetik ekialdera eta Lezo-Gaintxurizketa errepidetik iparraldera dago; hirigunetik gertuen dagoen industrialdea da. Horrez gain, martxan jarri zen lehena izan zen.

FUNDICIONES LEZO, S.A/ COINI, S.A.

Fundiciones LEZO, S.A. enpresa 1957an kokatu zen, Gaintxurizketara zihoan errepedearen ondoko nabe batean, Lezoko hirigunetik gertu.

Behe maiztasuneko labe elektriko bat eta arkuzko labe elektriko trifasiko bat zituen. Halaber hareak prestatzeko beharrezkoa zen guztia zuen: hareak prestatzeko instalazio bat, bahe bibrakorra, arrak prestatzeko harea nahasgailua, arrak egiteko makina bat, lehortzeko labe bat, arrak desmoldatzeko bi makina, moldatzeko zenbait makina, astinduz moldekatzeko HPL2 motako lau makina, BT motako inbertsoredun makina bat, bizarrak kentzeko instalazio bat eta hondar zurrusta kabina bat⁸².

Ondoren, enpresa horren instalazioak Construcciones Industriales e Internacionales, S.A. –COINI, S.A.- enpresak berrerabili zituen. Horretarako, 1972an, J. A. Garmendia Zabala perituak beharrezkoak ziren aldaketak egin zituen⁸³.

⁸²LUA, Hirigintza 556-23

⁸³ LUA, Hirigintza 556-23

Jatorrizko eraikina ezkutatuta geratu da enpresak egindako zabalkuntzen eta birmoldaketan ondorioz. Batetik, bulegoen eraikina zegoen, eta bestetik, eraikin horrekiko perpendikular, ganga formako produkzio nabe bat. Lehenak beheko solairua eta bi solairu ditu, eta ageriko hormigoizko egitura, pantaila fatxada moduan; bigarrenak argizulo jarraitua du. Ondoren eraikitako eranskinak estali egin dute multzoa. Eranskin horien artean nabarmentzen dira mendebaldean dauden zerra hortzen formako estalkiak. 50eko hamarkadako arkitektura industrialaren adibide interesgarria da.

Esteban Orbegozo, S.A.

Industrialde hau aukeratu zuen ere Esteban Orbegozo, S.A. enpresak. Berez Zarauzkoa zen arren, enpresa horrek Zumarragan zabaldu zuen lehen fabrika 40ko hamarkadan. Hara joan zen komunikabide onak erakarrita. Antzeko zerbait gertatu zen 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hamarkadaren hasieran; siderurgiaren gorakada aprobetxatuz, Portutik hurbil egoteak zituen abantailak aztertu eta Lezon instalazio berri bat irekitzea erabaki zuenean. Alabaina, egoera ekonomikoak ez zion lagundu. Eta sektoreak jasandako gehiegizko produkzio ahalmenaren ondorioz, itxi egin behar izan zuen.

60ko hamarkadaren bukaeran, lau nabek osatutako pabilioia eraiki zen. Lezo-Gaintxurizketa errepidearekiko paralelo, Eztainuztatzeko nabea, ekipo elektriko-en nabea, hotzeko ijezketa makinaren nabea eta beroko ijezketa makinaren nabea zeuden. Lau nabe hauei bosgarren bat, desugerketa nabea, erantsi zitzaion iparretik hegora.

Nabe hori 1971n zabaldu zen. Hau da, antzeko nabe bat atxiki zioten lehen nabeari. Lau nabe horiek, jada eraikitakoen luzapenak dira, eta bata bestearen ondoan daude jarrita. Lehen nabean totxo lauak ijezten ziren, bigarrenean eta hirugarrenean bandak hotzean ijezten ziren, eta laugarrenean bukatutako produktuen biltegia zegoen.

Horrela, zubi garabiak nabe zaharretatik berrietara sar zitezkeen. Eraikinaren egitura osoa metalikoa da, eta hormak adreiluzkoak. IDOM ingeniariak parte hartu zuen eraikuntzan. Hauek izan ziren eraikuntza enpresak: Bilboko Sociedad Anónima Basconia, Mieresko Fábrica Dálicas eta Madrilgo Mundus Estructuras Metálicas, S.A.. Egitura metalikoak kontragoihauek, zubi garabietarako errail hauek eta aurreko nahiz alboko itxiturek osatzen dituzte. Nabean teiltua kontragoihaueetan bermatutako uralitarekin estali zen. Aurreko eta alboko paretak adreiluzkoak dira erdiraino.

1970ekoak dira altzairua ekoizteko labe elektrikoak zituzten nabeak. IDOM ingeniariak arduratu zen proiektuaz eta Luis Maria Agirrek sinatu zuen. Nabeak gainerako instalazioak aprobetxatuz eraiki ziren. Labea 50 t galdatzeko gai zen.



Esteban Orbegozo S.A. eta Fundiciones Lezo S.A. (1969. Paisajes Españoles). Egun Algeposeta eta Coini direnak. *Lezoko Udala*.

Era berean, txatarrerako nabea, labeen nabea eta galdaketarako nabea eraiki ziren. Estalki osoa fibrozementuzkoa da, txapazko zati txiki bat izan ezik. Alboko hormak bistako adreiluzkoak dira⁸⁴.

80ko hamarkadan Orbegozo (Aceros Corrugados, S.A.) enpresa itxi zen, industria birmoldaketak zuzenean eragin baitzion. Enpresaren egoera zaila eta 313 langileen kezka nabaria zen jada 1986an⁸⁵.

Egun, Orbegozo enpresaren ia instalazio guztiak kontserbatzen dira. Ekoizpen nabe zaharrak Algeposak eskuratu ditu. Orain, ordea, ez da ingeniarien arkitektura lan ikaragarria ikusten, txapa metalikoz estalita baitaude. Dena den, arkitektura hori oraindik atzeman daiteke nabeen funtzionaltasunean eta dekorazio elementuen gabezia, egitura metalikoa eta adreiluzko hormak baino ez baitituzte. Eraikin osagarriak ere ikus daitezke, hala nola, jantokia, ageriko hormigoizko egitura eta adreiluzko paretak dituen. Urrutiago, enpresaren ur depositua dago.

Eraikin eta nabe horiek hainbat erabilerari erantzuteko gai den arkitektura mota horren ahalmen eta aldakortasun handiaren adibide dira, eta 60ko hamarkadako industrializazio basati hura ekartzen digute gogora.

⁸⁴ LUA, 67.1

⁸⁵ A.J.L.: "Lezon Orbegozo ixteko zorian". *Aske. Lezoko aldizkaria*. 3. zk. 1986ko ekaina. 29-30. or.

Celaya, S.A. Persifal.

Gaintzurizketarako errepidearen albo batean, Lezoko hirigunetik gertu, Celaya, S.A. enpresako zuzendari gerente Emilio Celaya Goyak pabilioi batzuk eraiki zituen bere lurretan 1964an. Francisco Miner eta Fidel Barrena ingeniariak arduratu ziren proiektua idazteaz. Celaya, S.A. enpresa Batinorm-Paris eraikuntza metalikoen fabrikazio lizentzien jabea zen, eta Industria Sidero-Metalurgikoen Zuzendari Nagusiak 2125. zenbakiarekin baimendutako hitzarmen bat sinatu zuen aipatutako enpresarekin.

Hala, bi nabe hauek eraiki ziren Batinorm lizentziapean: Bata, luzea eta angeluzuzena, 84 metroko luzera, 15 metroko zabalera eta teilatuaren oinarriaraino 9,20 metroko altuera zuena. Horri atxikita, beste nabe bat, hau ere luzea eta angeluzuzena, baina 72 metroko luzera, 15 metroko zabalera eta 9,29 metroko altuera zuen.

Nabeak estaltzeko, kontragoiabeetan bermatutako uralita erabili zen. Alboko eta aurreko fatxadak erdiraino itxi ziren adreiluarekin, leihateetarako baoak izan ezik.

Hormigoi armatuzko zimenduak oso egokiak dira erresistentziari dagokionez; hala, burdinarekin ainguratu ziren garabien kargak eta bultzadak jasan behar zituzten zutabeetan⁸⁶.



Minkura baserria eta Persifaleko zinbria. (1959. Paisajes Españoles). *Lezoko Udala*.

⁸⁶ LUA, Hirigintza 4-30

IPINTZA INDUSTRIALDEA. 110. INDUSTRIALDEA

Lezo eta Gaintxurizketa lotzen dituen errepidean dago, hegoaldean, eta Aserraderos de Lezo enpresan du jatorria.

Aserradero de Lezo, S.A.

Enpresa hau, hasiera batean, portuan kokatu zen. Alabaina, lurren eta instalazioen beharrak bultzatuta, Zubitxon eta Ipintza industrialdean ere eraiki zituen pabilioiak.

Horren harira, 1954an jada, enpresa horrek baimena eskatu zion Lezoko Udalari Oriotarra tabernaren atzeko lursailean zur biltegi bat eraikitzeko. Lursail hori Bonifacio Pagolari eta Sociedad Navarra de Industrias enpresari erosi zien. Ignacio Villar industri ingeniaria arduratu zen proiektua idazteaz. Eraikin xumea zen, eta karga murruak, silarrixkako behealdea eta zertxa metalikoan bermatutako bi isurkiko estalkia zituen⁸⁷.

1960an, Zubitxoko Guittet pintura fabrika zaharrea zuten pabilioiak zabaltzeko baimena eskatu zuen, bere jardueraren mugimenduari eta bolumenari egokitzeko aldera. Proiektuak zur indigenak eta kolonialak eta atzerriko zurak lehertzeko pabilioi bat aurreikusten zuen. Oraingoan, Eugenio Villar Mugika ingeniariak idatzi zuen proiektua. Eraikin erabat industrialak zen, eta espazio zabal eta eremu estalian beharrei erantzuten zien; aireztapenak eta higroskopikotasunak paper garrantzitsua jokatzen zuten beran. Erdiko nabe nagusiak hamar hormarte zituen, eta orobat *polanceau* motako zertxa metalikoak eta hormigoi armatuzko zutabeak. Horrez gain, bi eraikin atxiki zituen, biak ala biak isurki bakarreko estalkidunak. Eraikin horiek hormigoi armatuzko kanpo sendogarriak zituzten iparraldean, eta hormigoi masa trinkoz egindako horma hegoaldean⁸⁸.

1970ean, Lezoko itsasertzeko kaiak antolatzeko lanen ondorioz, zerrategiaren ondoan aldi baterako okupatzen zuten 3.310 metro koadroko eremua hustu behar izan zuten. Nahitaezko desjabetze hori dela eta, enpresak baimena eskatu zuen Ipintzan zuten lurretan zerrategi berria eraikitzeko. Udalak erantzun zion aipatutako 118. industrialdea landa lurra zela. Hala ere, Probintzi Ordezkaritzak baimendu egin zuen zerratokiaren eraikuntza, eskatutako erabilerak finkaren kalifikazioa aldatzen ez zuela eta landa lurretan aurreikusitako erabileren artean zegoela argudiatuta. Hori bai, eraikuntzaren tamainak eta itxurak bat etorri behar zuten inguruarekin. Udalak industrialdea landa lurra zela eta urbanizatu gabe zegoela azpimarratu zuen. Gainera, aurreproiektua ez zen egokitzen industrialdea antolatzeko plan partzialean adierazitako partzelaziora, eta, ondorioz, lanak gelditu egin zituzten. Enrique Busto Escalante industri ingeniariak 1970ean izen-

⁸⁷ LUA, Hirigintza 664-32

⁸⁸ LUA, Hirigintza 3-60

petutako proiektua zen. Proiektuak nabe bakarra aurreikusten zuen, eta zimentatze ardatzen arteko azalera 15 m bider 60 m-koa zen. Aipatutako arkupeek, estalkiari ez ezik, 12 tonako garabi baterako hormigoiko armatuzko errail habeei ere eusten zieten. Aurrealdean 6 metroko hegada zuen eta 2 metrokoa gainerako aldeetan.

1979an, Ipintzan, 118. industrialdean, 50.000 metro koadroko eremua hartzen zuten, eta aurrekoarekin muga egiten zuen 110. industrialdean, berriz, 28.000 metro koadroko eremua. Hasiera batean, bi pabilioiko nabe bat eraiki zen industrialdean, eta zerratoki bat baserrialdean, Bustos ingeniariaren proiektuaren arabera. Eta 1979an instalazioak zabaltzeko lanak egiteko baimena eskatu zuten⁸⁹.

1988an, Aserraderos de Lezo enpresaren lekukoa hartu zuen Acha y Zubizarreta, S.A. enpresak Zubitxoko pabilioia ordezkatu behar izan zuen, zona hori industria lurzorua izatetik bizitegitarako lurzoru izatera igaro baitzen. Alabaina, ez zuten aprobetxamendua galtzeko asmorik. Biltegi bat behar zuten, gordetzeko iristear zegoen pinu errusiarra (9.500 m³) eta garai hartan kanpoan uzten ziren ipar pinu, oregon pinu, teka, zedro eta haritz sortak.

Jose Maria Garmendia Iribar izan zen arkitektoa, eta 1989an Acha y Zubizarreta, S.A. enpresak baimena eskatu zuen 110. industrialdean nabe berria eraikitzeko⁹⁰.



Aserradero de Lezo S.A. eta Parayueloren egoitzak; baita Andreone etxea ere. (1959. Paisajes Españoles). Lezoko Udala.

⁸⁹ LUA, Hirigintza 10-2; 520-01;309-17

⁹⁰ LUA, Hirigintza 73.1

SAGASTI INDUSTRIALDEA. 103. INDUSTRIALDEA

103. industrialdea Lezo-Gaintxurizketa errepidean dago, iparreko ertzean. 1967. urteko Plan Partzialaren ondorioz, industrialde hori birpartzelatu zuten. Alabaina, Arau Subsidiarioetan oinarrituta, 1978. urtera arte ez zuten modu xehatuan ordenatu⁹¹. Hiri lurzoru industrial gisa sailkatu zuten. Garai hartan jada baziren hainbat pabilioi, azalera eraikigarriaren %50 osatu ez arren, finkatuta zeudenak.

Irurzun eta Eguzkialde baserriak eraitsi, eta haien lurretan industrialde berria eraiki zen. Industrialdeak honakoak ditu mugakide: hegoaldean, Lezo eta Gaintxurizketa lotzen dituen errepidea; ekialdean, Ariete ubidea eta mendebaldean, 102. industrialdea.

103. industrialdean, hainbat enpresa ezartzen joan ziren 50eko hamarkadatik aurrera. Jarraian, enpresa eta eraikin garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

Jiulme pabilioia

103. industrialdeko 3. lursailean eraikia, egun Stop Iberica izenarekin ezagutzen da; enpresa hori 1974an kokatu zen aipatutako pabilioian⁹².

1958an Stop Ibérica enpresa Amara Gainean zegoen, eta ibilgailu industriara bideratutako kautxuzko piezak eta osagarriak egiten zituen balazta hidraulikoetarako. 1974an, Lezora lekualdatu zen, Jiulme pabilioiko lehen solairuan alokatutako lokal batera.

Pabilioi interesgarria da, bulegoak eta nabe atxiki bat duena. Eraikin bakar gisa eraikita, bloke paralelepipedo itxia osatzen du. Fatxadetan hainbat bao mota ikus

daitezke. Alboko fatxadetan, hormigoizko pilastrek fatxada osoa hartzen dute, baoak inguratuz. Fatxada nagusia monumentala da, eta 50eko eta 60ko hamarkadetako arkitekturaren estetika berezia gogorarazten du.

Erdigunean, bao txikiak horizontalki lerrotatuak eta moldura batez inguratuak ageri dira, eta alboetan bao bertikal jarraituek fatxada osoa hartzen dute. Fatxada antolaketa honek.



Jiulme enpresa zaharra.

⁹¹ LUA, Hirigintza 768.2

⁹² LUA, Hirigintza 555-12

RICO⁹³

Enpresa horren nabea ere 103. industrialdean dago. M.A. Goñi Romero eta F.J. Sarobe Pueyo izan ziren 60ko hamarkadan proiektuaz arduratu ziren arkitektoak. Nabea Iparretik Hegora zabalitzen da, egitura metalikoa duten hiru atariren bidez. Atariak 16 metroko argia dute, eta zutabeen arteko tarteak 4,65 metrokoa da. Aipatutako egitura 7,50 metroko altuera duten hormigoizko armatuzko atarien gainean bermatzen da. Zutabeen arteko tarteak 4,65 metrokoa da inguruko atarietan, eta 9,30 metrokoa barruko atarietan, eraikina barrutik ahalik eta gardenen izateko. Proiektuaren arabera, atariak gai ziren 24.000 tonako zubi-garabiei eusteko. Alboetako paretak hormigoizko blokeekin daude eginak, eta zokalo modura ezarritako txarrantxa habeak dituzte euskarri. Iparraldeko partean, lursailaren forma dela eta, atzeraemangune txiki batzuk egin ziren bulegoak kokatzeko. Horretarako, zapata habexkan aurrefabrikatutako forjatuak eta hormigoizko armatuzko atariak erabili ziren. Hormak bistako adreiluzkoak dira, eta arotzeria, berriz, metalikoa⁹⁴. Nabe hauetan Ramón Vizcaino, S.A. enpresa ere kokatu zen. Egun, Itsas Agentziaren instalazioak daude bertan.

Sociedad Industrias y Abonos de Navarra⁹⁵

Lehen aipatu dugun moduan, enpresa hori 1940an kokatu zen Lezon, azido sulfuriko kontzentratua egiteko. 60ko hamarkadan, produktu horren kontsumoak gora egin zuela ikusirik, instalazioak zabalteza erabaki zuen. Hasieran, jakina, enpresak portuan jarraitu nahi izan zuen. Alabaina, portuko agintariak bertako kaiak zabaldu eta kai berri bat eraiki nahi zuten, eta, horretarako, lurra desjabetu zituzten. Enpresak, orduan, beste kokaleku bat bilatu behar izan zuen. Bestalde, enpresaren instalazio zaharrak oso gertu zeuden hirigunetik, eta ez zuten industria mota horietarako finkatutako araudia betetzen. Araudi horren arabera, tarte jakin bat utzi behar zen horrelako instalazioen eta hirigunearen artean.

Horiek horrela, enpresaren zuzendaritzak bere ekoizpena 103. industrialdera eramatea erabaki zuen. 1964ko Lezoko Plan Orokorra industria astunera bideratu zuen 103. industrialdea. Garai hartako legediak eskatutako gutxienezko distantzia errespetatzeaz gain, portutik hurbil zegoen, eta hori ezinbestekoa zen lehengaiak eskuratzeko eta ekoizpena igortzeko.

Azido sulfurikoko fabrikak eraikitzen zituzten hainbat enpresarekin hitz egin ondoren, Frankfurtoko (Alemania) Lurgi etxea aukeratu zen proiektua gauzatzeko. Azido sulfurikoa egiteko, Bayer etxearen kontaktu bikoitza izeneko prozedura modernoa erabili zen.

⁹³ LUA, Hirigintza 20.2⁹⁴ LUA, Hirigintza 2.5.3⁹⁵ LUA, Hirigintza 655-07

Inguruko jendeak, ordea, berehala agertu zuen kexa. Lezoko eta Oiartzungo berrogeita hamar nekazarik instalazioaren aurka egin, eta Gipuzkoako Buruzagitza Agronomikoaren laguntza eskatu zuten. Buruzagitzaaren txostenak aipatutako industriaren osasungaitzasuna baieztatu zuen⁹⁶.

Azkenean, enpresa horren nabeak eraitsi egin ziren, eta egun Ogiberri enpresaren pabilioiak daude bertan.

Accesorios Elytra⁹⁷

Enpresa horrek Herrerako San Luis plazan eman zituen lehen pausoak 1963an. 1969an 103. industrialdeko 1. etxadian jarduteko baimena eskatu zuen, eta harrezkero hortxe dago. Elikadura eta mantenurako osagarriak egiten zituen, eta halaber kableak biribilkatzeko makina automatikoak eta kableak eramateko orgak. Hiru solairuko pabilioia da, hormigoi armatuzkoa. Lehen solairuan tailerra zegoen, bigarren solairuan, besteak beste, material arinen biltegia eta hirugarren solairuan bulegoak. Paretak talotxatu eta zarpiatutako hormigoizko plaka handiekin daude eginak.

Interal, S.A.

Elikagaien industriari lotuta, 80ko hamarkadaren aurretik sortu zen. Egun jatorrizko bulegoen eraikina eta biltegia ikus daitezke. Beheko solairuan anbulantzia parke bat dago eta eraikina handitzeko lanak egin dira atzeko fatxadan.

Jatorrizko eraikinetik egun bulegoen eraikina eta biltegia baino ez dira gelditu. Bulegoen eraikinak atzeraemangune interesgarri bat du, multzoari mugikortasuna ematen diona. Bi atalek antzeko eraikuntza ezaugarriak dituzte. Bi solairu ditu, eta hormigoizko egitura, adreiluzko hormak eta estalki zuzena. Barruko argiztapen naturala murrueetatik dator, fatxada nagusian eta eskuinaldeko fatxadan dauden baoetatik hain zuzen.

ITURRIN INDUSTRIALDEA. 108. INDUSTRIALDEA

108. industrialdea ere Lezo eta Gaintxurizketa lotzen dituen errepidean dago. Iparretik hegora hedatzen den ibar batean dago, eta bertatik Iturrin eta Itsua ubideak igarotzen dira. Eredu hori antolatzeko Plan Partzialaren helburua sektorearen hirigintzako ezaugarriak zehaztea zen. Horrela, behin industria arineko gune gisa kalifikatu zutenean, MRM kautxu fabrika kokatu zen. Bide batek Madril eta Irun lotzen dituen errepidera garamatza, RENFEren eta Topoaren trenbideen azpitik. Baita Iturrin eta Itsua baserrietara ere.

⁹⁶ LUA, 323-15

⁹⁷ LUA, 555-24

1966an, 108. industrialdearen lurra enpresa eta pertsona hauen esku zeuden: Caucho Especial MRM, LESOL, S.A., Juan Regino Salaverria, Dominica Olaskoaga eta Maria Josefa Isasa, Maria Gorostidi Zubeldia eta Dolores Laffite. Urte hartan, hain zuzen ere, enkargatu zioten Jose A. Ponteri industrialdea antolatzeke proiektuaren idazketa⁹⁸. Plan horrek industrialdearen araudia finkatu zuen. Lursail osoa okupa zitekeen, eta gehienezko altuerak ezin zuen zortzi metrotik gorakoa izan.

108. industrialdeko eraikinik garrantzitsuenak jarraian aztertuko ditugunak dira.

CAUCHO ESPECIAL MRM, S.A.

Enpresa hau industrialdean kokatu zen lehenetarikoa izan zen. 30eko hamarkadaz geroztik Donostiako Intxaurren auzoan zegoen. Beranduago, 1957an, Lezora lekualdatu zen. Eraikin berriaren proiektua J. A. Ponte arkitektoarena izan zen. 1964an, instalazioak zabaldu ziren, eta hiru nabe gehiago erantsi. Gaur egun hainbat erabilera ditu eraikin berak. Oinplano angeluzuzena du, eta hormigoizko egitura eta adreiluzko hormak. Egitura metalikoaren gainean, berriz, fibrozementuzko teilatua du⁹⁹. Azken banaketa eta jarduera arkitektonikoak gorabehera, eraikin interesgarria eta funtzionala da. Fatxada nagusian, isurki bakarreko teilatuaren hegala sostengatzen duten itzalkiak ikus ditzakegu. Itzalki hauek 50eko hamarkadako arkitektura industrialaren ukitu modernoaren ematen dute.

Iturrin eraikina

1975ean, Benito Zuriarrain Goiburuk baimena eskatu zuen Vicente Orbe Inies eta Jose Luis Pla Perez arkitektoek diseinatutako nabe bat eraikitzeke. Malda handi batean eraiki zuten; hori dela eta, nabearen atzealdea kota altuago batean dago. Aldea gaintzeko, alboko fatxadaren hormarteak atzeraeramanak daude fatxada lerroarekiko, eraikinari dinamismoa ematearren. Shed edo zerra hortzen formako hormarte nabe bat da, eta hiru solairu, hormigoizko armatuzko egitura eta 7,50 metroko argia duten hormarteak ditu. Goiko solairuaren egitura metalikoa da, eta estalkiak 7,50 metroko argia duten hormarteak ditu. Horrez gain, Robertson motako txapa metaliko uhindu batez estalita dago. Hormak bistako adreiluzkoak dira, goialdean izan ezik; bertan, txapa metalikoa erabili da.

Oinplano angeluzuzenekoa da, eta hegoaldeko maldaren ondorioz forma mailakatu du. 60ko hamarkadaren bukaerako eta 70eko hamarkadaren hasierako industria-arkitekturaren tipologia honek arrakasta handia izan zuen 80ko hamarkadan ugaritu ziren industrialdeetan. Arkitektura guztiz estandarizatu da, materialari zein artikulazio espazialari dagokionez. Edukiontzia handi baten antzera,

⁹⁸ LUA, Hirigintza 522-2

⁹⁹ LUA, Hirigintza 2.13

gutxieneko elektrizitate eta saneamendu azpiegitura du, eta barruan ez du inolako zatiketarik, jabeek eta maizterrek, beren beharren arabera, nahierara banatzeko. Arkitektura guztiz espekulatiboa da, 70eko hamarkadan jada finkatu baitzuten XX. mendearen bukaeran eta XXI. mendearen hasieran eraikitako industrialdeen industria-arkitekturaren ildo nagusiak¹⁰⁰.

Iturrin eraikinaren ondoan, 1. eraikina dago, kontzeptualki Iturrin eraikinaren ezaugarri arkitektoniko eta funtzional berak dituena.



Lesol S.A. eta Iturrin eraikina, XX. mendeko arkitektura industrial berriaren erakusleak Lezon. (1978. Paisajes Españoles). *Lezoko Udala*.

LESOL, S.A

1974an, Antonio Fernández Martín industria ingeniariak¹⁰¹, Joaquín Solorzano Matheuk eskatuta, industria eraikin bat diseinatu zuen LESOL, S.L. enpresarentzat. Horretarako, 108. industrialdeko 3-C lursaila aukeratu zuen. 2.428 metro koadroko eraikina da; etxabeaz gain, solairu bakarra du. Hiru nabe ditu. Horietako baten lehen solairuan bulegoak eta zerbitzuak daude, eta beheko solairuan, berriz, zerbitzuak, atezaindegia eta sarrera. Hormigoi armatuzko zuta-

¹⁰⁰ LUA, Hirigintza 2.5.3. Exp 25.1

¹⁰¹ LUA, Hirigintza 2.5.3; 22-6

beak ditu eta orobat armadura triangeluarrak, zerra hortzen formako estalkia eta argizuloak. Fibrozementuzko estalkiak habexka metalikoak ditu euskarri eta beira zuntzeko geruza baten bidez dago isolatuta. Bulegoak iragazgaizteko, berriz, asfaltozko geruza batzuk jarri dira. Hormak adreilu hutsezkoak dira erdiraino, eta talotxatuta, zarpiatuta eta pintatuta daude kanpotik. Hormatalen goialdean, kristal bikoitza duten burdinazko leihateak ditu. Egun, eraikin honetan Layme enpresa dago.

Inguruko eraikuntzak direla-eta erdi ezkutatuta egon arren, industria eraikin interesgarria da. Bulegoen eta zerbitzuen bi solairuko nabeari atxikita, ekoizpenerako nabeak daude, zerra hortzen formako estalkia dutenak. Etxabea eta beste solairu bat ditu. Hormigoizko egitura du, eta paretak zarpiatutako adreiluekin eginak daude. Fatxadan, bao jarraituen moduan antolatutako bao lerroak eta etxabeko ate handiak ditu. Eraikin erabat funtzionala da, materialaren eta egituraren aldetik.

Gaintzurizketara doan errepidearen ondoan, Hornos Eléctricos Salva enpresa dago. Enpresa garrantzitsu hori 40ko hamarkadaren bukaeran sortu zen. Elikagaien industriarako makinak egiten zituen, eta RENFERen instalazioen aurrean zegoen.

Bi eraikin beregainek osatzen zuten: bulegoen eraikinak batetik, eta bestetik ekoizpen nabeak, bi fasetan eraikitakoak. 1973an, Juan Jose Uranga Etxabe arkitektoak enpresa zabaltzeko proiektua egin zuen¹⁰².

Enpresatik hurbil, Guiasa fabrika zegoen. Eraikin horrek aldaketa handiak jasan zituen, eta gaur egun, Muebles Rey enpresaren instalazioak daude bertan.

Bestalde, ezin dugu ahaztu Pasaiako Badian dudarik gabe oso garrantzitsua den instalazio bat: Zentral Termikoa. Pedro Martínez Artola bideetako ingeniariak diseinatu zuen 1962an, eta bi urte beranduago, Erroteta Hondartzan instalatzeko baimena eskuratu zuen. Jarraian, Iberduero, S.A. enpresa hidroelektrikoak, Pasaiako Badian Zentral Termiko bat eraikitzeko Ministerioak emandako baime-nari esker, aipatutako proiektuak aurreikusten zituen lanak egin zituen. Lan horien artean, besteak beste, zentrala hornitzeko ur eta fuel-olio deposituen eraikuntza zegoen. 1964an, enpresa hidroelektrikoak baimena eskatu zuen Lezoko lurretan ur depositu bat eta bost fuel-olio depositu eraikitzeko. Udalak ukatu egin zuen zentral termikoaren instalazio osagarriak eraikitzeko eskaera, landa lurra zela eta zentrala eraikitzeko baimenik aurkeztu ez zutela argudiatuta. Konpainia elektrikoak erantzun zuen Obra Publikoko Ministerioaren aginduaren bidez emandako baimena zuela. Udalak ez zuen bere jarrera aldatu, baina enpresa hidroelektrikoak udalaren erabakiari muzin egin eta, bistan denez, ur eta fuel-olio deposituak eraiki egin zituen¹⁰³.

¹⁰² LUA, Hirigintza 22-10

¹⁰³ LUA, Hirigintza 4-10

Eta orduz geroztik hortxe daude, Lezo eta Pasaia lotzen dituen errepidearen ondoan, zentral termikoaren aurrean. Landarediaren artean erdi ezkutatuta egon arren, arretaz begiratzen badugu, hortxe ikusiko dugu eremu zirraragarri hori.



Zentral termikoaren fuel biltegiak eraikitzen. (1967. Paisajes Españoles). *Lezoko Udala*.

3.5 HIRI GARAPEN GARAIKIDEA

Lezoko herriguneak ez zuen aldaketa handirik jasan XX. mendearen hasierara arte. Lezoko hirigintzaren lehen aldaketak Ramon Kortazar arkitektoaren eta Gumersindo Bireben ingeniariaren eskutik etorri ziren. Biak ala biak izan baitziren Lezok hurrengo mendeari aurre egiteko behar zituen azpiegitura eta eraikinen proiektuen arduradunak. XIX. mendearen amaieratik XX.aren bigarren hamarkadara arte hainbat obra egin ziren, hala nola urak bideratzea, edota ikuztegiak edo labaderoak, komun publikoak¹⁰⁴, hiltegia, eskolak eta hilerri berria eraikitzea.

Esate baterako, 1907an, Ramon Kortazarrek Lezoko kanposantu berriaren proiektua egin zuen¹⁰⁵. Hilerri zaharra badiaren ondoan zegoen, Alzateko lursailen aurrean. Eraikin berria egiteko, 1888ko Errege Agindua kontuan hartu behar izan zuen, eta, horretarako, herrigunetik 500 metrora zeuden Mariposaenea izeneko lursailak aukeratu zituzten.¹⁰⁶

1926an herriko hiltegiaren txanda izan zen; ordura arte Naizenea izeneko etxean zegoen¹⁰⁷. Eta urte horretan bertan egin zuten neskato eta mutikoen eskolaren proiektua, eskola zaharrak “osasunerako kaltegarriak ez ezik, antihigienikoak baitziren”; horrenbestez, “eraikin berri eta ezin ederrago bat egin zuten; bi gela zituen eraikinak, bat mutilentzat eta beste bat nesKentzat, eta denetatik zuen, konketak, komunak eta guzti”. Horrez gain, proiektuak jolastokia ere hartzen zuen kontuan¹⁰⁸. Hurrengo urtean, berriz, alondegiaren eta azokaren proiektua egin zen. Eraikin hori plazan dago, Paskual eta Zabala-enea etheen artean, eta bi eraikin horiekin batera oso multzo interesgarria osatzen du¹⁰⁹. Hain zuzen ere, proiektua bi etheen arteko tarte estura egokitu zen, eta bi eraikinen fatxadetako lerro nagusiei jarraiki egin zen, joera historizista nabarmenduz.

¹⁰⁴ LUA, D-3-1-6

¹⁰⁵ LUA, D-3-1-7


¹⁰⁶ LUA, D-3-1-4 (1904-1909)

¹⁰⁷ AGG-GAO, JD S 960,21


¹⁰⁸ AGG-GAO, JD IT 1871,8

¹⁰⁹ LUA, D-3-1-8






Alondiga eta azoka eraikitzeko 1927ko proiektua. Lezoko Udal Artxiboa.




Halaber, frontoi zaharra 1926an berriztatu zuten, eta obra horrekin gune publiko interesgarria sortu zen parokiaren inguruan. Hain zuzen ere, nabarrena da Lezoko pilotalekuaren presentzia, eta San Joan Bataiatzailearen eliza eta udaletxearekin batera, gizartearen oso errotutako eremua eratzen du; halaber, eremu horri probalekua gehitu behar zaio, beranduago eraiki bazen ere. Hala, eraikin hauek guztiek Euskal Herriko berezko kulturaren gune garrantzitsua osatzen dute.

Lezoko jatorrizko frontoi irekia 1818koa da. Nolanahi ere, 1926an, zabaltzeko eta berriztatzeko oso obra garrantzitsua jasan zuen Ramon Kortazar arkitektoaren zuzendaritzapean. Gaur egun Gipuzkoako zaharrene-tako bat da. Pilotaleku irekia da, ezker pareta laburrekoa. Frontisa hareharrizkoa da, kareharrizko xaflez estalita. Era berean, frontisaren gainean, harri zuzeneko plaka bat dago, eta bertan "1926/PILOTA-LEKUA" inskripzioa. Ezker pareta berdez margotuta dago, eta jokorako marrak zuriz; kurba batez jaisten da, frontisetik urruntzen garen heinean. Zorua hormigoi leunduzkoa da. Frontisaren beheko zatia luzituta eta zuriz margotuta dago kareharrizko lauzen gainean.



Lezoko pilotalekua, 1926. urteko proiektua. Lezoko Udal Artxiboa.



Probalekua estaligabea askoz modernogoa da: 1975ekoa, hain zuzen. Errekarriz egina dago, eta harri luzeekin egindako ilarek lau plazak eta alboko kaleak banatzen dituzte. Alde motzetako batean koska txiki bat dago, eta bertan jarri ohi da epailea, bi zutaberen artean. Probalekuaren kanpoaldean, hura inguratzen duen pasealekuan, hain zuzen, proba harri handi bat dago, ez oso zaharra. Burdinazko euskarriak ditu, abereari lotu ahal izateko.

Ura eta herri hornidura

Lezok, Jaizkibelgo magalean dagoenez, beti izan du edateko ur nahikoa. Iturri franco izan ditu, baita herrigunean ere. Nolanahi ere, herritarrek edateko moduko uraren hornidura gai garrantzitsua izan da beti Lezon. 1897an, Udalak bere gain hartu zituen Iparragirre lursaileko iturburua aprobetxatzeko eta edateko urak bideratzeko ardura, eta Ramon Kortazar arkitektoak idatzi zuen proiektua¹¹⁰. Iturburu pribatua zen, baina haren jabeek betiko laga zioten udalari hitzarmen baten bidez. Lezok, garai hartan, 2.000 biztanle zituen, eta iturburuaren aprobetxamendua 1,5 litro segundokoa zen, edo beste modu batera esanda, 90 litro minutukoa.

Iparragirreko ur biltegia ingeniari-tza obra interesgarria da. Oinplano laukizuzenekoa da, eta piramide enbor mailakatu formakoa. Kontrahorma sendoak eta ganga formako bi espazio ditu, eta makina gela bat. Hormak harrizkoak dira, eta fatxada frontoi kurbatu batean errematatuta dago.

¹¹⁰ LUA, D-7-1-1.



Iparragirreko ur depositua.

20ko hamarkadatik aurrera, biztanleak eta industria jarduerak ugaldtu zirenez, edateko uraren eskaera ere areagotu zen, eta horren ondorioz, Lezoko ur horniduraren sarea zabaldu eta hainbat hobekuntza egin behar izan ziren bertan. 1923an, Gumersindo Bireben ingeniariak idatzi zituen Iparragirre errekaen iturburuak biltzeko eta ur biltegiara bideratzeko obren proiektua. Bi urte beranduago, 1925ean, ikuztegi berria behar zela konturatu ziren. Iparragirre errekan kokatu zuten, Zubitxo zubitik 51,50 m-ra. Errekaren bi ertzen artean harrizko hormatxo bat eraiki zuten, 0,50 m zabal eta 4 m luze; gehieneko garaiera ibilguaren gainean 0,60 m-koa zen, eta bazuen gainezkabidea eta garbiketarako konporta, 0,40 m-ko altueran. Hormatxo horrek biltzen zuen arropa garbitzeko ezinbesteko ura. Hormatxo horren ezkerreko ertzean altuera bereko beste bat eraiki zuten; 1,9 m luze zen, eta zabalera berekoa. Bertan zeuden arropa garbitzeko lauzak, 0,55 x 0,90 m-koak. 0,70 m zabaleko espazio txiki bat atondu zuten arropa garbitzaileentzat aurreko hormatxoaren eta bidexka zedarritzen zuen 0,50 metro zabaleko beste baten artean.



Zubitxoko haraska.

Hala eta guztiz ere, biztanleak ugaltzeak edateko uraren eskaera areagotu zuen. Hala, 1958an Jose Maria Elozegi Amundarain ingeniariak beste ur biltegi bat proiektatu zuen Lezorako. Proiektuan zioenez, Lezoko unibertsitateak ur hornidurako arazo handiak zituen, eta proposatzen zuen ponpaketarako beste biltegi bat eraikitzea eta edateko ura hartzeko hodiak hobetzea. Halaber, dokumentu horretan adierazten zuenez, Lezok hainbat iturburu txikitatik hartzen zuen ura; ur hori, hodi eta arketa sare baten bidez, hodi bakar batean biltzen zen, eta, era berean, ponpa bat baliatuta, ur biltegiaren azpitik dagoen beste iturburu bateko ura bidaltzen zen hodi bakar horretara. Garai hartan, ponpaketa txabola oso egoera kaskarrean zegoen: ur ihesak zituen, besteak beste, eta berritu beharra zegoen nahitaez. Proiektuaren arabera, asmoa zen 30 metro kubikoko biltegi bat eraikitzea, oinplano laukizuzenekoa -5×3 m- eta 2 m-ko garaiera izango zuena. Hormak harri eta hormigoizkoak izango ziren, eta 0,85 m-ko zabalera zuten. Zorua ere 250 kg-ko hormigoizkoa zen, eta estalkia hormigoizko armatuzkoa¹¹¹.

1963an, ingeniari berak, probintziako bide eta obretako zuzendariordeak, beste proiektu bat izenpetu zuen; haren arabera, ur biltegiak hobetu eta Lezo edateko urez hornitzeko biltegia zabalduko zen¹¹². Helburua zen biltegiaren ihesei edo jarioei aurre egitea eta haren edukia zabaltea. Horrenbestez, 153 m^3 -ko beste biltegi bat erantsiko zioten lehendik zegoenari¹¹³.

¹¹¹ AGG-GAO, JD S 35,3

¹¹² AGG-GAO, JD S 274,4

¹¹³ AGG-GAO, JDS 13,4

1979an, bide, ubide eta portuetako ingeniari Javier Astrain Calvok Zubitxo erre-kako urak Lezo herriaren hornidurarako aprobetxatzeko proiektua egin zuen. Helburua zen erreka horretako emaria ur biltegiara igotzea. Horretarako, emari guztia hartu eta biltegi erregulatzailerara ponpatu behar zen. Presa txiki baten bidez, emaria hartu eta erdi lurperatuta zegoen 7,35 m³-ko biltze kutxeta batera bideratzen zen, eta handik, ahalmen txikiko (7,5 cv) bi ponpa dituen txabola bate-ra. Ponpak baliatuta, beraz, urak Iparragirreko biltegiara bideratzen ziren¹¹⁴. Ikusten dugunez, behin eta berriz egin ziren hobekuntza obrak; hala, 1975ean, esaterako, Gaintxurizketako Arriandi auzoaren inguruko urak aprobetxatzeko eta ur biltegi erregulatzailerako obrak egin ziren, auzo hartako etxebizitzetan edateko ur eskasia nabarmena zen eta. Udalak herri lanetako ingeniari tekniko Jose Sanchez-Vallejo Requejori enkargatu zion proiektua¹¹⁵.

Beranduago, 1983an, Lezoko baserri guneeetako hornidura eta Añarbeko sare-arekiko lotura aztertu zen. Dokumentu horretan, baserri guneeetako eta 103 eta 108 industrialdeetako egoera aztertu, eta irtenbide alternatiboak proposatu ziren. Proiektu hori faseka eraman zen aurrera, eta azkeneko fasearen proiektua bide ingeniari Joaquin Llorentek izenpetu zuen¹¹⁶.

Gaur egun, Darietako biltegia Lezoko ur biltegi erregulatzailer nagusia da, eta Añarbeko ur sistemak hornitzen du.

Dena den, inguruko zenbait herrik ere hartu zituzten Lezoko Unibertsitateko urak. Errenteriako Udalak, esaterako, XX. mendearen hasieratik, zenbait hartune zituen Jaizkibelen -Jaizkibelgo sistema hidrauliko izenekoa-, seigarren eskualde militarreko Kapitaintza Jeneraleko tiro eremuaren inguruan. Ur sistema hori Errenteriako Udalarena zen 1977an, eta bi hartune zituen: Letekoa, 1900ean eraikia, hormigoizko txabola bat da, eta harrizko lau kutxeta ditu, hormigoizko estalkidunak; bigarrena, "Argindegi eta Ugaiztor" izenekoa, 1918 eta 1920 artean eraiki zen, eta honek ere baditu harrizko hiru kutxeta, hormigoizko estalkidunak hauek ere. Hartune multzo horrek, beraz, Jaizkibelgo sistema hidrauliko izene-koa osatzen du, eta Jaizkibelgo hegoaldeko hegalean isurtzen da, Lezoko Bonatxo baserriaren inguruan. Bertan amaitzen baita mendia zeharkatzen duen tunela. Tunel barneko hodiak, 1977ko txosten batek dioenez, burdinurtuzkoak ziren, eta haien barne diametroa 80 eta 100 mm artekoa zen. Sistema hidrauliko horrek interes berezia zuen Errenteriarako, eta horregatik zaindu eta mantendu du urte askoan. 1946an, esate baterako, jario handiak aurkitu zituzten -Pasaiaiko Udalak aprobetxatzen zituen ur ihes hauek-, eta hori dela-eta, txosten bat enkargatu zioten J.M. Martinez Artola ingeniariari, eta bertan jaso ziren instalazioaren behar nagusiak eta egin beharreko obrak. Dena den, hamar urte beranduago egin ziren obra horiek¹¹⁷. Zenbait enpresak ere erabili zuten azpiegitura hori, hala

¹¹⁴ AGG-GAO, JD S 234,1

¹¹⁵ AGG-GAO, JD S 526.2

¹¹⁶ LUA, Hirigintza 313-41. (1985)

¹¹⁷ Errenteriako Udal Artxibategia (EUA) S;2.15.2. Lib. 627. Exp.5

nola Errenteriako Papelera Española langegiak. Gaur egun, sare hori Gaintzurizketako baserrien hornidurarako erabiltzen da, eta oraindik ikus daiteke sistema konplexu eta eraginkor horren azpiegitura. Nabarmentzen da, batez ere, Jaizkibel mendia zeharkatu eta ura mendiaren iparraldeko hegaletik hegoaldeko hegalerara daraman tunela. Harlanduxko, harlangaitz eta porlanezkoa da, eta kanoi erdiko bobeda du. Ura mendebaldeko hormaren ondotik doa, eta hegoaldeko sarbidea burdin hesi batekin itxita dago gaur egun, eta harrizko horma bana du alde bakoitzean.

Hala ere, ez da Jaizkibel zeharkatzen duen tunel bakarra. Bada beste bat, gutxinez, mendebalderago, baina kasu horretan urak Pasaiara isurtzen dira.




Jaizkibelgo urak. Tunela.

XX. mendeko etxebizitzaren arkitekturaren bilakaera

Populazioaren hazkundera eta XX. mendeko aldaketak herrigunean ere islatzen dira. XIX. mendearen amaieratik, aipamen dezente topatzen ditugu dokumentuetan Lezoko herriguneko eraikinak jasotzeko obrei buruz. Lehendabiziko obra horietako adibide bat 1891n dugu, orduan egin baitzituzten obrak Rafael Zabalak eta Ascension Isasak, Juanbernardonea (28. zk.) eta Otondonea (27. zk.) etxeetan, hurrenez hurren¹¹⁸.

Dena den, eraikinak garaiago egiteko joera hori XX. mendeko 20ko hamarkadatik aurrera ugaldu zen bereziki. Garai horretakoak dira Lezoko herrigune histo-



Felix Arriagaren Txakurtxulo etxea 1920. urtean. Lezoko Udal Artxiboa: D 4 1 1.


¹¹⁸ AGG-GAO, JD IT4053,B Exp. 7420

rikoaren ohiko profila –Kale Nagusikoa zein Donibane Kalekoa- aldatu zuten jasotze obrak. Hain zuzen, 1920koa da Txakurtxulo izeneko etxea (Kale Nagusia, 23) jasotzeko obra. Felix Arriaga zen etxearen jabea, eta Ramon Zendoia izan zen erreforma zuzendu zuen maisua.

1922an, Jose Ramon Salaberriaren Mariposenea etxeak aldaketa garrantzitsuak jasan zituen.

Garai hartako Lezoko herrigune txikia gero eta beteagoa zegoenez, beste gune batzuk bilatu behar ziren hura zabaltzeko. Hala, eraikin berriak jasoko ziren pixkanaka inguruko lurretan. Denetatik zegoen: hala burgesia sortu berriarentzako

etxeak, nola langileentzako etxebizitza blokeak. Eraikinak, gehienbat, XX. mendeko hasierako arkitektura eklektikoaren parametroen barruan kokatzen dira.



Lezo eta Errenteriarren arteko mugan, gaur egungo Jaizkibel Hiribidea hasten den tokian, familia bakarreko txalet burgesak agertu ziren, gune horretan izan baitzuen dinamismorik handiena lehendabiziko industriak. Horren adibide garbia dugu “villa 1 bis” izeneko, zeina 1900ean eraiki zen, jabeek emandako informazioaren arabera, nahiz eta ateburuan “1907” inskripzioa ikusten dugun. Horixe izan zen Panier Fleurie jatetxe historikoaren lehenbiziko kokapena. Edo Ferminenea eta Piaenea txaletak, biak XX. mendeko lehenengo urteetako eraikin eklektiko eta dotore bakar batean. Eraikin monumentalak da:

ertzeko dorreak ditu, mantsarda ugari eta hegal irtenak beso finen gainean bermatuta. Gainera, paramentu sorta interesgarria du, hainbat motatakoak, garaiko nazioarteko eklektizismoaren ildotik: Lezoko harrobietako ohiko harlandu gorritza, zuriz margotutako paretak, eta bandak eta arkuetako aurrealdeak okreak, kartela ebakien ondoan.


Dokumentuaren arabera, 1909an, Domingo Agirrebengoa arkitektoak baimena eskatu zion Foru Aldundiari txalet hori eraikitzeko, Errenteriako Fermin Berrondorentzat. Eskararekin batera aurkeztu zituen planoetan ikusten dugunez –goitiko bistak bakarrik dauden arren-, etxebizitzaren tamaina eta espazioaren antolaketa luxuzko etxebizitzetan ohikoa dena da, eta badu, gainera, lorategi dotore bat¹¹⁹.

Gaur egun, etxebizitza bat baino gehiago dago bertan, baina, hala eta guztiz ere, ederra eta berezia da oraindik. XX. mendearen hasierako Lezoko eraikin interesgarrienetako bat da.




Ferminenea.

¹¹⁹ AGG-GAO, JD IT 4053,a. Exp.7358



1909. urtean Domingo Aguirrebengoak eginiko Ferminearen planoak. GAO-AGG: JD IT 405377358.


1923an, Lino Salaberriak Ramon Zendoia arkitektoari enkargatu zion estilo neoeuskalduneko etxe exentu bat jasotzea bere baratzetan, Marienea etxearen ondoan¹²⁰.



Mainea etxearen ondoko Galardi Lurra izeneko baratzean Lino Salaberriak egin nahi zuen etxearen planoak. Lezoko Udal Artxiboa: D 4 1 1 . .

¹²⁰ LUA, S D

CONSTRUIR DON LINO SALAVERRIA EN LA HUERTA DE SU PROPIEDAD
HALLA CONTIGUA A LA CASA DENOMINADA "MAINEA" SITA EN
DE LA UNIVERSIDAD DE LEZO.
— ESCALA — 1:100 —




Elias Salaberria pintoreak Andreseneko-Tolarieta izeneko bere etxea berreraiki nahi izan zuen, erdi erorita baitzegoen, eta Jose Angel Fernandez Casadevante arkitektoari enkargatu zion obra¹²¹. Dena den, ez da jada existitzen etxe hori.



Andresene etxea. Lezoko Udal Artxiboa: D 4 1 1.

¹²¹ LUA, SD.



Andresene etxea. Lezoko Udal Artxiboa: D 4 1 1.

20ko hamarkadan, 1926an hain zuzen, Andreone etxea berrizatu zuten, Jose Alzugarai arkitektoaren zuzendaritzapean. Andres Payuelok enkargatu zuen, bere industria pabilioiak eraiki zituen une berean. Halaber, Antonio Setien arkitektoak Pascual Enea etxea berrizatu zuen.

Hamarkadaren bukaeran, etxebizitza eraikin altuak altxatu zituzten Donibane kalean. Jauregi-alde etxearen ondoan Gerardo Plaza arkitektoak eraiki zuen Hipolito Irazuren aginduz, eta, kale berean, Ramon Kortazar arkitektoak Bonifacio Pagolaren aginduz eraiki zuen¹²².

Ibaiondo etxea ere beste eraikin interesgarrietako bat da. Ezin izan dugu hari buruzko agiririk aurkitu, baina haren estilo eklektikoak adierazten digu XX. mendearen lehenengo hamarkadetan eraikia izango zela.


¹²² LUA D, 1 LIB. 2. ESP.

Donibane kalean ere, portuko industria gunetik gertu, etxebizitza bloke ilara bat zegoen, XX. mendearen hasierakoa, baina gaur egun haietako bloke bakarra baino ez da geratzen. Nolanahi ere, eraikin garai horri arkitektura apalago baten espiritua antzematen zaio: fatxaden antolaketa harmonikoa, baoen erritmo ordenatua, aurrealde osoa apaintzen duten banda leunak eta balkoien forjatu interesgarriak.

Auzo berriak


XX. mendeko lehen hereneko aldaketak xumeak izan ziren arren –eraikin batzuk jaso eta etxe eklektiko zenbait eraiki ziren-, 40ko hamarkadatik aurrerako auzo berriek erabat aldatu zuten Lezoko herrigunea eta etxebizitzaren gunea.

Pysbe auzoa PYSBE eta Astilleros Luzuriaga, SA enpresek sustatu zituzten, beren langileei etxebizitzak eskaini nahian. Hain zuzen ere, 1949ko martxoan, Federico Zappino Barkaiztegi, bi enpresa horien izenean, baimena eskatu zuen bi lantegietako langileentzat etxebizitzak eraikitzeko. Horretarako, Lezoko udalerriko Arretxenea baserriko lursailak erosiak zituzten jada. Ignacio Mendizabal Lujanbio arkitektoak idatzi zuen proiektua, Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren etxebizitza babestuei buruzko Legearen eta Araudiaren arabera idatzi ere. 164 etxebizitza proiektutatu ziren, eta Zappinoren hitzetan, oso obra garrantzitsua zen udalerrientzat, haren ustez, “1.000 biztanle gehiago” ekarriko baitzituen Lezora, eta “munta horretako lehendabiziko multzoa” izango zen Gipuzkoan.



PYSBEko etxeak. Lezoko Udal Artxiboa.

Horren aurretik, beste aurreproiektu bat aurkeztu zuten Etxebizitzaren Institutu Nazionalean -1948ko urriaren 20an onartu zen, hain zuzen-; beraz, 1949ko proiektuak aurrekoa garatzea zuen helburu. Esan bezala, bertan babes ofizialeko 164 etxebizitzako auzo bat eraikitzea zen asmoa. Proiektuaren memorian, etxebizitzetan biziko ziren familien artean egindako ikerketa bat aipatzen zuen arkitektoak, eta haren arabera, haietatik %70-75ek hiru logelako etxebizitzak behar zituzten. Hainbat etxebizitza eredu diseinatu ziren, eta blokeak ere ez ziren denak berdinak. Proiektuko A motako blokeak makinista ofizialentzat izan-



go ziren; bi solairuko eraikinak ziren, eta haietako bakoitzean, bina etxebizitza, zeinek lau gela, jangela, sukaldea eta komuna baitzituzten; bloke horiek, gainera, lorategiak izango zituzten. Ondoren, lantegiko langile arruntentzako blokeak deskribatzen dira proiektuan: haientzat, lau logeladun etxebizitzetako lau bloke eraikiko ziren, eta hiru logeladun etxebizitzetako zortzi bloke. Lau logelakoak B, B ekonomatudunak eta C motakoak ziren –hiru solairuko blokeak ziren azken horiek, eta orientazio desberdina zuten-; azkenak, berriz, E blokean egongo ziren, eta hiru gela, sukalde-jantokia eta dutxa zituzten.

Proiektuaren arabera, langileentzako etxebizitza horretako bakoitzak 50-60 m²-ko lursail txiki bat izango zuen, etxe bakoitzeko baratze txiki bat egon zedin.



PYSBEk eta Luzuriagak eraikitako etxeak.

Fatxadetako hormak eta haien zimenduak harrizkoak izango ziren, erraza baitzen bertako harria lortzea. Era berean, zutikoak hormigoi armatuzkoak izango ziren lehendabiziko solairuko etxebizitzako zoruraino. Hortik gorako zutabe, habe eta habexkek zurezkoak izango ziren, eta halaber estalkiko egitura; teilatua hodi teilarekin estaliko zen.

Memorian ez da aipatzen beste instalazio edo eraikinik, baina, planoen arabera, proiektuan neskato eta mutikoen eskola eta are frontoia eraikitzea aurreikusten zen¹²³.

¹²³ LUA, Hirigintza 1-26

Dena den, proiektuaren exekuzioa ez zen hain asmo handikoa izan. Hasieran 164 etxebizitza proiektatu baziren ere, 48 eraiki ziren bakarrik, eta ez zen frontoirik ez eskolarik egin. Hala, gaur egun lau etxebizitza bloke ikusten ditugu: haietako hiru paraleloan kokatuta daude iparretik hegora, eta laugarrena haiekiko sasi-perpendikularrean. Etxabea eta beste bi solairu dituzte; fatxadetako bao zuzenak erregulariki antolatuta daude, eta eskailera kaxako eta komunetako leihoak eta balkoiak dira fatxadako artikulazioaren elementu nagusiak. Teilatu gailurrak aurrealdeekiko paraleloak dira, eta ez dago elementu apaingarri askorik fatxadetan: banda xumeak horma pikoetan eta eskailera kaxaren inguruan, eta leiho ertzak nabarmenduta. Halaber, harrizko zokaloak dituzte, fatxada luzituen kontrapuntu gisa. Etxebizitza eraikin xume eta funtzionalak dira, eta Lezok garai hartan zuen etxebizitza premia larriari erantzuten zieten; nolana ere, interes gehien proiektua sustatu zuten enpresek zuten, beren langileei gutxienezko bizi baldintzak eskaini behar zizkieten eta. Etxe hauen inguruan ez dira ageri, ordea, proiektuan aurreikusten ziren instalazio osagarriak.

Ez dakigu zerk eragotzi zuen PYSBEko proiektua bere osotasunean praktikara eramatea, baina begi bistakoa zen 50eko hamarkadan etxebizitzaren premia zegoela oraindik. Ordurako Obra Sindical del Hogar delako erakundeak hartu zuen bere gain tokian tokiko beharrei aurre egiteko ardura, eta huraxe izan zen Lezoko San Pedro multzoa eraikitzeko obra aurrera eraman zuena, Ramon Martiarena arkitektoak 1952an idatzitako proiektuaren arabera¹²⁴. Bost urte beranduago, 38 etxebizitzako multzo hori bukatu ondoren, bertako ur horniduraren eta sarbidearen urbanizazioaren proiektua onartu zuen Lezoko Udalak; Isidro Setien arkitektoa izan zen proiektuaren arduraduna¹²⁵.



Obra Sindical del Hogar delako erakundearen babespean eraikitako San Pedroko auzoa.

¹²⁴ *Guía de arquitectura 1850-1960. Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia - COAVN. 2004. 81. or.

¹²⁵ AGG-GAO, JD S 1123,10

Etxebizitza multzo hori, beraz, gerraondoko erakunde frankistek bultzatutako ereduaren emaitza da. Herri askotan jarri ziren martxan botere publikoen kanpaina haiek. San Pedro multzoaren kasuan, Martiarenak hiru bloke proiektatu zituen guztira, haien arteko espazioa itxiz. Bi bloke paralelo dira; haietako baten muturra alakatua da, eta hirugarrena aurreko biekiko perpendikularra, lurraren orografiara egokituta. Barruko espazioak bi sarbide ditu, eta haietako bakoitzak erdi puntuko arku bana du. Bloke bakoitzak, etxabeaz gain, hiru solairu ditu; estalkia lau isurkikoa da, bloke bakoitzeko erdiko gorputzean izan ezik, non bi isurkiko teilatua baitago, balkoiak estaltzeko. Etxabeaz, harrizko plakak dituzte fatxadek. Agerikoa da programa hauetako ohiko erregionalismoa.

Lezoko biztanleria gero eta ugariagoa zen, eta azpiegitura publikoak zaharkituak geratzen ari ziren. Horren adibide garbia da Udalak 1959an bultzatu zuen egitasmoa, alegia, eskolako eraikinari solairu bat gehiago ematea, beste lau ikasgela gehiago egin nahian. Urte horretan onartu zituen proiektua, aurrekontua eta baldintzen agiria¹²⁶, ordura arteko eraikinak ezin baitzion eskaerari erantzun. Udalak, gainera, hazkundera planifikatu nahi zuen nolabait, eta horretarako, esan bezala, Hirigintza Plan Orokorra onartua zuen 1957an; 1962an, berriz, Setien Alberro arkitektoaren zuzendaritzapean, plana berrikusi eta industrialdea eta etxebizitza multzo gehiago proiektatu eta lehendik zeudenak optimizatu nahi zituzten. Plan horien ondorioz, beraz, Lezo hedatu egin zen, hainbat etxebizitza, lantegi, pabilioi eta azpiegitura eraiki ziren eta.

Hala, 1965ean, NIKE, SA eraikuntza enpresak etxebizitza eta merkataritza lokaletako hiru bloke eraikitzeko proiektua aurkeztu zuen. 9. poligonoan eraikiko ziren, eta Juan Maria Agirre Orobiourrutia izan zen proiektuaren arduraduna¹²⁷.

1969an, Antonio Ijurko promotoreak hiru proiektu aurkeztu zituen, eta, haien bidez, guztira 130 etxebizitza eraikiko ziren 13 bloketan. Arkitektoak G. Vega de Seoane eta Francisco Bernabe izan ziren, eta proiektuak babes ofizialeko etxebizitzaren programaren barruan sartu ziren¹²⁸. Urbanizazioaren lehen faseari 1971n ekin zioten¹²⁹. Bi arkitekto hauen lana bloke paralelepipedo handi eta bertikalek definitzen dute. Eraikin hauek erabat funtzionalak dira, dentsitate handikoak eta estilo borondaterikgabeak.

Hamarkada horretakoak dira, halaber, Errenta Mugatuko etxebizitzak deiturikoak, Isidro Setien arkitektoak 1963an altxatu zituenak. Dagoeneko abandonatuta dauden arren, Lezotik Gaintzurizketarako errepide ondoan ditugu, biak ala biak mendi hegalean. Ezaugarri bertsuak dituzte, eta erraz identifikatzen dira zura imitatzen duen bilbadurarengatik eta anta esekiengatik. Material xumeez eginiko etxeak dira.

¹²⁶ AGG-GAO, JD S 1289,33

¹²⁷ AGG-GAO, JD S 498,11

¹²⁸ LUA, Hirigintza 10-11

¹²⁹ LUA, Hirigintza 514-4



Ijurrak jaunak sustatu etxebizitzak.

Errenteriarako errepidearen ondoan ere, proiektu handinahia gauzatu zen: hiru solairuko hiru bloke exentu, lau isurkiko teilatukoak; zutik daude oraindik.

Beranduago, 1979an, Obra Publikoetako eta Hirigintzako Ministerioak 102 etxebizitzaren eraikuntza bultzatu zuen. Kasu horretan, Joaquin Montero Basequseaux arkitektoa izan zen proiektuaren arduraduna, eta Dragados y Construcciones, SA enpresak exekutatu zuen obra¹³⁰. Orubea Etxebizitzaren Institutu Nazionalak urbanizatutako poligono batean zegoen, Altamira izeneko inguruan. Lursail luzanga zen, 238 x 25 m-koa, Errenterierekiko mugan. Maila desberdineko bi kaleren artean dago, eta 10 m-ko altuera dago bien artean. Proiektuko 102 etxebizitzak hiru bloketan banatu ziren. Blokeak kaleekiko paraleloak dira, eta espaloien ondo-ondoan daude. Haietako bi poligonoaren goiko aldean daude, eta bestea behean. Kalea 200 metro luze da, eta bi herenetan arkupeak ditu. Lurraren aldapa handia dela eta (%40), hiru hormarteko bloke linealak eraikitzea erabaki zen, lurrari hobeto egokitu nahian. Solairu bakoitzean bi etxebizitza daude, eta goitik sartzen zaio argia eskailera kaxari. Gainera, eskaile-ra kaxek bigarren sarbide bat dute beste maila batean: multzoa egituratzen duen oinezkoen kalera ematen du¹³¹.

Zentzu horretan, interesgarria da Silvan-ek 70eko hamarkadaren hasieran Lezoko Unibertsitateari buruzko monografian egindako hausnarketa, herriaren hazkundea hizpide hartuta. Bere hitzetan, herriak hazkunde demografiko handia jasan zuen azken berrogeita hamar urteetan, eta ondorioz, herrigunearen perimetroa zabaldu eta eraikin berriak altxatu behar izan ziren. Halaber, Silvanek dio eraikin berri horiek lehengo kaleen luzapenak osatzen dituztela, edota inguruko guneeetan kokatuta daudela, herrira iristeko errepideetan edota herrigunea inguratzen dutenetan. Hori dela-eta gorde izan du Lezok parte zaharraren "tipismoa", historiagilearen esanetan. Hala eta guztiz ere, Silvanek dioenez, Lezoko auzo berrietan, mundu osoko gehienetan bezalaxe, ez dira kontuan hartu garai batean etxe multzo horietan agintzen zituzten arauak; izan ere, auzo berri horietako hirigintza berria generiko eta unibertsalista da, eta gero eta gutxiago ditu, tokian tokiko ezaugarri eta ñabardurarik gabea¹³².

Garbi dagoena zera da: Lezoko hirigintzan, bertako elementuak eta espazioek egungo arkitekturan sintetizatzen diren lorpen eta arazoak nabarmen aurkezten dizkigutela.

¹³⁰ SILVAN, L: *Lezo*. Donostia , CAM, 1970. 50. or.

¹³¹ LUA, 5.2. 38-5`

¹³² LUA, 2.5.2. 38-5`

¹³³ LUA, Hirigintza 69, 1988.

4- ONDORIOAK

Orrialde hauetatik egin dugun hurbilketa xumeari esker, badakigu Lezoko ondarea aniztasun tipologiko, kronologiko eta are estilistiko handiko collage interesgarria dela. Nolanahi ere, liburuan aipatutako elementu guztiak ondarearen ikuspegitik begiraturaz gero pieza baliotsuak dira, sortu ziren testuinguru historikoaren lekukoak baitira. Gainera, gaur egunera arte iritsi zaiguna, hautaketa historiko baten ondorio da: eman zaien balioarengatik batzuetan, edo guztiz kontrakoarengatik, hau da, erabat baztertuta eta ahaztuta geratu direlako. Zentzu horretan, aitortu beharra dago hemen aztertu ditugun elementu guztiak ez daudela berdin balioztatuta herritarren artean: batzuk lezoarren ondare ukaezintzat hartzen dira, eta beste batzuk, berriz, ez dute inolako kontsideraziorik.

Esate baterako, denok dakigu oso ezaguna (eta aintzat hartua) dela Lezoko erlijio ondarea, baita herritik kanpo ere. Industriaurreko ondarearen zenbait elementu, berriz, hala nola karobiak, “utzikeriari esker” iritsi zaizkigu. Bestalde, industria ondarea, portukoa, zutik dagoena nahiz dokumentuen bidez ezagutu duguna, oso baliagarria zaigu Lezoren historiako garai hori ezagutzeko.

Garai bakoitzak bere baloreen arabera hautatu du, eta bera identifikatzen eta definitzen duten elementuak nabarmendu ditu. Ikuspegi zabalago batekin ulertzeko eta baloratzeko gai izan behar dugu, diziplina guztiak aintzat hartuta, jakina; alegia, ohiko erreduktionismo eta monumentalismoa gainditu, eta lehenaldiko (are duela gutxiko) jarduerak, pentsaerak, ikuskerak gogorarazten dizkiguten elementuak gure ingurunean eta gure paisaian modu aktiboan txertatzen ikasi behar dugu.

Hainbat elementu nabarmentzen dira Lezoko gaur egungo ondarean, hala nola erlijioaren inguruak, hirigintzakoak edota oinetxeak. Baserri guneeetako egoera, hala ere, kezagarria da oso. Hainbat baserri utzita daude, eta beste askok hainbeste aldaketa jasan dituzte, non baliorik handiena galdu baitute.

Aipamen berezia merezi du Markesane edo Lezoaundia parkeak. Lezoko espaziorik baliotsuenetako bat da ondareari dagokionez; batez ere, haren kokapena, dituen aztarnak eta izan ditzakeen balio arkeologikoak kontuan hartuta.

Leku horretan egin beharreko jarduerak –ezagutza historikoa eta aztarnen balioespena oinarri hartuta– gaitasuna izan beharko lukete gune hori Lezo berrian txertatzeko.

XX. mendean, hainbat egoera ekonomiko desberdin txandakatu dira herrian, oso bizkor gainera, eta, ondorioz, etengabe aldatu dira espazioa eta garai bakoitzeko paisaia osatzen duten elementuak. Ez da hausnarketarik izan unean uneko errentagarritasunetik harago. Horrenbestez, pieza baliotsu dezente desagertu dira, hala nola garai bateko hainbat baserri, besteak beste, gaur egungo industrialdeak dauden tokietan zeudenak; bestalde, beste zenbait garai historikoren aztarnak falta ditu gaurko Lezok, esaterako, 60ko hamarkadaren aurreko indus-

trializazioarekin lotutako ikurrak. Gainera, esan bezala, Lezoko industriaren zati handi bat portuaren ingurunean kokatu zen; baina 70etik aurrera, portuak lurralde horiek behar izan zituenean zabaltzeko, industria hori guztia ezabatu zen. Beste industria gunea ere, Lezo eta Errenteria arteko mugaren inguruan zegoena, desagertzen joan da pixkanaka, Donostia-Irun ardatzeko bide azpiegiturera rako erabili baita neurri handi batean.

Lan honetan, Lezoko ondare materiala zuzenean aztertu dugu, bertatik bertara eta/edo agiriekin eta liburuekin emandako informazioaz baliatuta. Nolanahi ere, argi dago gaiak ikerketa sakonago bat merezi duela: arlo eta tipologia bakoitzak bere analisia izan beharko lukeela. Gainera, beste diziplinetako balorazioak eta azterketak gehituz gero, lanak ikuspegi zabalagoa izango luke. Puntu honetan, ezinutzizkoa iruditzen zaigu, besteak beste, ahozko iturrien azterketa.

Globalizazioak eta etengabeko aldaketek markatzen duten mende honetan, identitatea eta iraunkortasuna izan behar dute ondarea kudeatzeko irizpide nagusiak, betiere diziplina aniztasuna ahaztu gabe. Espero dezagun Lezon arlo honetan aurrerantzean egingo den lanak parametro horiek guztiak kontuan hartzea.

KONTSULTATUTAKO FONDOAK

KUTXA Fototeka

Lezoko fototeka

Badator

Euskomedia

Koldo Mitxelena Liburutegia

Lezoko Udal Artxibategia (LUA)

Errenteriako Udal Artxibategia (EUA)

Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Artxibategia - Archivo Autoridad Portuaria del Puerto de Pasajes

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen Gipuzkoako Artxibo Orokorra (GAO-AGG) (Tolosa) eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa (GPAH) (Oñati). Aldundiaren kolaborazioa eskertu nahi dugu.

San Telmo Museoko Artxibategia (Donostia). Gipuzkoako Monumentuen Batzordeko aktak.

San Telmo Museoko Fototeka (Donostia)

San Telmo Museoko Artxibategia (Donostia)

Euskotren-eko Artxibategia

Adif Artxibategia

Gregorio Hombrados Oñatibia Dokumentu Fondoa (Aranzadi Zientzi Elkartea)

BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE-SORONDO, A. eta LIZARRALDE, K.: *Ermitas de Gipuzkoa*. Ataun: Barandiaran Fundazioa, 2000.

AGUIRRE-SORONDO, A.: *Tratado de molinología*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1988.

ARIZAGA BOLUMBURU, B.: *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*. Donostia: Kriselu, 1990.

ARRAZOLA, M.A.: *Renacimiento en Guipúzcoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1989.

ASTIAZARAIN, M.I.: *Arquitectos guipuzcoanos del siglo XVIII. Ignacio de Ibero, Francisco de Ibero*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990.

BARANDIARAN, P.: "Lezo. Izenari buruzko zenbait datu eta burutazio". *Lezo Aldizkaria*, 2. zk. (1989).

BARANDIARAN, P.: "Lezoko kale izendegiari buruzko zenbait adierazpen". *Lezo Aldizkaria*, 3. zk. (1989).

BARRUTIABENGOA, U. et al.: *Astlehenean baserrian, asteartean... Lezoko baserriak lehen eta orain*. Lezo: Udala, 2005.

CLUA MENDEZ, J. M. : *Cuando Franco fortificó los Pirineos. La línea P en Aragón*. Ed. Katia. Zaragoza. 2007

ERRUGE, S.: *Lezoko Gurutze Deunaren edesti eta berri laburrak eta bedera-tziurrena*. Tolosa: E. López, 1908.

GARMENDIA, J.M. y ZURUTUZA, L.: *Lezoko ibilbide pedagogikoak*. Lezo: Lezo Unibertsitateko Udala, 2005.

GOROSABEL, P.: "Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa", in *Cosas memorables o historia general de Guipúzcoa*. 5. liburukia. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972.

Guía de Lezo : naturaleza y huella humana. Lezo : Udala, [1995].

HERRERAS, B.: *Altza: Historia y Patrimonio, Altza Mintegia, 2001*

HERRERAS, B.: "Pasaia a través de su patrimonio" en *Pasaia. Memoria histórica y perspectivas de futuro*. Donostia, 1999

HERRERAS, B., ZALDUA, J.: "Industria y patrimonio en la bahía de Pasaia" in *Patrimonio industrial en Pasaia: Defensa y difusión*. Pasaiaiko Udala, 2007.

HUGO, V.: *Les Pyrénées*. Palma de Mallorca : Terra Incógnita, 2000.

LANCIS, L.: *Guía general de Guipúzcoa histórico-geográfica-descriptiva, comercial e industrial*. 1898.

LEZOKO KULTUR BATZORDEA: *Lekuzko atzizkiak eta Lezoko etxeetako ize-nak. Ikasgai teoriko-praktikoa*. Lezo: Lezoko Unibertsitateko Udala - Iberduero, S.A. (Modulu didaktikoa)

LINAZASORO, I. : *Caseríos de Guipúzcoa*. Donostia: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1974.

MADOZ, P.: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*. Madril: Est. Literario-Tipográfico de P. Madoz y L. Sagasti, 1845-1850.

MARTÍNEZ, J.: "La Universidad de Lezo", in: *Salaberria, el pintor de Lezo en Gipuzkoa*. San Sebastián: CAMSS, 1990.

MORENO RUIZ DE EGUINO, I. (coord.), MARTÍNEZ, J. y GARMENDIA, C.: *Salaverría. El pintor de Lezo en Guipúzcoa*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1990.

MARTÍNEZ DE ISASTI, L.: *Compendio historial de Guipúzcoa*, in: *Cosas memorables o historia general de Guipúzcoa*. 5. liburukia. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972.

MUGICA, S.: "Los gascones en Guipúzcoa", in *Homenaje a D. Carmelo Echegaray*. Donostia, 1928,

MURUGARREN, L.: *Relación de puntos religiosos.....* BRSVAP, XLVIII 3-4 .

PEÑA SANTIAGO, L.P.: *Las ermitas de Guipúzcoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995.

PIRALA, A.: *Guipúzcoa pintoresca. San Sebastián y sus cercanías*. Madril, 1894.

MADOZ, P.: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*. Madril, 1845-1850.

PUENTE SÁNCHEZ, M.T.: “Escultura exenta de vírgenes y cristos en Pasajes, Lezo, Rentería y Oyarzun”. Cuadernos de Sección. Artes plásticas y monumentales, 6. zk., Eusko Ikaskuntza

SANTANA, A. et al.: *Euskal Herriko baserriaren arkitektura. La arquitectura del caserío de Euskal Herria*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, 2001. “Los caseríos” izeneko liburukia.

SILVÁN, L.: *Lezo*. Donostia: CAMSS, 1970.

TELLECHEA IDÍGORAS, J.I.: “Noticias sobre el Dr. Isasti, sobre su Compendio Historial y sobre los astilleros de Lezo”, in: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 7. zk. (1973),

URTEAGA, M.: *Guía histórico-monumental de Gipuzkoa*.

VITERI, J.L. (textos y coord.): *Ondare historiko-artistikoaren zaharberrikuntza. Restauración del patrimonio histórico-artístico: Gipuzkoa, 1987-1990*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991.

VITERI, J.L.: *Ondare historiko-artistikoaren zaharberrikuntza. Restauración del patrimonio histórico-artístico. Gipuzkoa 1991-1994*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995.

ZABARRE: “Lezoko etxe zaharren izenak eta beren berreskuraketa”.

Lezo Aldizkaria, 1. zk. (1989).

ZURUTUZA, L.: “Lezo eta Santiagoko bidea”. *Lezo aldizkaria*, 12. zk. (1992).